



**EcoEuskadi                      2020                      Garapen**  
**Jasangarrirako Estrategia**

2011ko uztailaren 5a



# Aurkibidea

1	EcoEuskadi 2020: Etorkizun jasangarri bateranzko leiho estrategikoa .....	4
2	EcoEuskadi 2020 Estrategia: Xedea .....	12
3	EcoEuskadi 2020 ikuspegia .....	13
4	Printzipio gidariak .....	16
5	Helburu estrategikoak .....	18
6	Jarduera ildoak .....	22
7	Zeharkako ikuspegiak .....	42
8	EcoEuskadi 2020ren aginte koadroa .....	46
9	Kudeaketa eredua .....	51
10	Sektorekako politiketan jasangarritasun irizpideak txertatzeko jarraibideak .....	55

## 1 EcoEuskadi 2020: Etorkizun jasangarri bateranzko leihorikoa

Sarrera

*«EcoEuskadi 2020 garapen jasangarriaren eredu berri batera jo ahal izateko zeharkako tresna bat da. Baliabide gutxiago kontsumituz, herria modu orekatuagoan garatzea ahalbidetu behar digu, eta tresna hori erabiliko dugu hazkunde ekonomikoa, gizarte ongizatea eta ingurumen baliabideen mantentzea egoki lotuko dituen ekonomia berrirako aldaketaren motor nagusietako bat bultzatzeko...».*

**Patxi López lehendakaria**

2009ko ekainaren 5ean, Urdaibaiko Adierazpena delakoan, lehendakariak adierazi zuen **EcoEuskadi 2020** deitu zuen tresnaren bidez garapen eredu berri bat bultzatu nahi zuela, Eusko Jauriaritzaren ekintza politikoaren ardatz transbertsal eta integratzaile moduan.

**EcoEuskadi 2020**, IX. legealdirako plan eta jarduera esanguratsuen egutegian ekimen adierazgarri moduan jasoa<sup>1</sup>, Euskadiko garapen jasangarriko 2020. urtera arteko estrategia da eta, beraz, jasangarritasunaren ikuspegitik plan sektorialetako helburu estrategikoak ezartzen dituen tresna da. EcoEuskadi 2020 ekimenak garapen jasangarriaren kontzeptuan sakontzeko balioko du. Horrela, haren inplikazioak barneratuko dira sailen eta sektoreen politikak diseinatzeko.

Jasangarritasuna erlazio kontzeptu orokorra da, lurralde jakin baten errealitatea gaindituz, lurralde eremu bakoitzari dagokion konpromiso politiko egokiaren bidez kudeatu behar dena. Horregatik guztiagatik, Euskadik ezinbestez garapen jasangarriko estrategia propioa egin behar du, nazioarteko estrategia eta konpromisoekin bat datorrena –funtsean, **Europako 2020rako strategiarekin**<sup>2</sup>–, eta hiru lurralde historikoen garapen jasangarriko strategiarekin bat egiten duena: 2011-2016 aldirako Bizkaia 21 Egitasmoarekin, 2020-2030eko Gipuzkoako Strategiarekin eta Arabako Lurralde Historikorako Garapen Iraunkorrerako Plan Estrategikoa 2011-2015ekin. Horrez gain, Tokiko Agenda 21en bidez garatutako gure udalerrietako tokiko jasangarritasun prozesuekin ere bat etorri beharko du.

Zeharkakoa denez, EcoEuskadi 2020 ekimenaren eginkizuna da jarduera publikoa ondoko ezaugarriak izango dituen herrialde proiektu baterantz bideratzea: ekonomikoki lehiakorra, berritzailea eta ekoeraginkorra, sozialki kohesionatua eta arduratsua izango den eta haren natura ondareko ondasun eta baliabideen kalitatearekin konpromisoa izango duen herrialde baterantz.

<sup>1</sup> 2010eko apirilaren 13ko Gobernu Kontseiluko Akordioa.

<sup>2</sup> Garapen Jasangarriko Espainiako Strategiarekin (2007) eta Ekonomia Jasangarriaren Legearekin (2011) bat egitea ere beharrezkoa da.

### Estrategia egiteko prozesua

EcoEuskadi 2020 estrategia egiteko prozesuaren burua Patxi López lehendakaria izan da, eta sail eta erakunde anitzeko zenbait batzordez osatu da. Honako hauek izan dira erakunde operatiboak:

- ✓ **Sail arteko Batzordea**, Eusko Jaurlaritzako sailburuordeek osatutakoa.
- ✓ **Erakunde arteko Batzordea**, hiru foru aldundietako, Eudeleko –Euskadiko Udalen Elkarte– eta Eusko Jaurlaritzako ekonomia, gizarte eta ingurumen arloetako ordezkariak osatua.
- ✓ **Jarraipen Batzordea**, Lehendakarietzako, Ingurumen saileko eta Ihebeko goi karguek osatutakoa, EcoEuskadi 2020 ekimena bultzatu duen organo operatiboa, proposamen metodologikoaz eta prozesu osoa garatzeko beharrezkoak diren baliabide teknikoak, antolaketakoak eta ekonomikoak esleitzeaz arduratu dena.
- ✓ **Batzorde Teknikoa**, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailtako teknikariek osatutakoa.
- ✓ **Idazkaritza Teknikoa**, Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoak koordinatutakoa.

Antolaketa eredu honetan topatutako sinergieiei eta lortutako emaitza bikainei esker, ezinbestekoa da etorkizunean ere EcoEuskadi 2020 ekimen honi eustea, Garapen Jasangarrirako Bulegoaren bidez hedatzeko, ebaluatzeko eta jarraitzeko<sup>3</sup>.

Eragile eta herritar kopuru ahalik eta handienak parte hartzearen alde egindako apustua nabarmendu behar da, prozesu osoaren ardatz bereizle eta egituratzaile moduan. EcoEuskadi 2020, **behetik gora eraikitako estrategia** gisa. Horretarako, prozesu osoan parte hartzeko hainbat kanal sortu dira, zuzenekoak eta Internet bidezkoak. Horrek batzordeen lana osatu eta berbideratu du, eta Estrategia egiterako orduan elementu bereizgarrietako bat eta ondoen baloratuetako bat izan da.


### Lan prozesua

EcoEuskadi 2020 Garapen Jasangarrirako Estrategia egiteko jarraitutako metodologiak erabat berretsi du **«prozesua edukia bezain garrantzitsua»** dela dioen goiburua. Horrekin, eragile sozioekonomikoen, erakundeetako, oro har herritarren eta, bereziki, gazteen partaidetzari prozesu osoan ia etengabe eman zaion garrantzia nabarmendu nahi dugu<sup>4</sup>.

<sup>3</sup> Ikus kudeaketa ereduari buruzko 9. kapitulua

<sup>4</sup> 3. eranskina: Partaidetza prozesuaren laburpena

## 1. irudia. EcoEuskadi 2020 Garapen Jasangarriko Estrategia egiteko prozesuaren laburpena



Prozesuak **argi bereizten diren hiru fase** izan ditu. Lehenengoari *prestakuntza* esaten diogu, eta 2010eko maiatzean hasi zen. Fase horretan, aipatutako batzorde guztiak eta hasierako dokumentu metodologikoak sortu ziren. Bigarrenari *diagnostiko* esaten diogu, 2010eko urrian hasi eta 2011ko otsailean bukatu zen, eta Euskadiko garapenaren jasangarritasuna babesteko zortzi gako aurkitu dira. Azkenik, hirugarren fasean, 2011ko ekainean amaitu zenean, estrategia bera egin zen. Azkeneko bi etapa horietan herritarren partaidetza prozesu luze eta sakonak egin dira, eta horiek estrategian jaso diren berriak proposamenak egiteko aukera eman diete gizarte eragileei eta herritarrei oinarritik hasitako benetako eraketa prozesuan.

Diagnostikoaren fasea hiru dokumentutan oinarritu da<sup>5</sup>:

- **2030eko egoerak. Euskadin izango dituen ondorioen gakoak:** Euskadiko jardueraren esparruan eragin zuzena duten zenbait esparrutan antzemandako makrojoeretan oinarrituz.
- **Euskadiko 2011ko Garapen Jasangarriaren Adierazleak:** jasangarritasuna definitzen duten parametro nagusiak zifren bidez adierazten ditu, Europako adierazleekin alderatuta.
- **Egoera-diagnostikoa, Euskadi 2020an jasangarria izan dadin:** Eusko Jaurlaritzaren zenbait sailek egindako diagnostiko sektorialetan, hiru lurralde historikoetan garapen jasangarriko estrategiak garatzeko egindakoetan, eta erabilgarri dauden jasangarritasunaren arloko bestelako dokumentuetan oinarrituta dago (Adib.: Lehendakariaren Gai Sozioekonomikoetarako Aholku Batzordea).

Dokumentu horiek Batzorde Teknikoak egin ditu eta aurretik adierazitako sail eta erakunde arteko batzordeak aztertu dituzte.

Egoera diagnostikoan argi eta garbi adierazten denez, gure sistemak hiru mehatxu handi ditu aurrez aurre. Horiei erantzun egokia eman ezean, ongizate sistema pixkanaka agortu egingo da ezinbestean:

- Lehenengoak baliabideen agortzearekin du zerikusia. Baliabideak (energia, beste lehengai batzuk, elikagaiak, ura) urriak dira, eta gero eta beharrezkoagoak dira munduko merkatuetako gero eta herrialde gehiagorentzat; hori dela eta, gure ekoizpen egituraren lehiakortasunaren oinarriak berriro definitu beharrean gaude mundu ireki eta globalizatu honetan.
- Bigarren mehatxua, oraingo energia merkatuari estuki lotuta dagoena, klima aldaketa da. Hori arintzeko errotik aldatu behar dugu energia fosiletan oinarritutako energia eredua. Energia eredua

<sup>5</sup> Dokumentazio guztia eskuragarri dago <http://www.ecoeuskadi2020.net/eu//index.php> webgunean.

aldatzen bada ere, klima aldaketak eraginak sortuko ditu, eta horietara egokitzea beste aukerarik ez dugu 2020. urtetik harago, gero eta kanpoko fenomeno atmosferiko gehiago daudela kontuan izanik.

- Hirugarrenak demografiaren eboluzioarekin du zerikusia. Demografiaren eboluzioak populazio bolumena egonkortzea eta atzera egitea ere ekarriko digu 2020tik harago.

Mehatxu horiek beste eskualde batzuekin partekatzen ditugu; hala eta guztiz ere, bakoitzaren berariazko konponbideak beharrezkoak dira.

Hiru mehatxu handi horien eta gure errealitate sozioekonomikoaren arteko elkarreraginaren ondorioz, diagnostikoak Euskadiko jasangarritasunerako bederlatzi erronka<sup>6</sup> identifikatu zituen. Horiek kontrastatu egin ziren herritarrekin hainbat partaidetza prozesutan<sup>7</sup>. Azterketa horren ondorioz, etaparen amaieran, **2020an Euskadi jasangarria izateko zortzi gako** hauek identifikatu ziren:

1. *Baliabide natural eskasak eta agortzeak daudenak*
2. *Energia mendetasuna eta klima aldaketa*
3. *Lehiaren globalizazioa*
4. *Aldaketa demografiko sakonak*
5. *Belaunaldi aldaketa desorekatua*
6. *Aldatzen ari den balio sistema baten hauskortasuna*
7. *Mugikortasun eta garraio jasangaitzak*
8. *Nazioarteko garapen desberdina*

Adostutako gako horietan oinarrituta, 2011ko otsailaren amaieratik EcoEuskadi 2020 Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia sortuz joan gara. Azken fase honetan, partaidetza prozesuak eta batzordeen lanak *paraleloan* egin dira. Horrela, estrategia egiteko prozesua etengabe elikatu dute. Kolektibo edo pertsona bakoitzak Euskadik jasangarriagoa izateko nolakoa behar duen esan du. Gainera, hori lortzeko jarduera ildoak zehaztu eta proposamen zehatzak egin dituzte. Horrela, behetik gorako (bottom-up) eskema egin dugu, ahalik eta eragile gehienek parte har dezaten, adostasunik handiena lor dezagun eta euskal gizartearen iritziak jasota gera daitezten.

Prozesua Eusko Jaurlaritzako sailletako teknikariek egindako ekarpenekin aberastu da. Horretarako, sail arteko foroetan, ideiak eta jarduera-ildoak proposatzeko saioak egin dituzte, ikuspegi hauek konbinatzeko:

- ✓ Ekonomia eta Ingurumen Jasangarritasuna (Ekonomia, Industria, Ingurumena, Nekazaritza, Energia, Garraioa, Hezkuntza).
- ✓ Gizarte Jasangarritasuna (Osasuna, Enplegua, Gizarte Zerbitzuak, Ekonomia).
- ✓ Gobernantza (Lehendakaritza, Ekonomia, Ekonomia, Administrazio Publikoa).

2011ko maiatzean garatutako aurrez aurreko partaidetza prozesuaren bidez aztertu ondoren<sup>8</sup>, dokumentu honetan garatuko dugun Estrategiaren edukia eratzen joan gara.

Prozesu osoan egindako lana nabarmendu behar da: batetik, **Lehendakariaren Gai Sozioekonomikoetarako Aholku Batzordeak** egindakoa, EcoEuskadi 2020 estrategia etengabe aztertu duen organo moduan; eta

<sup>6</sup> Honako hauek dira identifikatutako erronkak: 1. Ekoizpen eredua, enplegua eta lehiakortasuna. Euskadi ekonomia globalean; 2. Ekoizpena eta kontsumo jasangarria. Lehengaiak. Hondakinak eta birziklapena; 3. Klima aldaketa eta energia eredua; 4. Lurraldearen antolamendua eta erabilera. 6. Ongizate estatua; 7. Kohesioa eta gizarte solidaritatea; 8. Kultura eta gizarte. 9. Gobernantza.

<sup>7</sup> Eragile sozioekonomikoei zuzendutako partaidetza prozesua. Lehen saioko ondorio teknikoak (2011ko urtarrilaren 25a eta 26a). <http://www.ecoeuskadi2020.net/eu//index.php> webgunean ikus daiteke.

<sup>8</sup> Eragile sozioekonomikoei zuzendutako partaidetza prozesua. Bigarren saioaren ondorio teknikoak (2011ko maiatzak 9, 10 eta 11). <http://www.ecoeuskadi2020.net/eu//index.php> webgunean ikus daiteke.

## Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia 2020

bestetik, **Innobasque** Berrikuntzaren Euskal Agentziak egindakoa, partaidetza prozesuaren hedapena koordinatu duen eragile moduan aritu dena.

Azkenik, aipatu beharra dago **Euskal Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak** Garapen Jasangarriko Estrategiari buruzko txostena egin duela 2011ko ekainaren 8an, eta hori izapidetzea egokia dela adierazi duela. Kontseilu horretako Garapen Ekonomikoko Batzordeak, EcoEuskadi 2020ren inguruko lanak egin dituenak, zenbait ohar sartu ditu txostenean; horietako gehienak estrategian jaso dira.

### Partaidetza prozesu zabal eta bizia

Partaidetza prozesuak garrantzi handia izan du Estrategia egiteko garatutako operazio multzoaren barruan, eta hura osatzeko elementu baldintzatzailea izan da. Eusko Jaurlaritzak gogoetarako eta lankidetzarako partaidetza guneak sortu ditu (*elkarrekin sortze aktiboa*). Helburua askotariko iritzi eta jarrerak biltzea izan da, gazteen, enpresen, gizartearen, erakundeen eta, oro har, herritarren ikuspegitik.

Partaidetza bizia eta handia izan da; hortaz, argi geratu da 2020ko Euskadirako Garapen Jasangarriko Estrategia bat egitearen beharrari eta premiari buruzko adostasuna dagoela, eta epe luzeko ikuspegia izan behar duela, gaur egungo sistemaren jasangarritasun ezari aurre egiteko.

Partaidetza prozesua zifra hauetan laburbil daiteke:

- 50 partaidetza gune fisiko eta birtual.
- 78 aurrez aurreko bilera edo tailer.
- 388 erakunde.
- 2.502 bertaratu eta 2.368 protagonista; horietatik 1.616 gazte.
- 832 erabiltzaile sareko espazio irekietan eta sare sozialetan.
- EcoEuskadi 2020ri eskainitako 9.350 partaidetza lanordu baino gehiago.

Horretarako, bi bide bereiziri jarraitu diegu:

- Aurrez aurreko *ohiko* bidea.
- Bide birtuala, gizarte sareetan oinarritutakoa.

Landutako informazio guztia erabilgarri jarri dugu <http://www.ecoeuskadi2020.net/eu//index.php> webgunearen bidez, eta hori komunikazio eta partaidetza prozesuaren etengabeko erreferentzia izan da.

Erakundeen ikuspegia ondokoek eman dute: prozesua osatzen duten batzordeek, udalek (Udalsarea 21 Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarearen bidez), Eusko Jaurlaritzako sailen eta sail arteko saioek, euskal unibertsitateek eta Q Epeak (Erakunde Publikoen Elkargune Aurreratua).

Eragile sozioekonomikoen ekarpena, berriz, ondokoek: besteak beste, Izaitek (Iraunkortasunerako Euskal Enpresen Elkarte), Bai+5-ek (Eusko Ikaskuntzaren iraunkortasunari buruzko gogoeta foroa), Garapenek (Euskal Garapen Agentzien Elkarte) eta teknologia-zentroek.

Etorkizuneko proiektu bat egiterakoan, gazteak oso kontuan hartu behar dira, eta bereziki, hezkuntza zentroetan. Deustuko Unibertsitatean, Mondragon Unibertsitatean, Euskal Herriko Unibertsitatean, Lanbide Heziketako zentroetan eta Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko hiru lurraldeetako ikastetxeetan lansaioak egin dira, baita hainbat gazte elkarterekin ere.

Azkenik, herritarrek beren ekarpenak egin dituzte webgunearen eta sare sozial nagusien (Facebook, Twitter, Tuenti, Open Ideiak, eta abar) bidez; hori dena Lehendakariari atxikitako Gobernu Irekirako eta Interneteko Komunikaziorako Zuzendaritzaren laguntza eta koordinazioarekin. Herritarrek parte hartzeko



bide horiz gain, Tokiko Agenda 21en foroak egin dira hainbat udalerrri eta eskualdetan, eta hainbat GKE ere lanean aritu dira.

Elementu bereizgarri moduan, herritarrek parte hartzeko bide osagarri eta berritzailea ireki dugu, Euskadiko jasangarritasunari buruzko diskurtso soziala jasotzeko eta, horrela, kontzeptu horretara herritarren ikuspegitik hurbiltzeko. Horretarako, **metodologia kualitatiboa (etorkizuneko tailerrak)** garatu dugu, gizartearen diskurtsoaren sakontasuna eta garapena ezagutzeko, ezaugarri desberdinetako pertsonekin talde dinamikak eginez, hiru parametroren arabera (lurralde historikoa, adina eta landa/hiri ingurunea). Emaitez egiaztatu dute herritarrek garapen jasangarriaren inguruan duten kontzeptua positiboa dela, baina oraindik *urrun* dagoela edo *arrotza* dela, etorkizunarekiko erantzukizunarekin lotua, eta funtsean, ingurumenarekin eta eredu energetikoarekin. Hala ere, garapen jasangarriaren eta kohesio ekonomiko eta sozialeko alderdien arteko lotura falta argia nabarmendu da.

Prozesu honen bidez, **bizi-kalitatearekin eta jasangarritasunarekin** lotuta dagoen azterketa **kuantitatibo** aitzindaria egin dugu<sup>9</sup>. Emaiza nagusien arabera, euskal herritarrek bizi-kalitatearen kontzeptura lotuta dauden ekonomia, gizarte eta ingurumen alderdiei buruz egindako haztapena oso orekatuta da. Merkatu globalizatu batean egonda, enplegua eta euskal enpresen lehiakortasuna etorkizuneko alderdi nagusitzat jotzen dituzte, eta horrez gain, Euskadiko lehen sektorea bultzatzeko eta hari laguntzeko sentikortasun berezia antzematen da. Biztanleen zahartzeak eta jaiotza-tasa baxuak eragin ertaina dute garrantziaren araberako eskalan. Belaunaldi arteko eta nazioarteko erantzukizuna da nabarmendu den beste alderdietako bat. Gehienok badakigu gaur egungo baliabideen kontsumoak etorkizuneko belaunaldien ongizatea arriskuan jartzen duela, eta herrialde behartsuenei lagundu behar zaiela.


Estrategia egiterakoan ekarpenak bistaratzeko elementu gisa izan duen garrantzia dela eta, EcoEuskadi 2020ren osagarri izango den beste dokumentu batean, partaidetza prozesua deskribatu, eta lortutako datuak emango dira.

---

<sup>9</sup> Eusko Jaurlaritzaren Soziologia Azterketetarako Kabineteak 1.200 pertsonari egindako inkesta, Euskadiko jasangarritasunaren gaur egungo eta etorkizuneko gakoari buruzko galdeketa bidez. 2011ko maiatza. Ikus 4. eranskina.

Estrategiaren eskema

### 2. irudia. EcoEuskadi 2020 Garapen Jasangarriko Estrategiaren eskema



EcoEuskadi 2020 Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia, funtsean, irudiko triangeluan ikusten den eskemari jarraituz egituratu da.

- **Egitekoa.** Estrategiaren izateko arrazoia jasotzen du. Euskadik jomugatzat duen herrialde proiektua islatzen du.
- **Ikuspegia,** nahitako bide edo asmo moduan. 2020. urtean geure buruak nola ikusi nahi ditugun eta besteek gu nola ikustea nahi dugun adierazten du.
- **Printzipio nagusiak.** Politikak eta erakundeen lidergoa bideratu behar dituzten oinarriko printzipioak.
- **Helburu estrategikoak.** Derivados directamente de la visión, reflejan las metas parciales que deben desarrollarse para avanzar en dicha visión.
- **Jarduera ildoak.** Adierazitako helburu estrategikoetarantz aurrera egiteko proposatzen diren jarduera nagusiak.
- **Zeharkako ikuspegiak.** Lehentasunezko jarduera esparruak dira, jasangarritasunaren hiru dimentsioetan aldi berean eragina dutenak, Administrazioaren koordinazio bertikal eta horizontala behar dutenak eta helburu estrategikoak lortzeko oztopo bihur daitezkeenak.

Oso garrantzitsuak diren hiru kapitulurekin osatzen da estrategia. Hauexek dira:

- **Aginte koadroa**, hiru adierazle dituen (erreferentziazkoak, politiken jarraipena eta strategiaren kudeaketako aurrerapausoak). Jasangarritasunaren bilakaeraren irakurketa zuzena egiteko aukera ematen du eta Estrategiaren eraginkortasuna ebaluatzeko abiapuntua da.
- **Kudeaketa eredua**, EcoEuskadi 2020 ekimena aldizka jarraitzeko, ebaluatzeko eta berrikusteko prozedura ezartzen duena.
- **Sektorekako politiketan jasangarritasun irizpideak txertatzeko ildoak**, euskal administrazioaren politiketan jasangarritasun printzipioak jasotzeko erabili beharreko irizpideak jasotzen dituztenak.

Azkenik, strategiak **lau eranskin** ditu, eta hauxe da haien edukia:

1. Gobernuaren planak eta EcoEuskadi 2020 Garapen Jasangarriko Estrategiaren helburu estrategikoak lerrokatzea.
2. EcoEuskadi 2020ko helburuak eta foru aldundietako Garapen Jasangarriko planen helburuak bat etortzea
3. Partaidetza prozesuaren laburpena.
4. Herritarrak eta garapen jasangarria.

Aurretik aipatu dugun bezalaxe, partaidetza prozesuaren berezitasuna eta Estrategia egiteko izan duen garrantzia dokumentu osagarri baten sartuko dira, eta horrek Euskadiko Jasangarritasunerako Estrategia 2020 osatuko du.

Azkenik, beharrezkoa da xehetasun gida batean sektorekako politika eta estrategietan jasangarritasun irizpideak sartzeko irizpideak azaltzea.

## 2 EcoEuskadi 2020 Estrategia: Xedea

EcoEuskadi 2020 Estrategiaren **egitekoa** Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako administrazio publikoen sektorekako politiken integrazio plataforma izatea da, herritarren parte-hartze aktiboaz herrialde proiektu bat gauzatzeko. Proiektu horretarako zenbait helburu, arau eta printzipio erabakiko dira, herrialdearen jasangarritasun ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa bermatzeko. Bestalde, erreferentziazko mugarriak ezarriko dira, egindako aurrerapenak aldizka ebaluatzeko.

Horrek honako hau dakar:

- Gobernuaren sektorekako politika guztietarako integrazio plataforma izatea:  
*EcoEuskadi 2020k, printzipioz, ez du ekintza berririk barne hartu nahi; Gobernuaren estrategiak integratzea eta koherentzia ematea baino ez du nahi.*
- Baita gainerako administrazio publikoena ere:  
*Halaber, foru aldundiena eta udalena, beraz, helburuak lortzeko, ezinbestekoa da haiek ere parte hartzea, eskumenak administrazioaren mailen artean banatzen direlako.*
- Herrialde proiektua:  
*Herrialde osoaren ikuspegiak eta lehentasunek nagusi izan behar dute, eta administrazio publikoak beste kontratu bat egin behar du gizartearekin. Horrela, beste gobernantza modu bat finkatu behar da, pertsonen eta erakundeen atxikimendua lortzeko.*
- Ekonomia, gizarte eta ingurumen jasangarritasuna bermatuko duten helburuak, ildoak eta printzipioak hitzartuz:  
*Estrategiak ekintza planik barne hartzen ez badu ere, sektorekako planetan sartu eta garatu behar diren helburuak eta printzipio nagusiak izango ditu. Beraz, helburuek etorkizuneko plan eta estrategiak baldintzatu ahal izango dituzte.*
- Herritarren parte-hartze aktiboarekin:  
*Herritar aktiboek arauak, planak eta estrategiak egiteko prozesuetan parte hartzea eskatzen dute. Horrez gain, jasangarritasunerantz aurre egiteak herritarren jarraibideak eta jarrerak aldatzea ere eskatzen du. Beraz, ezinbestekoa da herritarrek parte hartzea, jarduerak eraginkorrak izan daitezen.*
- Egindako aurrerapenak aldizka ebaluatzeko aukera ematen duten erreferentziazko mugarriak ezarriz:  
*Helburu eta printzipio gidariez gain, Garapen Jasangarriko Estrategiak aginte koadroa eta zenbait jarraipen adierazle izango ditu. Horiek, erreferentzia moduan erabiliko dira, ezarritako helburuak lortzen egindako aurrerapena aldizka ebaluatzeko.*

### 3 EcoEuskadi 2020 ikuspegia

Estrategia egin aurretik euskal ekoizpen, gizarte eta ekologia sistemari buruzko lehen diagnostiko bat<sup>10</sup> egin da. Diagnostiko horrek argi utzi du etorkizunean jasangarria ez izateko arriskua dagoela. Diagnostiko hori partaidetza prozesu irekian parte hartu duten herritarrekin aztertu da, eta horren ondorioz, euskal sistema etorkizunean jasangarria izateko zortzi erreferentzia gako edo elementu aurkitu dituzte<sup>11</sup>.

Gako horietan oinarrituz, Garapen Jasangarriko Estrategiarako helburu bat finkatu genuen. Helburu horrek 2020. urtean geure buruak nola ikusi nahi ditugun eta besteek gu nola ikustea nahi dugun laburtzen du. Badakigu helburu hori lortzeko, nondik abiatzen garen kontuan hartuz, zenbait ekintza egin behar ditugula, eta ekintza horiek, euskal administrazio publikoaren, herritarren eta beste eragile batzuen konpromisoa eskatzen dutela. Ezer ez da berez etorriko.

Bestalde, badakigu ikuspegia, egiazki, ez dela helburu bat, norabide bat baizik: Ez dago garapen jasangarriko *egoerarik*, modu jasangarrian aurrera egiteko *moduak* baizik.

Horregatik finkatu genuen helburu hori, hau lortzeko:

**«Garapen jasangarriaren abangoardian kokatuko den herrialde proiektu baten sorreran aurrera egitea».**

Alegia:

***Euskal Metropol*** moduan egituratutako herrialdea, kohesionatua, bakean bizi diren herritar aske eta osasuntsuek eginga, gaur egungo ekoizpen sistema ekonomia berri, ekoeraginkor eta karbono gutxiko, lehiakor eta ireki, hezkuntzan, ikerketan, ezagutzan, berrikuntzan eta ekintzailtzan oinarritutakoa bihurtzeko konpromiso aktiboa hartzen duten herritarrek, biztanleen ongizate eta bizi-kalitateari eusteko asmoz, mundura irekitako herrialdea, baina kultur nortasunarekin, natur baliabideekin eta biodibertsitatearekin arduratsua, pertsonen talentua garatu eta leialtzeko aukera emango duen etorkizun erakargarria eraikitzeko, eta planetaren eta bertako herritarren garapenarekin konprometitua.

Horrek honako hau dakar:

- **baterantz zuzentzeko:**  
*Herrialde integratu gisa pentsatu, diseinatu eta eraikiko da, hau da, osotasun ikuspegiarekin. Horren arabera, lurralde, eskualde eta udalerrri bakoitza, bere nortasunarekin eta berezko bokazioarekin, osotasunaren arabera berrinterpretatuko da.*
- **Garapen jasangarriaren abangoardian kokatuko dena**  
*Euskadi herrialde aurreratuenen artean kokatu da ekonomia eta gizarte garapenari dagokionez, eta aurrera jarraitu behar du ezagutzaren garapenean eta ekonomia jasangarri berriaren lorpenetan.*
- **Euskal Metropol gisa egituratutako herrialdea:**  
*Tokien arteko denbora eta distantzia oso txikiak direnez, ekipamenduak hiri handi batenak izango balira bezala sortu eta diseinatzen dituen herrialde bat, herritar guztientzat eskuragarria dena, natura-ingurunean txertatua, irekia eta bere ingurunean integratua.*
- **Kohesionatua:**

<sup>10</sup> 2020. urtean Euskadi jasangarria izateko diagnostikoa. <http://www.ecoeuskadi2020.net/eu> webgunean eskuragarri dago.

<sup>11</sup> Jasangarritasun giltzarriak Euskadin. <http://www.ecoeuskadi2020.net/eu/index.php> webgunean ikus daiteke.

*Solidarioa eta berdintasunezkoa, desberdintasun faktoreak zuzentzen saiatuko dena, eta hala, berdintasunezko aukera maila onargarria berrmatuko duena bertakoen bizi proiektu osasungarria garatzeko. Enplegua, trebatzeko hezkuntza, gizarte eta osasun zerbitzuen hornidura unibertsala eta elkartasuna dira giltzak.*

- **Bakean bizi diren herritar aske eta osasuntsuek egina, zeintzuek ondoko alderdiekin konpromiso aktiboa izango duten:**  
*Aspaldiko partez lehen aldiz aske, bakean eta indarkeriarik gabe bizi diren, eta bai beraien eguneroko gizarte bizitzan, bai lan munduan, bizi ohitura eta baldintza osasungarriekin modu aktiboan inplikatzeko diren gizon-emakume guztiek aktiboki hartutako konpromisoa beharrezkoa da. Osasuntsu egotea ez da gaixotasunik ez izatea bakarrik; aitzitik, osasuna baldintzatzen duten faktoreak ere kontuan hartu behar dira, pertsonen garapen orekatua izatea ahalbidetzen duten gizarte, ingurumen eta lan baldintzei eusten zaien ere barne hartuta.*
- **Gaur egungo ekoizpen sistema ekonomia berri, ekoeraginkor eta karbono urrikoa bihurtzea:**  
*Garapen jasangarriak gure ekoizpen sistema aldatzea dakar –garapen jasangarriaren eredu berria ezartzen du, hiru dimentsioduna eta berrikuntzari gero eta rol garrantzitsuagoa ematen diona–, gaur egungo erronkei erantzuteko, eta bereziki, natur baliabideen agortzeari, baita energia eredu sistema libre eta energia fosiletatik oso mendekoa ez den batera aldatzeko beharri erantzuteko ere.*
- **Lehiakorra eta irekia:**  
*Bere nortasuna eta egiten duena bikainak izateak nazioartean arrakastaz lehiatzeko aukera ematen diote. Globalizazio ekonomikoak ezinbesteko egiten du ekonomia lehiakor eta ireki baterantz aurrera egitea, balio erantsi gero eta handiagoarekin ekoiztutako ondasun eta zerbitzuak trukatzeko.*
- **Hezkuntzan, ikerketan, ezagutzan, ekintzailtzan eta berrikuntzan oinarritutakoa:**  
*Aurrera egiteko –eta are gehiago abangoardian kokatzeko–, ikertu, jakin, ezagutu eta aplikatu egin behar da. Zientzia eta Teknologia sistema, beraz, ekonomia berriaren pieza garrantzitsua da. Hori garatzeko, ikertzeko bokazioa eta munduko lankidetzaren sare batean txertatutako bikaintasun zentroak behar dira. Eta ekintzaileak ere eskatzen ditu, enpresa ekimen berrien aldeko apustua egiteko. Halaber, abangoardiakoa izan nahi duen herrialde batek kalitatezko hezkuntza sistema behar du, eskola arrakasta lortuko duena eta hezkuntza eta trebakuntza edukiak lan merkatuak eskatutako gaitasunetara egokitzeko aukera emango duen modu malgu batean egituratuta egongo dena.*
- **Biztanleen ongizatea eta bizi-kalitatea babesteko:**  
*Lehiakorrak izaten jarraitzeko, ezinbestekoa da ekoizpen eredu aldatzea. Eta izan behar dugu, gure bizi-kalitateari eusteko eta gure gizarte eta osasun babeseko sistema finantzatzeko, baita eredu demografiko eta sozialen aldaketak eragiten dituen behar berriei aurre egiteko ere. Aldaketa horien artean, mendeko pertsona kopuruaren igoera, gaixotasun kronikoen prebalentzia eta kultura ereduak gero eta desberdinagoak izatea ditugu. Ez da baliabide kontua bakarrik; administrazio publikoa eraginkortasunez kudeatu beharra ere badago, administrazio bikoiztasunak saihesteko eta sistemaren ekitate ezak desagerrarazteko, zahartzen ari dela eta errealtate berrietara egokitu behar duela badakien herrialde baten ikuspegiarekin.*
- **Mundura irekia:**  
*Erronken dimentsioak eta mundu garatu osoak partekatzeak bideari bakarrik ekiteko tentazioa baztertzeko eskatzen dute. Sareko lankidetzaren filosofia ezinbestekoa da ezagutzak partekatze eta azkarrago aurrera egiteko.*

- **Baina kultur nortasunarekin arduratsua:**

*Euskadik kultur nortasun indartsua du eta hori, berez, gizarte kapitala da mundu globalizatuan. Ekonomiaren globalizazioak eta nazioartekotzeak ez dute kaltetu behar berez dituen ezaugarri idiosinkratikoak indartzea; izan ere, beste kultura batzuetako gero eta etorkin gehiago dituen gizarte honetan faktore integratzailea izan behar du.*

- **Natur baliabideak eta biodibertsitatea:**

*Euskadiko natura ingurunearen eta biodibertsitatearen kalitateak, bertakoa izatearen eta nortasun sentimenduei laguntzeaz gain, herritarren bizi-kalitatea aberasten duen kapital naturala dira, beraz, urbanizazioak, komunikazio bideek edo ekoizpen jarduerak haiek babestearekin eta garatzearekin bateragarriak izan behar dute.*

- **Pertsonen talentua garatzeko eta leialtzeko etorkizun erakargarria eraikitzeko:**

*Gizakiaren perspektibak iluntzen dituzten erronkak gainditzea esfortzu eta baliorik onenak xaxa ditzakeen, eta hala, pertsona guztien, eta bereziki gazteen, erronka profesionalei eta bizipenei erantzuteko aukera eman dezakeen ilusio iturria da.*

- **Planetaren garapenarekin eta planetako herritarrekin konprometituta:**

*Gure bizimodu tradizionalaren jasangarritasun eza dimentsio arazoa da eta planeta osorako inplikazioak ditu. Bestalde, zaila da barruan solidarioa izatea, herrialde behartsuenetako desberdintasunei eta gabeziei begiratzen ez badiegu. Herrialde garatuek, eta haien artean Euskadi dago, beraiek ere nazioarteko garapenaren arduradunak direla onartu dute.*

Europar Batasunak beste izen batekin, Europa 2020 Estrategiaren bidez, egiten duen bezala, gurea asmoak hauxe defendatzen du: hazkunde zentzudun, jasangarri eta integratzailea:

- Hazkunde zentzuduna: ezagueran eta berrikuntzan oinarritutako ekonomia garatzea.
- Hazkunde jasangarria: baliabideak eraginkortasun handiagoaz erabiltzen dituen ekonomia bat sustatzea, berdea eta lehiakorragoa.
- Hazkunde integratzailea: enplegu maila handiko ekonomia sustatzea, ekonomia, gizarte eta lurralde kohesioa ekarriko duena.

Hiru lehentasun horiek elkar indartzen dute, eta Europako XXI. menderako merkatu-ekonomia sozialaren eredua eskaintzen dute.

### 4 Printzipio gidariak

Estrategiak antzemandako jasangarritasun ezaren arrazoi askoren gainean (esaterako, erregai fosiletan oinarritutako eredu energetikoa ordezkatzeko) zuzenean eragitea eskatzen duela alde batera utzita, garapen jasangarriak politikak diseinatzeko edo ekintzak ebaluatzeko *beste modu batekin* zerikusi handia du. Politikak diseinatzeko modu desberdin horrek inplikazioei buruzko azterketa zabalagoa eskatzen du, bai denborari, bai espazioari dagokienez:

- Denboran zehar dituen ondorioei begiratu behar zaie, etorkizuneko belaunaldietan ere eragina izan baitezakete.
- Zuzeneko eraginez haratago dituzten inplikazioak aztertu behar dira, beste arlo batzuk ere barne hartuz (ekonomikoak, baliabideak, gizarte taldeak), ez dagokion politikaren *berariazkoak* bakarrik.

Hortaz, azterketaren denbora luzetara zabaldu behar da, eta espazioa eta interes taldeak zeharka.

Ikuspegiaren zabaltze hori garapen jasangarriaren definizioan bertan agerian geratzen da. Definizio horrek Bruntland txostenean jaso zenetik baliozkoa izaten jarraitzen du<sup>12</sup>: garapena jasangarria da **gaur egungo beharrianak bermatzen baditu, etorkizuneko belaunaldiak beren beharriazkoak erantzuteko izango dituzten aukerak arriskuan jarri gabe**.

Zama etiko handiko kontzeptua dugu. Baina ebidentzia zientifiko bat ere nabarmentzen du: une jakin batean ekosistema globalak karga edo asimilazio gaitasunean muga bat duela.

*«Ustez aurrerapenera zuzenduta dauden gaur egungo ekintza asko eutsiezinak dira; jadanik eskasak diren natur baliabideen gainean zama astunegia jartzea dakarte. Gerta daiteke ekintza horiek etekinak islatzea gure belaunaldiko balantze orrietan, baina gure seme-alabek galerak heredatzea dakar».*

Ingurumenari eta Garapenari buruzko Nazioarteko Batzordea

Horren ondorioz, belaunaldi bakoitzak, baliabideak kudeatzen dituenean, etorkizunean ere pentsatu behar du, baliabideak belaunaldien eta munduko eskualdeen artean zuzen banatzeko: pertsona bakoitzak beharrezkoak diren baliabideak eskura izan behar ditu, gaur egungo belaunaldian eta etorkizunekoetan.

Praktikan, jasangarritasuna aztertzea ez da hain erraza, ez eta begi-bistakoa ere. Askotan, azterketaren ardatz batean irabaziak daude, baina beste batzuetan galerak. Konponbideak, *prozedura moduan*, eragin moten azterketa sakona egitea eskatzen du, eta horrez gain, gardentasuna behar da ebaluazio prozesuetan. Bestalde, interes-taldeek parte hartu behar dute, irtenbide *orekatuak* aurkitzeko.

Prozesu hori gidatzeko, argi ezarri behar dira administrazio publikoaren goi instantziek bultzatu behar dituzten politikak eta erakunde lidergoak zuzentzeko oinarritzko zenbait printzipio. Helburu horrekin aurkeztu dira dagoeneko, abiapuntu modura, oinarritzko lau printzipio hauek:

A) **Belaunaldi arteko erantzukizuna** (*etorkizuneko belaunaldien aurrean erantzukizunak hartzea*).

Printzipio honen ondorio zuzena da gaur egungo beharrik ez direla baliabide ez-berriztagarriak agortuz estali behar. Bestalde, etorkizunarekiko erantzukizunak **arreta printzipioa** errespetatzea ere ekartzen du (osasunaren eta ingurumenaren gaineko kalteak saihestea, baita horren inguruko behin betiko ebidentzia zientifikorik ez badago ere). Halaber, **kutsatzen duenak ordaintzen du** printzipioa aplikatzea, zamak gaur egungo edo etorkizuneko belaunaldiko beste talde batzuetara ez hedatzeko.

<sup>12</sup> *Gure etorkizun komuna*, Bruntland Batzordearen txostena, Nazio Batuen Erakundea, 1987.



**B) Garapen jasangarriaren ikuspegia politika guztien muinean sartzea, sailen eta politika sektorialen esparruen arteko koherentzia eta koordinazioa hobetzeko.**

Printzipio horrek esan nahi du garapen jasangarria ez dela politika sektorial soil bat gehiago. Gakoa da zerikusia duten sail eta erakunde guztiek jasangarritasunaren ikuspegia hasieratik txertatzea politikak diseinatzeke eta gauzatzeko moduan.

Ikuspegi hori, logikoa denez, hartutako nazioarteko konpromisoekiko koherentzia printzipio bati jarraituta txertatu behar da, Garapen Jasangarriko Estrategian nahiz Euskadin eragina duten goragoko lurralde esparruko beste akordio eta estrategia batzuetan ezarritako ildoak, erritmoak eta helburuak egokituta.

Horretarako, politiken edo ekintza planen prestaketan, hasierako faseetatik, zerikusia duten erakundeen arteko irtenbideen azterketa gurutzatua ezarri behar da. Erabaki politiko garrantzitsuak hartzeko, eragin ekonomiko, sozial eta ingurumenekoa modu garden, partaidetzazko eta erlazionatuan ebaluatu diren proposamenetan oinarritzea ziurtatu behar da. Programen *ex post* ebaluazioa ere oso garrantzitsua da eraginkorrak diren eta xede taldeetan eragina duten jakiteko, baita zehar ondorioak dituzten jakiteko ere.

Erabaki prozesuen gardentasuna eta haien eraginpeko interes taldeen parte hartzea oso garrantzitsuak dira, sor daitezkeen interes gatazkak konpentsatzen direla bermatzeko. Horrela, erabakiek garapen jasangarriaren ikuspegiari dagokion garrantzia ematen lagunduko da. Lantze prozesuan antzematen diren gatazken berri eman behar da eta hartutako erabakiak behar bezala arrazoitu behar dira.

**C) Politika bakoitzak ekonomia, gizarte eta ingurumen dimentsioetan dituen ondorioak modu orekatuan hartzea, hiru ardatzetan aurrerapen orekatua bermatzeko.**

Politikak diseinatzekoan, helburuen dimentsio hirukoitza barne hartu eta ebaluatu behar da (ikuspegi integral edo holistikoa bermatzeko).

Ebaluaziorako metodologia eta prozedura zehatzak egitea alde batera utzita, hiru garapen ardatzen arteko orekari eustea eta trukeak egitea oso zaila da. **Gardentasun printzipio** zorrotz bat aplikatzeak bakarrik bermatzen du erabakiak eztabaida zintzo eta ireki baten ondoren hartzea, alternatibak zorrotz aztertuta, eta herritarrek, eragile nagusiek nahiz gizarte erakundeek erraz ulertu ahal izatea.

**D) Ardurakidetasuna.**

Garapen jasangarria ez dagokio autonomia erkidegoko administrazio orokorrari bakarrik. Beraz, funtsezkoa da administrazio publikoaren mailetan garapen jasangarriaren aldeko elkarteak eta partzuergoak bultzatzea, gizarte eragileekin eta, oro har, herritarrekin.

Enpresek eta korporazio pribatuek, **erantzukizun sozial korporatiboaren** printzipioetan oinarrituz, jasangarritasunari arreta jarri behar diote estrategia eta operazio arruntetan, ekoizpen prozesuak optimizatuta, ingurunean ahalik eta eraginik txikiena izateko eta gizartearentzat sortutako balioa ahalik eta handiena izateko.

Politiken jasangarritasunak, beraz, batetik, (i) administrazioaren mailen arteko lankidetzak eskatzen du, eta, bestetik, (ii) interes taldeek eta herritarrek, oro har, laguntzea. Herritarrek jasangarritasun arazoak alderdiak ulertzea ezinbesteko baldintza da irtenbideetan aurrera egiteko. Beren planteamenduetan gizarte zibila barne hartzen ez duten estrategiak ezinbestean mugatuak eta ziur asko alferrikakoak izango dira.

## 5 Helburu estrategikoak

Ikuspegiaren formulaziotik **asmo estrategiko** argia ondorioztatzen da:

### Garapen jasangarriaren abangoardian jartzea Euskadi

Hau da, helburua ez da garapen jasangarri *soila* lortzea, gure bizi, ekonomia, gizarte eta ingurumen baldintzen garapen orekatuan **bikaintasuna aintzatestea** baizik.

Aintzatespen hori lortzeko, ikuspegiari jasota dauden zenbait helburu partzialetan nabarmen egin behar da aurrera. Landu beharreko helburuen arabera, **bederatzi helburu estrategiko** hauek bereiz daitezke:

#### 1. ***Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea.***

Euskal ekonomia ekonomia irekia eta lehiakorra da egun, eta industria ekoizpenean oinarritzen da. Horri esker, egungo belaunaldiak bizi duen bizi kalitatearen maila lortu du, eta inguruko beste ekonomien gainetik dauden sendotasuna eta berreskuratzeko gaitasuna erakutsi ditu. Etorkizun hurbilean, nazioarteko lehia handitzearen, zeharkako jarduera askori eragiten dien globalizazioaren, eta energien zein lehengaien agortzearen eraginez, nazioartean lehiakorrak izaten jarraitzeko, teknologia eta prozesu eraginkorrak garatu beharko ditugu; produktuen ziklo integralaren ikuspuntutik energia baliabideak eta lehengaien erabilera optimizatzen dituzten teknologia eta prozesuak garatu ere. Horretarako, ezagutza aurreratu berria garatu behar dugu, zientzian eta horren aplikazio teknologikoetan oinarritutakoa, eta demografikoki geldituta dagoen edo atzeraka egiten ari den gizarte bateko lanpostuen balio erantsia handituko duena. Herralde txikia garela onartuta, mundu mailako sareetako beste eragile batzuekin lankidetzan arituz errazago lortuko dugu, kosta ahala kosta autonomoki garatuta baino.

#### 2. ***Euskadi erabat integratzailea den eta enplegu, hezkuntza, prebentzio zein elkartasun arloetan kohesionatuta dagoen herralde gisa sendotzea.***

Euskal gizartearen bereizgarriak gizarte elkartasunaren maila altua eta berdinaletasun handia izan dira, eta gizarte-egoera txarrean dauden gutxiengoei arreta berezia eman zaie. Gizarteratzearen faktore nagusia pertsonen gaitasunaren araberrako kalitate oneko lanpostuak lortzea da, zalantzarik gabe. Hori lortzeko, hezkuntza sistema pertsonen potentziala garatzera bideratuta egotea funtsezkoa da, gero eta interaktiboagoa, anitzagoa eta irekiagoa den gizartearen. Enplegu egokiak eta hezkuntza motibagarriak bizi ohitura osasungarriak eta integratzaileak izaten lagundu behar dute. Bestetik, osasun eta gizarte zerbitzuek gure ongizate sistema osatzen dute; horrela, gure gizarteak pertsonen berdintasunezko integrazioa bermatzeko garatu duen esparrua osatzen da. Balio aldaketek, bizimoduaren eta kultur ereduaren aniztasunak eta lan merkatuaren gero eta lehiakortasun handiagoak gizarte bazterketa arrisku egoerak areagotzea ekar dezakete eta gure sistemak horri erantzun behar dio, egokituta eta eraginkortasuna hobetuta.

#### 3. ***Gizarte babeseko sistemak indartzea, garapen harmonikoa, osasungarria eta bidezkoa bermatzen jarrai dezaten.***

Gizarte babeseko sistemak pertsonen bizi baldintza duinak bermatzeko sortzen dira, beren bizi proiektua modu osasungarrian gauzatu ahal izan dezaten. Aldaketa demografikoek –jaiotza-tasa jaistea eta bizitza luzatzea– eskari berriak sortzen dituzte (mendekotasunak gora egitea, kronikotasunaren prebalentzia). Horri erantzuteko, gizarteak zerbitzuak modu eraginkorragoan antolatzeari eta finantzaketa mekanismoak sortzeari garrantzia emango dioten formulak sortu behar ditu. Bestalde, populazio aktiboa (lan egiten dutenak edo langabezian daudenak) txikitzen eta populazio ez-aktiboa (adingabeak, ikasleak, lanik egin nahi ez duten herritarrak, pentsiodunak eta abar) handitzen ari direnez, zailagoa da sistemari ekonomikoki eustea. Beraz, multzo osoaren

bideragarritasuna bermatzeko, diru-sarreraren eta gastuen ikuspuntuak kontuan hartu eta sistema egokitu beharko da.

4. ***Gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatuta.***

Hiri jarduerak (etxegintza, produktiboak eta zerbitzuetakoak) hedatu dira, garraio azpiegiturak ugaritu dira eta gero eta nekazaritza jarduera gutxiago egiten dira. Hori dela eta, lurzoru gehiago kontsumitzen da eta habitat naturalak zatikatzen ari dira. Ondorioz, biodibertsitatearen biziraupena arriskuan dago eta paisaia naturala erabat aldatu da. Egia da giza jarduerak egiteko lurzoru behar dela, baina optimizatu beharreko kapital baliotsu eta urri gisa kudeatu behar da, bere funtzio naturalak garatzea ahalbidetzeko eta berau erabiltzeak ekosistemetan zein baliabide naturaletan duen eragina minimizatzeko.

5. ***Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzea, berotegi efektuko gas isuriak murriztea eta klima aldaketaren eraginak minimizatzea.***

Erregai fosiletan oinarritzen den egungo energia sistema agortuko den aurreikuspenak hornitzeko iturri gutxi duten ekoizpen eta kontsumo sistemen kalteberatasuna handitzen du, esate baterako, Euskadikoena. Merkatuko prezioen aldakortasuna handitu egin da, garapen bidean dauden ekonomia handien eskariak eta petrolioa ekoizten duten herrialde askoren ezegonkortasun politikoak gora egin dutelako. Hori dela eta, energia berriztagarrietan oinarritutako sistemarentz ahalik eta azkarren eboluzionatu behar dugu eta epe luzean (2050) ia guztia ordezkatzeko aurreikuspena izan behar dugu. Hala, gainera, klima aldaketa bizkortzen duten oinarritzko zergatiak landuko ditugu aldi berean.

6. ***Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratuko eredu jasangarriago bat garatzea.***

Euskadiko garraio sistema ibilgailu pribatuetan eta errepide bidezko zirkulazioan oinarritzen da batik bat. Trena bidaiarien garraio bide gisa indarra berreskuratzen ari da, baina eremu jakin batzuetara mugatuta. Abiadura handiko trenbide sare berria eraikitzearekin batera, tren sistema integrala (Euskadiko mugikortasun eskari nagusiei zerbitzua emango diena) eta integratzailea (beste garraio azpiegitura batzuen osagarri izango dena, tartean, aireportu, portu eta autobus terminalena) eskaintzeko pausoak eman behar ditugu. Horrela, garraio intermodala eta motorrik gabekoa sustatu nahi dira, eta *Euskal Metropolia* eraikitzen lagundu. Bestalde, errepide bidezko garraioa da energia fosil gehien kontsumitzen duenetako bat; hortaz, ibilgailuen garapena alde batera utzita (isuri gehieneko muga murriztea, bioerregaiak erabiltzea, ibilgailu elektrikoak kaleratzea, eta abar), trenbide sistema garatzeak petroliotik eratorritakoen kontsumoa murriztuko du eta 5. helburua betetzen nabarmen lagunduko du.

7. ***Kalitatezko hezkuntza eta balio sistema sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta, hezkuntza zein trebakuntza edukien aldetik, lan merkatuak eta gizarateak bizitza osoan zehar eskatzen dituzten gaitasunetara egokitua, jasangarritasuna arlo guztietan barne hartuta.***

Hezkuntza sistema, eta bereziki, unibertsitatea, funtsezkoak dira erronka berriei aurre egiteko behar den ezagutza eskuratzeko; gainera, aldaketak gero eta azkarrago gertatzen direnez, bizi osoko prestakuntzaren kontzeptua onartu behar dugu. Eta, ezagutzaren mugan gaudenez, ekoizpen jasangarriko sistema berriek ikerketaren eta zientziaren munduan murgiltzea eskatzen dute. Hezkuntza sistemak transmititu behar dituen balio tradizionalak gordetzeaz gain, berritzeko, lankidetzan aritzeko eta mundura irekitzeko gogoia sustatuko duten beste berri batzuk garatu behar dira. Baina mundu globalean sartzeak ez gaitu gure erroak, gure historia eta gure izateko modua galtzera eraman behar. Aitzitik, gure kulturari ere dimentsio globala emateko balio behar digu.

8. ***Berritzailea, eraginkorra, abegitsua eta herritarrentzat gardena den administrazio publiko bat ezartzea.***

Administrazio publikoaren kultura berri baterantz aurrera egin behar dugu; alegia, gobernantza erabakiak hartzeko toki eta eragile gehiago barne hartzen dituen erabakiak hartzeko modu ezberdin

## Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia 2020

bezala ulertu behar dugu. Izan ere, gure erronken neurriak konponbideak kudeatzeko beste modu bat eskatzen du; hau da, administrazioko mailetan ahalik eta parte hartze eta lankidetzaren handiena behar dira eta herritarrek eta intereseko taldeek parte hartze aktiboa izan behar dute. Eraginkorragoa eta arinagoa egitea ere eskatzen du. Horretarako, bikoiztasunak eta eskumenak gainjartzea saihestu behar dira, eta gizartearekin batera lan egiteko bestelako moduak bilatu, arazo berriei erantzun berriak emateko.

### 9. Euskadik Milurtekoko Helburuak betetzen, eta, oro har, herrialde txiroen garapen jasangarria lor dezaten laguntzea.

Izen ere, mundua ez da jasangarria izango, herri txiroenen garapenarekiko ditugun erantzukizunak gure gain hartzen ez baditugu. Euskadik Milurtekoko Adierazpena berretsi du eta nazioarteko kohesioa bultzatzeko erronkak bere gain hartu ditu.

Planteatutako helburu estrategikoen erlazio zuzena dute diagnostikoaren fasean identifikatutako jasangarritasun gakoekin, erantsitako erlazio koadro honetan ikusten den moduan:

9 HELBURU ESTRATEGIKO	8 JASANGARRITASUN GAKO
1. Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea	1. Baliabide natural eskasak eta agortzearen daudenak 3. Lehiaren globalizazioa
2. Euskadi erabat integratzailea den eta enplegu, hezkuntza, prebentzio zein elkartasun arloetan kohesionatuta dagoen herrialde gisa sendotzea	4. Aldaketa demografiko sakonak 5. Belaunaldi aldaketa desorekatua
3. Gizarte babesekeko sistemak indartzea, garapen harmonikoa, osasungarria eta bidezkoa bermatzen jarrai dezaten	4. Aldaketa demografiko sakonak 5. Belaunaldi aldaketa desorekatua
4. Gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea, eta horretarako, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatuz	1. Baliabide natural eskasak eta agortzearen daudenak
5. Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzea, berotegi efektuko gas isuriak murriztea eta klima aldaketaren eraginak minimizatzea	2. Energia mendetasuna eta klima aldaketa
6. Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratuko eredu jasangarriagoa garatzea.	7. Mugikortasun eta garraio jasangaitzak
7. Kalitatezko hezkuntza eta balio sistema sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta, hezkuntza zein trebakuntza edukien aldetik, lan merkatuak eta gizarteak bizitza osoan zehar eskatzen dituzten gaitasunetara egokitua, jasangarritasuna arlo guztietan barne hartuta	6. Aldatzen ari den balio sistema baten hauskortasuna <sup>13</sup>
8. Berritzailea, eraginkorra, abegitsua eta herritarrentzat gardena den administrazio publiko bat ezartzea.	1. Baliabide natural eskasak eta agortzearen daudenak <sup>13</sup> 3. Lehiaren globalizazioa 6. Aldatzen ari den balio sistema baten hauskortasuna
9. Euskadik Milurtekoko Helburuak betetzen, eta, oro har, herrialde txiroen garapen jasangarria lor dezaten laguntzea.	8. Nazioarteko garapen desberdina

Bestalde, garapen jasangarriaren hiru dimentsioei erreparatzen badiegu, helburu estrategikoen hiru estrategia taldetan bil ditzakegu:

✓ **Eredu ekonomiko/produktibo berri baterantz doazen estrategiak**, 1- Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea eta 5- Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzea, berotegi efektuko gas isuriak murriztea eta klima aldaketaren eraginak minimizatzea helburuak barne hartzen dituena.

✓ **Lurralde eta ingurumen bikaintasuna lortzeko estrategiak**. Honako hauek dira talde honetan sartzen diren helburuak: 4- Gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea, eta horretarako, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatuz eta 6- Lurralde barruan

<sup>13</sup> Helburua gakoarekin lotzen da, partaidetza prozesuko ekarpenen ondorioz.

egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratuko eredu jasangarriagoa garatzea.

✓ **Gizarte kohesio eta integratzaileko estrategiak.** Enplegua, hezkuntza, gizarte babes eta osasuna hartzen ditu barne, baita honako helburu hauek ere: 2- Euskadi erabat integratzailea den eta enplegu, hezkuntza, prebentzio zein elkartasun arloetan kohesionatuta dagoen herrialde gisa sendotzea, 3- Gizarte babeseko sistemak indartzea, garapen harmonikoa, osasungarria eta bidezkoa bermatzen jarrai dezaten eta 7- Kalitatezko hezkuntza eta balio sistema sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta, hezkuntza zein trebakuntza edukien aldetik, lan merkatuak eta gizarteak bizitza osoan zehar eskatzen dituzten gaitasunetara egokitua, jasangarritasuna arlo guztietan barne hartuta.

Alde batera geldituko lirateke 8- Berritzailea, eraginkorra, abegitsua eta herritarrentzat gardena den administrazio publiko bat ezartzea eta 9- Euskadik Milurtekoko Helburuak betetzen, eta, oro har, herrialde txiroenek garapen jasangarria lor dezaten laguntzea helburuak. Biak gobernantzarekin lotuta daude eta beste plano batean sar genitzake, garapen jasangarriaren hiru dimentsioengan duten eraginagatik.

Helburu estrategikoak **estrategiaren agente koadroaren** bidez neurtu eta jarraituko dira. Estrategia horrek ekonomia, gizarte eta ingurumen sistemaren jasangarritasun handiagoranzko aurrerapausoak islatzeko adierazle egoki multzo bat biltzen du, modu integratu eta koherentean.

## 6 Jarduera ildoak

Helburu estrategiko bakoitzean aurrera egiteko, Gobernuko sail guztien, beste erakunde batzuen eta, oro har, herritarren parte-hartzea eskatzen duten zenbait jarduera ildo garatzen dira. Jarduera ildo horiek ekintza multzo bat biltzen dute, kidetasun tematikoaren arabera, tresna ekonomiko, fiskalak eta normatiboak izan ezik. Horiek helburu osoari esleitzen zaizkio, beren eraginarengatik eta berezitasunarengatik.

Jarduera ildoen formulazioa eta edukia partaidetza prozesu irekian zehar egindako proposamenetan, eta estrategia egiteko sortutako batzordeek egindakoetan oinarrituta daude. Azken emaitza euskal gizarteko askotariko ikuspegi batura koherentea da.

### 1. helburu estrategikoa. Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea

#### 1.1. jarduera-ildoak. Berritzailea, ekintzailea eta teknologikoki aurreratua den eta ezagutzan, sormenean, lankidetzan eta eskumenetan oinarritzen den ekonomia bat bultzatzea.

Gaur egungo ekoizpen sistema aldatzeko, batetik, egungo prozesuak berritu eta gure enpresak lehiakorragoak bihurtu behar ditugu, eta bestetik, material eta baliabide eskas eta ez-berriztagarriekiko mendetasun txikiagoa duten sektore berriak garatzearen aldeko apustua egin behar da. Estrategikotzat jotako etorkizuneko sektoreak osasun zerbitzuak, IKTak, elektronika, gizarte zerbitzuak, energia eta biozientziak dira.

Baina materialik gabeko eta karbono urriko ekonomia bateranzko urratsak egiteko, ezagutzaren gaur egungo mugez haraindi joan behar da, ezagutza zientifikoari eta haren aplikazioei bultzada handia emanaz, esaterako: material berriei. Horrez guztiak sormen eta enpresa ekimen handia eskatzen du.

Hori lortzeko, ezagutza oinarritzko eta aplikatu bikaina sortu behar da, eta horretarako, ezinbestekoa da ezagutzaren euskal sarea finkatzen jarraitzea, unibertsitateak, enpresak, teknologia zentroak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea (ZTBES) osatzen duten I+G+b-ko bitartekariak gehiago hurbilduz.

Baina ez dira ezagutza teknologikoko maila handiagoak bakarrik lortu behar. Horrez gain, erakundeak *barrurantz* aldatu behar dira, enpresak eta erakundeak kudeatzeko eredu aurreratuagoak ezarri, berrikuntzaren alderdi guztietara irekiago egon daitezen.

Munduko herrialde garatu guztietan lantzen diren prozesuak dira. Gaur egun, inoiz baino gehiago, ezinbestekoa da ezagutzaren nazioarteko truke horietan parte hartzea. Gure profesionalak nazioartera hedatzeaz gain, komeni da herrialdeak aurreratu, berritzaile eta erakargarri itxura lortzea eta zabaltzea, izan ere, horrek, erreferentziazko ezagutza zentroak ezartzen lagunduko du, baita kanpoko talentua eta jarduerak erakartzen ere.

Garapen zientifikoa askotan teknologia garbiekin eta industria garapenik sofistikatuenekin lotzen badute ere, bilakaera demografikoarekin lotutako gizarte eskaera berrien ondorioz, adinekoak eta mendeko pertsonak artatzeko zerbitzu enpresak garatzeko aukera handiak daude, eta pertsonen autonomia funtzionala zein bizi-kalitatea errazten duten teknologia moldagarrien aukera zabala.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

1. Indartzen ari diren sektore jasangarriei, horien artean, energia berriztagarrien industriari babesa ematea
2. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen finkatzea
3. Ekoizpen egituraren lehiakortasuna hobetzea berrikuntzaren bitartez

## **1.2. jarduera ildo. Lanpostu berdeen sorrera bultzatzea, lehengaien edo gai naturalen kontsumoa eta horiekiko ekoizpen mendekotasuna murriztuz, eta hala, jasangarritasuna abantaila lehiakor bihurtzea**

Ezagutzaren mugak gainditu behar izan gabe, jasangarritasuna hobetzeko aukera handia dago, kontsumoa eta ekoizpen mendetasuna murriztuz, diseinu prozesuan ingurumen ikuspegia kontuan hartuz, produktuaren bizi-ziklo osoa kontuan hartuz (diseinatzen denetik desagertzen den arte), eta materialen eta energiaren kontsumoan ahalik eta eraginkortasunik handiena bilatuz. Hala, jasangarritasuna lehiarako abantaila bihurtzen da.

Halaber, produktuak berrerabiltzearen eta hondakinak balioztatzearen ondorioz, beste negozio aukera batzuk eta lanpostu berdeak sortzen dira. Horretarako, kanpoko kostuak eta epe luzerako kostuak barneratuko dituen esparru arautzaile baten babesa behar da; izan ere, askotan, merkatuak ez dira gai beren kabuz produkzio sektorerako seinale bihurtzeko.

Faktore ekonomikoak tokiko merkatuak sortzeko egokiak ere izan daitezke, bai kalitatezko nekazaritza produktuak lantzeari dagokionez, bai mikrosorkuntza energetikoari dagokionez. Horietan, oro har, *hurbiltasun ekonomiak* direla-eta, lehiakorra den bertako ekoizpen baten balioa handitzen da, eta kostu logistikoak zein garraioarenak murrizten dira. Horren guztiaren ondorioz, aberastasuna sortu eta bertako ekonomiak sustatzen dira, barruan enpresak sortzea bultzatuta, enpresa lankidetzaren eta eskualde mailan ingurune berritzaileak eratzearen bidez.

Prozesu horietan guztietan, eta eskaeraren aldetik, herritarren kontzientziak *merkatua* modu interaktiboan *sortzeko palanka efektua* du, erantzukizun sozial korporatiboko politikak eta ekoizpen sektorearen klausula sozialak aplikatuta. Horregatik, ekintzarako informazioa eta sentsibilizazioa elementu garrantzitsuak dira, ingurunea errespetatzen duten produktuen ekarpen handiagoa eta natur baliabideen eskasia baloratzen dituzten kontsumitzaile arduratsuak sortzeko.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

4. Produktuaren bizi-zikloaren ikuspegitik eraginkortasun materialarekin lotutako berrikuntza eta ekodiseinua bultzatzea
5. Hondakinak balioztatzea eta materialak berrerabiltzea
6. Hurbiltasun zirkuitu laburretan oinarritutako lehiakortasun abantaila etekina ateratzen dieten bertako ekonomiak bultzatzea

### 1.3. jarduera ildoak. Enpresak nazioartekotzen laguntzea

Bertako merkatuak sortzeko emandako laguntzak ez du baliogabetzen, hala ere, ekonomia jardueraren globalizatorako joera, merkatu bezeroetara hurbiltzetik haratago doana. Globalizazioak ekoizpen katearen jarduerak banatzea ekartzen du, baliabide naturalak nahiz giza baliabideak ahalik eta hobekien baliatzen. Ondorioz, ezagutzan, sormenean, lankidetzan eta gaitasunetan oinarritutako ekonomia berritzaile, ekintzaile eta teknologikoki aurreratua lortzeko (aurreko 1.1 ildoak), aldi berean, enpresen nahiz erakundeen, eta bereziki, ezagutza sistemaren beraren nazioartekotzean aurrera egin behar da.

Beraz, gure esportazioen helmuga geografiko eta sektoriala dibertsifikatzen laguntzeaz haratago, enpresen nazioartekotze prozesuetan ere laguntzea komeni da. Enpresa txiki eta ertainei arreta berezia jarri behar zaie, enpresa eragileek laguntza programetan sartzea eska baitezakete, eta batez ere, hainbat herrialdetan kokatutako enprekin azpiegiturak eta sareak partekatzea, ezartzen laguntzeko, herrialdeei eta hango merkatuei buruzko informazioa eta esperientziak partekatuz.

Argi dago enpresen globalizazioak kultur aniztasuna kudeatzeko eta ekonomia irekietan jarduteko egokiak diren gaitasunak eta jarrera profesional eta sozialak dituzten pertsonak izatea eskatzen duela.

Alderantziz, gaitasun profesional horrek, era berean, mundura irekita dagoen herrialde bat eraikitzen lagunduko du, eta horrela, talentua erakartzea, turismoa bultzatzea eta kanpoko jarduerak ezartzea – ezagutza sortzeko zentroak barne– errazten duen herrialde erakargarri baten irudi hori sustatuko da.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

7. Zientzia eta teknologia sistemaren nazioartekotzea bultzatzea
8. Hazkunde azkarra duten herrialdeetan, hala nola Brasilen, Indian edo Txinan, industria parkeak sortzea
9. Nazioartekotze prozesuetan prestatzeko beken programa

Ekoizpen sistema aldatzea prozesu neketsua da, eta finantza baliabide egokiak eduki behar izateaz gain, merkatuko *seinaleak* edo adierazleak indartu beharra ere badago. Horregatik, garrantzitsutzat jotzen da ondorengo bi **tresnen** eginkizuna nabarmentzea:

10. **Epe luzerako finantza baliabideak** eta arrisku kapitaleko bestelako iturriak nahiz epe luzerako kreditua erabiltzea, ekoizpena jasangarritasunerantz bideratzeko (teknologia garbiak, material berriak, beste sektore batzuk).
11. **Sistema fiskala berbideratzea**, *fiskaltza berdeko* irizpideak gero eta garrantzi eta toki handiagoa emanda barne hartuz.



## 2. helburu estrategikoa. Euskadi erabat integratzailea den eta enplegu, hezkuntza, prebentzio zein elkartasun arloetan kohesionatuta dagoen herrialde gisa sendotzea

### 2.1. jarduera ildo. Integrazioa eta gizarte kohesioa bermatzea

XXI. mendeko Europan, gizarte aurreratu eta moderno baten ezaugarriak hauek dira, besteak beste: desberdintasunak txertatzea bermatzen duen gizarte politiken sistema bat eratzea, eta horren helburu nagusia ahalik eta gizarterik kohesionatuena lortzea izatea.

Azken urteetako esfortzu handiari esker, Euskadiko gizarte kohesioa adierazleek EB-27ren aldean ratio positiboak izan dituzten arren, integrazioaren sustapenean eta aukera desberdintasunen kontrako borrokan oraindik ere badago egitekorik. Horri krisi ekonomikoko egoeran lortutakoari eusteko egindako esfortzu handia gehitu behar zaio, erronka osagarri moduan.

EcoEuskadi 2020 Estrategiaren barruan, pertsona guztien benetako integrazioa lortu behar dugu, sexua, adina, jatorria edo sinesmen erlijiosoak alda batera utzita, esku hartzen dugun esparru guztietan (familia, gizarte eta lana), eta tratatu berdintasuna bermatu behar dugu egoera guztietan.

Kontuan hartu beharreko alderdi garrantzitsu moduan, aipatu behar dugu Euskadin gizarte ekimenak lan handia egin duela, eta, erakunde publikoekin batera, gizarte politiken garapen operatiboan alderdi aktibo eta partaide izaten jarraitu behar duela, besteak beste, integrazioaren garapenean. Horrek gizarte bat sozialki kohesionatutzat hartu ahal izateko mekanismoak indartzea ekarriko du; izan ere, gizarte bera bere oinarriak diren sareak ehuntzeko gai izango da.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

12. Pertsonen gizarteratzea eta autonomia sustatzea, gizarte partaidetza elkartasunaren ikuspegitik bultzatuz eta gizarteratze programen garapen operatiboan gizarte ekimenarekiko lankidetzat indartuz
13. Langile etorkinen eta haien familien integrazioa erraztea –kultur integrazioa barne–, etorkinen hezkuntza arloko desabantailaren gainean eraginez

### 2.2. jarduera ildo. Prebentzioa, osasunaren eta autonomia pertsonalaren sustapena eta baliabideak eskuratzeko aukera berdintasuna bultzatzea, gizarte mugen ikuspuntua kontuan izanik

Ildoa *Euskadi osasungarri eta bidezko* baten ideian oinarritzen da. Horrek, osasunaren arloa (*osasungarria*) sektorekako politiken arlo guztietara eramatea ekartzen du.

Osasuna nahiz *osasungarria* kontzeptuen prebentzio alderdiak pertsonen protagonistaren rola ematen die, elikadurarekin, kirol jarduerarekin, gizarte harreman irekiekin eta bestelakoekin zerikusia duten ohituretan. Hala ere, administrazioari pertsonen osasuntsu eta osasungarri izaten jarraitzeko behar dituzten baliabideak berdintasunez lortzea bermatu beharra exijitzen dio.

Osasuna sustatzeko joera berriek osasuna politika guztietan kontuan hartu behar dela eta pertsonen rola, osasunaren zainketan duten ardura eta pazienteak, behar dituen zainketak hornitzen parte hartzeko orduan duen autonomia azpimarratzen dituzte.

Helburua 2020. urtean jarrita, Euskadik bere osasun sistemaren ikuspegiaren erabateko aldaketari egin beharko dio aurre. Horrela, gaixo kronikoek eta mendeko pertsonen lehentasuna izango dute, gizarte zerbitzuen euskal sistema finkatuko du. Aurrez aurre dugun beste erronka bat, beraz, osasunaren eta gizarte zerbitzuen arteko harreman espazioan kokatzen da; espazio soziosanitario izenez ezagutzen da, eta beren kabuz baliatzeko autonomiarik ez duten pertsonen duintasuna, nahiak eta bizi kalitatea errespetatu eta sustatuko duen zaintza eredu komunitario eta jasangarria da.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

14. Pertsonak ardaztat dituen eta ikuspegi komunitarioan oinarrituta dagoen arreta soziosanitarioko sistema bat eraikitzea
15. Osasunaren era mendetasunaren gizarte baldintzatzaileak proaktiboki nabarmentzea
16. Pertsonen harreman eta lotura beharrak gogobetetzea errazten duten gizarte espazioak sustatzea

### 2.3 jarduera ildoak. Berariazko enplegu politika aktiboak bultzatzea

Enplegu maila sistema sozioekonomikoaren jasangarritasun mailaren adierazle egokia da. Enplegu sorkuntza herrialdearen dinamismoaren araberakoa da, eta dinamismoa bera faktore multzo zabal baten ondorioa da –kanpokoak nahiz barnekoak izan daitezke–, gure helburuak lortzeko aukera ematen duten enplegu politika aktiboak diseinatzeko kontuan hartu behar direnak: jarduera tasak handitzea eta haiei eustea, gazteen okupazio indizeak hobetzea eta zahartzearen ondorioz lan egiteko adina duten pertsona kopurua gutxiagotzeari aurre egitea.

Baina gure lan merkatuak badu erreferentetzat hartzen ditugun Europako beste lurralde batzuetan gertatzen ez den berariazko beste ezaugarri bat: sortutako enpleguen zati baten kalitate eskasa, prekaritate eta behin behinekotasun handiagoak eraginda<sup>14</sup>.

Langileen batez besteko adina handitzearen eragina gehitu behar zaio horri, erakunde publiko nahiz pribatu askotan bistakoa dena.

Enplegu politika aktiboak ekonomia eta gizarte jasangarritasunaren ezinbesteko euskarriak dira eta, enplegu sorkuntzarekin eta haiei eusten laguntzen duten mekanismoak aktibatzearekin zerikusia duten politika publikoei dagokienez, integratzaileak izan behar dute, ikuspegi kualitatibotik (kalitatea, eskuragarritasuna, aukerak sortzea) nahiz kuantitatibotik. Bestalde, ezin ahaztu dezakegu enplegua sortzea enpresen ardura dela batik bat; hortaz, funtsezkoa da hori politika hauetan sartzeari, baita enpresek lanaren kalitateari buruzko erantzukizuna beren gain hartzea ere.

<sup>14</sup> Gazteriaren politika bigarren zeharkako ikuspegiaren lantzen da esplizituki.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

17. Enpleguaren kalitatea sustatzea, enplegu prekarioarekin eta azpienpleguarekin amaitzea
18. Biztanle zaharren enplegu aukerak handitzea, bereziki emakumeena, haien enplegarritasuna bideratuz
19. Erakundeetan adina kudeatzeko politikak sustatzea, eta zahartze aktiboko estrategiak

Oro har, bigarren helburu estrategikoaren barruan, sistema soziosanitarioa eta enplegarritasunaren kudeaketa aktiboa aldatu beharrak eragin ditu eskaera ekonomiko nagusiak. Horregatik, garrantzitsutzat jotzen da ondorengo hiru **tresnen** eginkizuna nabarmentzea:

20. Euskadiko Enplegu Sistema Publikoaren garapen osoa
21. Osasunaren gaineko eraginaren ebaluazioa ezartzea, osasuna politika sektorialetan ikusarazteko eta sartzeko tresna moduan
22. Ezkutuko ekonomiaren kontra borrokatzea, azpikontratazioa murrizteko eta administrazioaren diru sarrerak areagotzeko tresna gisa.

### **3. helburu estrategikoa. Gizarte babeseko sistemak indartzea, garapen harmonikoa, osasungarria eta bidezkoa bermatzen jarrai dezaten**

#### **3.1. jarduera ildoak. Jaiotza-tasa handitzen lagunduko duen politika aktiboen esparru globala diseinatzea**

Euskadin, gaur egun, jaiotza-tasak behera egin du. Prospektiban joera *astun* esaten zaio, jaitsiera horren eragina urte askoan nabaritzen delako eta ezin delako joera hori azkar aldatu. Euskadi, duela urte askotik, jaiotze-tasarik txikiena duen Europako eskualdeetako bat da. Orain arte abian jarritako pizgarri programak eta neurriak ez dira nahikoak izan.

Duela gutxi, jaiotza-tasa baxuaren arazo honen ikuspegi integrala indartsu agertu da. *Uztartze* kontzeptuaren inguruan sortu da, eta ikuspegi hori agertutakoan, aurretik ezkutuago egon zitezkeen baina jaiotze-tasaren gainean eragin zuzena duten zenbait faktore agertu dira: lan merkatuan gizon eta emakumeen aukera berdintasunarekin zerikusia duten faktoreak, lan ordutegiak ikasleen ordutegiaren koordinatzea edo familien politika orokorrak. Uztartzeko politikak Enpresaren Gizarte Erantzukizunaren barruko alderdiaren osagai garrantzitsuak dira; hortaz, enpresek politika horien merkatu globalean diseinatzeko eta ezartzeko orduan duten rol aktibatzailea kontuan izan behar dugu.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

23. Uztartzeko politika, berdintasunekoak eta eraginkorrak, bultzatzea
24. Lanaldia berriz antolatzeak akordio soziala, eta hala, lan ordutegien, ikasleen ordutegien eta ordutegi komertzialen arteko egokitasunik ezak gainditzea
25. 0 eta 2 urte arteko haurtzaindegien plaza publikoak estaltzeko plana

### 3.2. jarduera ildoak. Gaur egungo ongizate estatuaren jasangarritasun fiskala sendotzea (mendekotasuna, diru-sarrerak bermatzeko errenta, osasuna)

Gaur egungo ongizate estatuaren jasangarritasun fiskala indartzeko, nahitaezkoa da haren eraginkortasuna indartzea eta indarreko zerga esparrua egokitzea, baina baita herritarrek dagokien ardura kuota hartzea ere, sektore publikoan eskatzen diren baliabideen arrazoizko erabilerari dagokionez. Horrek, batetik, administrazioa berriz antolatzea eta modernizatzea eskatzen du, eraginkortasuna hobetzeko, eta bestetik, pertsonak beren bizi-ziklo berriari aurre egitea (bizi itxaropen handiagoa) eta, ahal duten neurrian, gozatu nahi duten ongizate maila bermatzen eta mantentzen laguntzea.

Mendetasun fenomenoak gero eta gehiago hazten ari da, bizi-itxaropenari urteak gehitzen dizkiogun eta aurrerapen teknologiko eta medikoek gaixotasun kronikoekin bizitzea ahalbidetzen diguten neurrian. Pertsonentzat eta osasun eta gizarte zerbitzu publikoak hornitu behar dituen administrazioarako erabateko aldaketa da.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

26. Sistema soziosanitarioa berregokitzea, gastuaren eraginkortasun handiagoren bila, prestazioen kalitateari eutsita
27. Zerga ahalegina errealitate berrietara egokitzea
28. Herritarrek zerbitzu publikoen zentzuzko erabileran erantzukizuna hartzea bultzatzea

Garrantzitsutzat hartzen da **tresna** hauek bete behar duten funtzioak:

29. Babes sistema soziosanitarioa bultzatzeko finantza tresna publiko nahiz pribatu berriak aztertzea
30. Uztartzearen aldeko arau esparrua eta akordio soziala
31. Eraginkortasuna eta kontrola gastu publikoan, eta administrazio eskudunen arteko koordinazioa indartzea

## 4. helburu estrategikoa. Gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatuta

### 4.1. jarduera ildoak. Hiri trinkoaren eredia bultzatzea.

Lurraldea ondo antolatzea natur baliabideak eta biodibertsitatea babesteko abiapuntua da. Aurreko garaian nagusitu den hiri mugen kontrolik gabeko hedapenaren aurrean, lurzoru naturalak baliabide urri moduan duen garrantziaz konturatzeak dagoeneko eraikita dagoen hiriaren gaineko jardueri lehentasun argia ematea eragiten du. Eraikita dagoen eremu hori ekoizpen eta egoitza jardueren euskarria izan daiteke eta izan behar du, eta hiri hedapenari muga zorrotzak ezarri behar zaizkio. Eremu baztertuak berreskuratu behar dira, dauden eraikinak berritu eta haien balioa handitu behar da, herrietan eta hirietan erabilerak trinkotu eta misto bihurtu behar dira, eta hirugarren sektoreko jarduerak eta, behar izanez gero, industria jarduerak bertikalki garatu behar dira, lurzoruaren kontsumoa murrizteko eta lekualdaketak saihesteko.

Hirien diseinua ekoeraginkortasun irizpideetan oinarritu behar da, industrialdeen eta lantokien urrutze eta sakabanatzeak edo merkataritza, gizarte eta aisialdi ekipamenduak hiri-inguruetan kokatzeak beharrezkoak ez diren lekualdaketak eragitea saihestuz. Era berean, hirigintza diseinuak garraio publikoari eta oinezkoentzako bideak egiteari lehentasuna eman behar die, ohitura osasungarriak praktikan jartzeko esparru egokia sortzearen. Horrela, karbono isuriak murriztu eta kontsumo energetikoaren eraginkortasuna hobetuko da. Halaber, gaueko argizatze sistemak optimizatu behar dira, beharrezkoa ez den kontsumoa eta argiaren kutsadura saihesteko.

Azpiegiturak eta ekipamenduak ongi erabili eta diseinatzen badira, lurzoru berriaren okupazioa txikiagotuko da. Bestalde, lurraldearen ikuspegi integralak eta ikuspegi lokalistik gaitzitezko ekipamenduak eta instalazioak bikoiztea saihestuko dute. Horren ondorioz, lurzoru gutxiago hartuko da eta finantzen jasangarritasuna handiagoa izango da.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

32. Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetan lurzoruaren kontsumoaren mugak ezartzea, dagoeneko eraikita dagoen hiriaren gainean jardutea
33. Hirien diseinu ekoeraginkorra, beharrezkoak ez diren mugikortasunak saihestuz, garraio kolektiboari lehentasuna emanez eta gastu energetiko eraginkorragoa bilatuz
34. Azpiegitura eta ekipamenduen erabilera optimizatzea, lurraldearen ikuspegi integralaren bidez

### 4.2. jarduera ildoak. Ekosistemen eta natur baliabideen gaineko presioa murriztea eta natur baliabideen (lurzorua, ura, airea, paisaia) kalitatea hobetzea

Isuriak arautzen dituzten arau estandarrak pixkanaka indartzeak eta herritarren sentsibilizazio eta kontzientziario handiagoak ekosistemen eta natur baliabideen gaineko presioa murrizten lagundu dute. Horrela, aurreko jardueren ondorioz metatutako hondatzea partzialki zuzenduko da.

Bide horietatik aurrera jarraitu behar da, pixkanaka aire kalitatearen estandarrak indartuz, baliabide hidrikoen kudeaketa eta uraren kalitatea hobetuz eta kutsatutako lurzoruak berreskuratuz, aurretik adierazitako helburua betetzeko, hots, *dagoeneko eraikita dagoen hiriari* lehentasuna ematea, beharrezkoa ez den hiri mugen hedapena geldiaraziz.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

- 35. Uraren kalitatea eta baliabide hidrikoen kudeaketa hobetzea
- 36. Paisaiak hutsaltzearen kontra borrokatzea eta dibertsitate biologikoari eustea

### 4.3. jarduera ildoak. Landa garapen integrala sustatzea, lurraldearen eta bertan bizi direnen balio naturalak babesteko

Landa garapen osoa ezinbestekoa da biztanleak landa eta hiri eremuen artean banatzen jarraitzeko. Landa eremuetan biztanleak egotea, eta nekazaritza ekologikoa zein balio naturalak babestearekin bateragarriak diren bestelako jarduerak ekonomikoak sustatzea biodibertsitateari eusteko bermea dira.

Bestalde, nekazaritzaren ekarpen *ekologikoari* esker, jendeak gustukoak dituen bertako produktuak landatzean oinarritutako ekonomia jarduerak gara daitezke, eta hala, merkataritza zirkuitu zuzenak sortu. Zirkuitu horiek merkatutik hurbil egongo direnez, kontsumo arduratsuagoa egiteko aukera emango dute, eta kostu logistikoak eta garraiokoak murriztuko dira.

Nekazaritza ustiapenekin jarraitzeko arazoak daude, ez dagoelako belaunaldien arteko txandakatzerik eta nekazaritza lurraldearen balioa garestitu delako, beste erabilera alternatibo batzuegatik. Horregatik, ezinbestekoa da laborantzarako lurraldeak eskualdatzen laguntzeko sistemak garatzea, hala nola lur bankuak.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

- 37. Landa ingurunearekin lotuta dauden ekonomia jarduerak bultzatzea (turismoa, nekazaritzako elikagaien industria eta abar)
- 38. Nekazaritza ustiatzearen belaunaldi aldaketa sustatzea
- 39. Biodibertsitateari eta paisaiari eusten laguntzen duten nekazaritza jarduerari laguntzea

Garrantzitsutzat hartzen da **tresna** hauek bete behar duten funtzioak:

- 40. Lurzoruaren bankuak
- 41. Merkatuko mekanismoak aztertzea eta txertatzea, natur baliabideek sortutako ondasun publikoen benetako balioa nabarmentzeko.

## **5. helburu estrategikoa. Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzea, berotegi efektuko gas isuriak murriztea eta klima aldaketaren eraginak minimizatzea.**

### **5.1. jarduera ildoak. Energia eraginkortasunaren hobekuntza eta energia kontsumoaren murrizketa bultzatzea.**

Energiaren kontsumoaren dagokionez, garraioa Euskadiko sektore nagusietakoa da. Bere energia eraginkortasuna eta energia baten mendekotasuna –petrolioarena– hobetzeko aukera handiak eskaintzen dituen sektorea da. Jasangarriagoak diren beste energia batzuk eta teknologiak, esaterako, auto elektrikoa garatzea sustatu beharko da, gaur egun nagusi den garraioaren, pribatua, modu iraunkorrean erabiltzea lortzen laguntzeko.

Halaber, hiri inguruneetan, egoitza, industria, ekipamendu eta bestelako erabilerekin zerikusia duten energia kontsumoko gune ugari dago. Karbono gutxi isurtzen duten hiri garapenak eta inguru finkatuak (hau da, energia sartu-irtenak gutxienera murrizten diren tokiak) sustatzea, eta horrekin batera, inguru horietako energia kontsumoa murriztea eta energia ekoizpena kontsumo puntuetatik gertu kokatzea eta biltzea.

Era berean, eraikuntzako eskalan, eraikuntza sektorea ia balantze energetikorik ez duen eraikuntzara aldatzeko prestatuko da (2010/31 Zuzentaraua), eraikuntza berrietan nahiz finkatuta dauden eraikuntzetan diseinu, kudeaketa eta mantentze irizpide berriak erabiliz.

Bestalde, hiri sareak bilakatu egingo dira teknologiaren aurrerapena dela eta, batez ere, kudeaketari dagokionez; alegia, zerbitzu bera emango dute eta errendimendu handiagoa, eraginkortasun handiago lortuko dute. Horrenbestez, sare elektriko adimendunen garapena edo auto elektrikoarekin lotutako energia kontsumo berriei emandako erantzuna (elektrizitatea hornitzen duten unitateen sarea edo elektrolindegia) errealitate izan behar dira. Neurri horiek bultzatzeak energia sistemaren horniketaren segurtasuna, lehiakortasuna eta kalitatea hobetuko du.

Gainerako sektoreek ere eraginkortasun energetikoa hobetu beharko dute, kontsumoa eta energia intentsitatea oro har murrizteko. Industriako, nekazaritzako eta zerbitzuetako sektoreek energia eraginkortasuna hobetu behar dute, eta horretarako, energia prozesuak eta zikloak hobetu eta teknologia jasangarriagoak baliatu behar dituzte eta energia zentzuz erabili behar dute.

Bestalde, ezagutzan, sormenean eta lankidetzan oinarrituta dagoen eta ekonomia berritzaile, ekintzaile eta teknologikoki aurreratu baterantz jotzearen ondorioz, energia intentsitatea murriztuko da, eta horri esker, kontsumoa murriztearekin bateragarria den hazkunde ekonomiko handiagoa ahalbidetuko da.

Azkenik, herritarrek funtsezko zeregina dute aipatutako sektoreetako askotan, azken kontsumitzaile moduan. Hortaz, energia kontsumoaren eragina murriztearen aldeko ikuspegiak baliatuko gara herritarrak sentikor bihurtzeko eta kontzientziazteko.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

42. Auto elektrikoak eta bestelako ordeko energiez baliatzen diren autoak garatzen eta erabiltzen laguntzea
43. Eraikuntzaren sektorea ia balantze energetikorik gabeko eraikuntzara aldatzea, modu antolatuan
44. Eraikinen birgaitze osoa
45. Industrian eta beste sektore batzuetan eraginkortasun energetikoa handitzea, kontsumoa murrizteko eta lehiakortasuna hobetzeko

### 5.2. jarduera ildoak. Energia berriztagarriak sortzea eta erabiltzea sustatzea.

Euskadik baliabide mugatuak ditu, baina energi berriztagarrien bitartez energia gehiago sortzeko gaitasuna du. Energia berriztagarrien iturriei dagokienez, aukera osagarriak ditu: eolikoa, eguzkikoa, geotermikoa, minihidraulikoa, biomasa, eta olatu-energia.

Iturri berriztagarrietan oinarritutako energia sistema garatzeaz gain, ekoizpen zentroen eta kontsumo guneen arteko harremana hobetuz gero, eredu energetiko deszentralizatua garatu ahal izango da. Deszentralizatzeari esker, batetik, energia berriztagarri iturriak sarera lotu ahal izango dira, baita etxean ere; eta bestetik, sare elektrikoan gertatzen diren galerak murriztuko dira. Gainera, biomasako hondakinei balioa handitzea eta termikoki eta elektrikoki baliatzea energia eredu berria gauzatzeko lehentasunezko jarduera da.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

46. Esfortzu handiagoa egitea funtsean energia eolikoan –lurrekoa eta itsasokoa- eta fotovoltaiakoan oinarrituta dagoen elektrizitate berriztagarri kantitate handiagoa sortzeko, biomasari etekina ateratzea, eta epe luzeagora begira baita itsas energiari ere
47. Erabiltzaileen artean energia berriztagarrien erabilera handiagoa bultzatzea, bereziki aprobetxamendu termikoetarako, biomasaz, eguzki energia termikoaz eta geotrukeaz baliatuz
48. Erakundeen eta gizartearen adostasuna lortzea energia berriztagarrien eta haien azpiegituren inguruan

### 5.3. jarduera ildoak. Klima aldaketa arintzea eta egokitzeko ekintzak garatzea.

Gaur egun, klima aldaketa eragin orokorra duen fenomeno handienetakoa da. Euskadi aitzindaria da arlo horretan eta sortu duen Klima Aldaketaren Legea horren isla da.

Lege esparrua garatuta, erronka ugari ekin behar zaie klima aldaketaren ondorioei aurre egiteko, haren kausak txikiagotzeko eta eragin negatiboak prebenitzeko.

Lehendabizi, karbono hobiak garatzea sustatuko da. Horretarako, gaur egungo zikloa apurtuko da eta CO<sub>2</sub>-aren zikloarekin lotutako klima aldaketaren kausak murriztuko dira.

Beste neurri nagusia da arrisku natural eta teknologikoen aurreko ahultasuna murriztea. Hori lortzeko, klima aldaketaren eraginen aurrean estrategikoki kritikoagoak eta ahulagoak diren azpiegiturak egokitu beharko dira. Halaber, klima aldaketari aurre egiteko eta aldaketa horretara egokitzeko gaitasuna



handitzearren, prebentzio neurriak hartu beharko dira. Azkenik, herritarrak sentikor bihurtzea eta kontzientziaztea bultzatuko da, karbonoaren eragina eta aztarna murrizteko.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

- 49. Hobien xurgatzeko gaitasuna handitzeko sistemak garatzea
- 50. Klima aldaketara egokitzeari buruzko I+G+b-ren garapen ildoak, erabakiak hartzea eta emaitzak hedatzera bideratutakoak, sustatzea

Testuinguru horretan, hauek dira helburu estrategikoan proposatutako jarduerak burutzeko **tresna** nagusiak:

- 51. Produktuaren edo prozesuaren ziklo osoan zehar berotegi efektuko gasen isuriak murrizteko aukera emango duten teknologiak erabiltzea sustatzea ekoizpen prozesuetan, zerga pizgarrien bitartez.
- 52. Arauetan eta diru laguntzak emateko prozesuetan berotegi efektuko gasen isuriak murrizteko aukera emango duten ekoizpen prozesuak eta ekipamenduak erabiltzeari buruzko balorazio irizpideak txertatzea.

## **6. helburu estrategikoa. Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratuko eredu jasangarriago bat garatzea**

### **6.1. jarduera ildoak. Garraiobide jasangarriagoak sustatzea.**

EAEko hiru hiriburuak lotuko dituen –baita horiek Espainiako eta Europako beste nodo eta hiri batzuekin ere– abiadura handiko trenbide sistema berria garatzea funtsezkoa izango da hurrengo urteetan Euskadin pertsonen eta salgaien garraio publikoa garatzeari dagokionez. Abiadura handiko sare berria aldiriko trenen, metroaren eta tranbienen sarearekin osatu behar da. Horrek lurralde guztia egituratu behar du, eta metropoli trenen sare eta zerbitzuak sortzen lagundu behar du, besteak beste, Donostialdean. Sistema egituratzaile horrek gainerako garraio sistema publikoak ondo koordinatuta egotea eskatzen du, zehazki hiri zein hiri arteko autobusak, trenbide sareen inguruan, intermodalitatean oinarritutako garraio publikoko sistema integral eraginkorra lortzeko.

Era berean, bide ezberdinen arteko modalitate bateratu hori pertsonak eta salgaiak garraiatzeko beste sistema batzuekin (ibilgailu partikularrak, bizikletak) behar bezala gauzatzea proposatzen da, baita Estatuan eta nazioartean dabilzan salgaiak eta pertsonak kontzentratzen dituzten guneekin ere (portuak, aireportuak). Hori horrela, salgaiak garraiatzeko EAEko sistemari dagokionez, funtsezkoa da tren geltokien eta portuen arteko lotura edo «portu lehorrekin» lotzea, Euskadin kokatuta egon edo ez. Horrela, aipatu bezala, barrutik egituratzen eta kanpoaldearekin lotzen lagunduko da.

Bestalde, garraiobide jasangarriagoak, eta, beraz, ingurumenarekin eta osasunarekin bateragarriagoak direnak, sendotzen ari dira eta gero eta erabiltzaile gehiago dituzte, ez bakarrik aisialdiarekin lotutakoek, baita eguneroko erabilerarekin lotutakoek ere. Oinezkoak ibiltzeko aukera ematea, bizikletaz ibiltzeko hiri egitura garatzea eta bizikletaren erabilera sustatzea –baita zerbitzu publikoko sistemen bidez ere– euskal hirietarako erronka estrategikoak dira. Sare eta zerbitzu horrek, beharrezkoak diren hiri arteko loturekin

batera, garraibide hori lurraldera hedatzeko aukera emango du. Era berean, hain garrantzitsuak ez diren bideen kanpoko kostuak barneratzeak garraio publikoa finantzatzen lagundu behar du.

Halaber, garraio publikoko sistema bat ere sortu behar da, Euskadin pertsonen garraioa globalki kudeatuko duen elementu moduan. Hartarako, garraio sistema publikoen integrazio fisikoa eta tarifa integrazioa, sistemaren kudeaketa eta koordinazioa eta hain jasangarriak ez diren garraio moduetarako disuasio neurrien ezarpena –hala nola ibilgailu pribatuetarako– hobetzeko neurriak ezarriko dira. Lehenik eta behin, beharrezkoa da lurralde historiko bakoitzean tarifak bateratzea, eta ondoren, Euskadi osoko mailan erabili ahal izateko aukera ematea, baita Euskadi osoan erabiltzeko txartel bakarra egitea ere.

Azken alderdi horrek eragin berezia du enpresen esparruko mugikortasunari dagokionez. Arlo horretan, lekualdaketa ahalik eta gehien mugatzea proposatzen dugu, besteak beste telelanari, bideokonferentzietan, Interneti eta bestelakoei esker. Bestalde, lantokira joateko irtenbide kolektiboak bilatzea proposatzen dugu, autobusen edo partekatutako ibilgailuen bidez, enpresen ordutegi desberdinen eragozpeni aurre egiteko, edo sindikatuek mota honetako irtenbideetan parte hartzea.

Horrez gain, mugikortasun jasangarriaren arloko hezkuntza politika indartsua sustatuko da, banakako mugikortasun motordun konbentzionalaren aurrean dauden aukeren berri emateko (garraio kolektiboa, oinez edo bizikletaz joatea, autoa partekatzea, disuasio aparkalekuak, txartel adimendunak, eta abar) eta ibilgailuen erabilerari sozialki balioa kentzeko.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

- 53. Trenbidea pertsonak eta salgaiak lekualdatzeko garraioaren ardatz egituratzaile gisa hartzea
- 54. Txartel bakarrak sortzea lurralde historiko bakoitzean, ondoren, lurralde guztietan erabili ahal izateko eta tarifak bateratzeko Euskadiko garraio sarean

### **6.2. jarduera ildo. Garraibideak mugikortasun baldintza egoki eta seguruetan erabiltzea lortzea, azpiegitura eta zerbitzu integratuetan oinarrituta.**

Azpiegitura eta zerbitzu sare arrazional bat garatzeak barnean eta kanpoan mugitzeko beharrei erantzungo die, Europako garraio sisteman integratutako bideragarritasun ekonomikoaren bidez. Sare hori Euskadiko lurralde eta gizarte kohesioa eta lehiakortasuna bultzatzeko tresna izango da. Horrela, mugikortasuna lurralde plangintzetan sartuko dugu, hurbiltasun kontzeptuaz baliatuz. Hartarako, garraioaren azpiegiturak erabiltzea, ahalik eta probetxurik onena ateratzea eta lurzoru berriak hartzea ezinbestekoa izango da. Halaber, hiri eredu trinko baten aldeko apustua egin behar da, bizileku erabilerak, ekonomia jarduerak, aisialdia eta bestelakoak nahastuta.

Era berean, mugikortasunak zerikusi handia du gastu publiko nahiz pribatuarekin. Hori horrela, garraioaren kanpoko kostuak barneratzeko beharrezkoak diren tresna ekonomikoak ezartzea (bidesariak eta zerga tratamendu aldakorra, erositako ibilgailuaren eta erabilitako erregaiaren arabera), mugikortasunaren ekonomiarekin erlazioa duen neurri moduan ulertuta, garraibideak modu zentzuzkoagoan erabiltzeko pizgarria izango da. Horrez gain, azpiegiturretan eta garraio zerbitzuetan inbertsioak arrazionalizatu behar dira. Horretarako, etorkizuneko ustiapen erregimenaren bideragarritasunaren behar bezalako plangintza egin behar da, eta mugikortasunean aplikatutako teknologien erabilerari dagokionez, I+G+b jarduerak sustatu. Hala, garraibide desberdinekin lotutako zerbitzuak integratu ahalko dira.

Mugikortasunak, bestalde, garraibideak erabiltzeko aukera unibertsalarekin eta aukera berdintasunarekin zerikusia duten gizarte eragin handiak ditu, eta arlo horretan, zenbait eragile eta baldintzarekin –hala nola generoarekin, adinarekin, errentarekin edo ezgaitasunekin– lotutako hainbat desberdintasun gainditu

behar dira. Halaber, arriskua murriztea, hots, istripu tasa murriztea, mugikortasun sistemaren gizarte maila hobetzeko neurri nagusietako bat da.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

55. Mugikortasun planak egitea erakunde maila guztietan eta mugikortasuna sortzen duen jarduera zentroetan
56. Kanpoko kostuak barneratzeko sistemak aplikatzea eta garraio publikoaren eta garraio azpiegituren finantzaketara transferitzea aztertzea
57. Informazio eta komunikazio teknologiak sartzea sustatzea, mugitzeko beharrak murrizte aldera

Testuinguru honetan, hauek dira proposatutako jarduerak burutzeko **tresna** nagusiak:

58. Tarifa sistema bakarra
59. Hiriguneetan ibilgailu pribatua ez erabiltzeko disuasio neurriak
60. Azpiegitura intermodalen eta garraio publikoko lanzaderekin konbinatutako disuasio aparkalekuen sistema integrala

**7. helburu estrategikoa. Kalitatezko hezkuntza eta balio sistema sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta, hezkuntza zein trebakuntza edukien aldetik, lan merkatuak eta gizarteak bizitza osoan zehar eskatzen dituzten gaitasunetara egokitua, jasangarritasuna arlo guztietan barne hartuta.**

**7.1. jarduera ildoak. Bizitza osoan ibilbide profesionalerako eta sozialerako behar diren eskumenak emango dituen prestakuntza sistema garatzea.**

Gaur egun, aldaketa teknologiko eta sozialak azkar gertatzen dira, beraz, *ikasten ikasteko* gaitasuna ezinbestekoa da teknologia eta gizarte berrikuntzek ekartzen dituzten abantailei etekina ateratzeko eta kultura berritzailea garatzen laguntzeko. Horrez gain, lan merkatuan alboratuta ez geratzeko ezinbesteko baldintza da. Berrikuntzak prestakuntzaz arduratzen diren profesionalen profil eta jardueretan ere eragina du. Horrenbestez, ezagutzak eta metodoak etengabe eguneratzen lagundu behar zaie, eta balioen, jarreraren eta jokabideen irakaskuntzaren garrantzia nabarmendu. Azken horretarako, berariazko gaitasunak behar dira.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologien edo IKTen arloa etengabe berritzen da, eta gazteenak haiek erabiltzera ohituta badaude ere, beste talde batzuetan eten digitala gertatzeko arriskua dago. Eten digital hori murrizten lagundu behar da, lan merkatura sartzea zailtzen duten eragozpenak ez sortzeko eta pertsonak berak zailtasunik ez izateko, izan ere, gero informazio eta zerbitzu publiko gehiago eskaintzen dira euskarri digitalaren bidez.

Aldaketa horien eta haiek dakarten lan mugikortasunaren ondorioz, prestakuntza eskaintza hobetu egin behar da bizitza osoan zehar, eta prestakuntza hartzea ere erraztu behar da, lan egitean euskarri formalik gabe bereganatzen den *ezagutza* alde batera utzi gabe. Beraz, komeni da lanbide guztietara prestakuntzak aintzatestearen bidezko ziurtapen sistema hedatzea. Alegia, 18 urtetik gorakoei ezagutzak eta gaitasunak lortzeko, eguneratzeko, osatzeko edo handitzeko aukera eskaintzea, pertsonalki eta profesionalki gara

## Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia 2020

daitezen ikasleei egokitutako ikasketen bidez edo hezkuntza sistemara edo lan merkatura sartzeko beharrezko titulazioa lortzeko aukera emango dieten proba librean bidez.

Halaber, eskola uzte goiztiarra murrizten jarraitu behar da, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatu titulua lortu ez duten ikasleei bide alternatibo eraginkorrak emango dizkieten lanbide prestakuntzako programen bidez, eta haiek lan mundura sartzea erraztuko duen lanbide prestakuntza lortu behar da, edo gizartean baztertuta ez egoteko eta hezkuntza sistema *formalean berriz sartzeko* laguntzeko bestelako sistemak ezarri.

Ekoizpen jarduerak orokortzeak eta bidaien eta nazioarteko trukeen goren aldiak gazteek prestakuntza jasotzeko lekuz alda daitezen sustatzea eskatzen dute, esperientziak trukatzeko eta kultura aniztasuna baloratzeko. Horretarako, argi dago hizkuntza gaitasunak ere garatu beharko direla, haur hezkuntzatik hasita, eleaniztasun eraginkorra lortzeko.

Arlo profesional guztietan garapen jasangarriaren gakoak ezagutzeak eta ulertzeak curriculum diseinuak indartzea ere eskatzen du. Horretarako, jarraibide egokiak barne hartuko dira.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

61. Eskola uzte goiztiarra murrizten duten lanbide prestakuntzako programak bultzatzea
62. Bizitza osoan prestakuntza eskaintza garatzea eta hura jasotzea erraztea
63. Prestakuntza garaian prestakuntza eta enplegua uztartzea.
64. Eten digitala murriztea

### 7.2. jarduera ildo. Balioetan hezteia sustatzea, bereziki jasangarritasunarekin zerikusia duten balioetan<sup>15</sup>

Publizitateak eta komunikabideek bultzatuta kontsumo gizarteak maiz sustatzen dituen berehalakotasunaren eta *bizitza errazaren* aurrean, gaur egungo munduaren konplexutasunak ardurari, esfortzuari, kalitateari, ekimenari eta enpresa ekimenari lehentasuna ematea eskatzen du.

Gizarte aldaketen ondorioz, beste behar batzuk ere badaude: kultura aniztasuna eta desberdintasuna, tolerantzia, errespetua, eta berritzeko edo aldatzeko gogoia balioestea. Baina tradizioz gizarte moduan berez izan ditugun balioei eutsi behar zaie: solidaritate, esfortzu, lankidetzeta eta erantzukizun sozialari.

Balioak *irakatsi* baino gehiago *praktikatu* egiten badira ere, interesgarria da «*Balio eskolen*» laguntza proiektuak sustatzea hezkuntza, familia, lan eta gizarte munduaren laguntzaz, eta aldi berean, elkarrekin parte hartzea eta herritartasun aktiboa sustatzea. Balioen barruan, eta EcoEuskadi 2020ren testuinguruan, beharrezkoa da hezkuntzari arreta berezia jartzea, garapen jasangarriarekin erlacionatutako balioei (zentzuzko kontsumoa, birziklapena, eta abar) batik bat.<sup>16</sup>

<sup>15</sup> Jarduera ildo honetarako ez da berariazko jarraipen adierazlerik sartu, horri buruzko Europako erreferentzia faltagatik. Estrategiaren ondorengo berrikuspenetan arlo horretako aurrerapena ebaluatzeko aukera emango duten berariazko adierazle bat edo batzuk egongo dira.

<sup>16</sup> Arlo honetan Eskola Agenda 21en edo jasangarritasunerako ingurumen hezkuntza planen ekimenak nabarmendu behar dira.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

65. Hezkuntza, lan, familia eta gizarte munduan lankidetzaren sistema bat sustatzea, balioetan hezteko (balio eskola).
66. Herritarrak garapen jasangarriaren alde sentikortzea eta kontzientziatzea, haren hiru dimentsioetan

### **7.3. jarduera ildoak. Euskal kultura eta horren nortasuna definitzen duten elementuak nazioartean hedatzea bultzatzea.**

Mundu globalizatuan euskal kultura, eta horren barruan bereziki euskara, bereiztea balio nabarmena da. Baina kultura gauza bizi eta dinamikoa da, ideien emankortasun gurutzatuari etekina ateratzen diona. Euskal industriari eta kultura enpresei beste merkatu batzuetan kokatzeko aukera emango dieten laguntza ildoak sustatu behar dira, hainbat kultura sektoretan: Ikus-entzunezkoan, antzerkian, musikan, eta abarretan. Nazioarteko sormen zentroetan sortzaile berriak egotea ahalbidetuko duten bekak ere sustatu behar dira.

Kultura sustatzeko lankidetzaren akordioak egin dira erakunde publiko eta pribatuekin, Euskadin eta Euskaditik kanpo, euskal kulturaren nazioartekotzea lortzeko. Horrela, kultura eta lankidetzaren sare komunak sortuko dira unibertsitateen, goi mailako eskolen eta arte zentroyen artean, nazio mailan nahiz nazioartean.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

67. Euskal kultur sektoreko enpresak merkatu berrietan kokatzen laguntzen duten ildoak sustatzea
68. Lankidetzaren akordioak egitea Euskadin nahiz Euskaditik kanpo erakunde publiko eta pribatuekin, euskal kulturaren baterako nazioartekotzea eskaintzeko

Proposatutako jardueretarako **tresnak**:

69. Etengabe ikasteari buruzko Legea egitea eta ezartzea
70. Gaitasun profesionala, esperientzia profesionalaren eta ikaskuntza ez formalaren bidez lortutakoa, egiaztatzearen sistema

## **8. helburu estrategikoa. Berritzailea, eraginkorra, abegitsua eta herritarrentzat gardena den administrazio publiko bat ezartzea.**

### **8.1. jarduera ildoak. Kudeaketa publikoa modernizatzea, eta horretarako, herritarrekin erlazionatzeko mekanismoak berritzea.**

Administrazio Publikoa, gizarteko gainerako arloak bezala, aldaketa eta berrikuntza teknologikoen garaian dago. Administrazioak herritarrekiko duen eginkizuna erabat aldatu da: *betebeharrak dituen subjektu hutsa* izatetik bezero eta jabe izatera pasatu da. Administrazioak eraginkorra izan behar du, eragin handia duelako sistemaren eraginkortasunean, eta hurbilerraza ere izan behar du: kontuak eman eta politikak egiteko eta erabakiak hartzeko prozesu guztietan gardena izan.

Horrek herritarrekiko harremanetarako tresna interaktiboak sustatzea eskatzen du, interes taldeekiko kontsulta prozesuak sistematizatzea, erabaki prozesuak gardentasunez dokumentatzea eta arautzea, baita herritarrei informazioa eskuratzeko aukera ematea ere, eta jardueren ebaluazio prozesuak sistematikoki txertatzea, programak hobetzearren.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

71. Politikak egiteko, haiek gauzatzeko eta emaitzak ebaluatzeko prozesuetan gardentasuna indartzea.
72. 2.0 tresnak sustatzea, herritarrekin komunikatzeko tresna osagarri moduan, eta aplikatzen diren prozesuak digitalizatzeko aukera ematea.
73. Administrazioa eredu izan behar da, eta erosketak eta kontratazioak egiterakoan jasangarritasun irizpideak (sozialak, etikoak, ingurumenekoak eta berritzaileak) aintzat hartu behar ditu.

### **8.2 jarduera ildoak. Administrazio publikoaren eraginkortasuna indartzea, eta horretarako, horren antolamendua eta eskumenen banaketa berrikustea, erakunde barruko eta erakunde arteko lankidetzak sustatzea, eta koordinazio mekanismoak indartzea.**

Eraginkorra izateko –are gehiago, aurrekontuak estuak diren garaian-, Administrazio Publikoak eginkizunak nola gauzatzen dituen berrikusi behar da. Sektore publikoaren garapenak bistako bikoiztasunak ekarri ditu. Haietatik, batzuk, eskumenen banaketarengatik eta dagoen egiturarengatik gertatu dira; beste batzuk, berez.

Beharren bilakaerak, esperientzia hartzeak eta denbora igarotzeak ezinbestekoa egiten dute hobekuntza operatiboak bilatzea, herritarren zerbitzuaren kalitateari eta gastuaren eraginkortasunari begira. Horregatik, eragile guztien artean, espezializazio erlatiboa bilatu behar da, eta jardueren koordinazio osoa, herrialderako apustu handiak direnetan bereziki, baliabideak eta esfortzuak optimizatzeko eta emaitzarik onenak bermatzeko.

Administrazioak, gainera, proaktiboa izan behar du: herritarrei eta enpresei ezartzen zaizkien zamak (informazioa, dokumentazioa) sinplifikatu behar ditu, baita barruko prozesu operatiboak optimizatu, hainbat administrazioen informazio sistemen elkarreragina bultzatu eta erakundeen arteko hitzarmenak sustatu ere.

Estrategia eta programa handiak egiteko prozesuetan herritarrei eta interes taldeei egiten zaien kontsulta sistematikoari eta gardentasunez egindako politika eta programa garrantzitsuen emaitzak eta eragina ebaluatzen arieten sistematizazioari esker, programak egokiagoak izango dira eta etengabe hobetzeko mekanismoak izango dituzte.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

74. Eragile guztien artean espezializazioa eta apustu handietan adostasuna bultzatzea, eta baliabideak beren gain hartutako eskumenen arabera banatzea, barruko eta administrazioen arteko bikoiztasunak saiheste aldera
75. Administrazio publikoen informazio sistemak barrutik konektatzea lortzea, eta erakunde arteko hitzarmenak sustatzea
76. Gastu publikoaren kudeaketa eraginkorragoa lortzea, aurrekontuaren erregulazioa hobetuz, Europako gobernantza ekonomiko berriarekin bat etorrira
77. Administrazio prozesuak sinplifikatzeko lan egitea

### 8.3. jarduera ildoak. Herritarrek parte hartzeko formuletan eta lankidetzan publiko-pribatuan aurrera egitea.

*Gauza publikoaren* kudeaketaren aurrean paper pasiboa izatearekin konformatzen ez den gizartearen heldutasunak, eta politika eta zerbitzu publikoak, haien onuradunen eta kaltetuen iritzia kontuan hartuz, eraginkorragoak egiteko borondateak, gobernantza berri baterantz aurrerapauso nabarmena egitea ekarri du. Gobernantza berri horrek topalekuak bilatu eta sortzen ditu, eta eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan aritzen laguntzen du, problemak ebazteko xede duen politika eraginkorra lortze aldera. Garapen jasangarriaren irizpideek *governantza berria* behar dela nabarmentzen dute, gaien ikuspegi holistikoa eta eragin posible guztiak –ez bakarrik programa edo politika jakin batek formalki jarraitzen dituenak– kontuan hartzeari garrantzi handia ematen dielako. Bestalde, teknologia berriek gizarte eragileekin kontrastatutako partaidetza formula zabalak eraginkortasunez erabiltzea ahalbidetzen dute.

Halaber, gizarte beharren kudeaketak planteamendu berriak ekar ditzake eta ekarri behar ditu. Planteamendu horietan, gizarte ekimena modu berritzailean integratu behar da, kostua jasangarriagoa egiteaz gain, planteamenduak eraginkorragoak eta doituagoak izateko.

Garapen edo gizarte aldaketako proiektu handiak gero eta konplexuagoak dira eta alde bateko bultzadak erresistentziak sortzen ditu. Horren ondorioz, indarrak batuz egin behar zaie aurre, eta gizarte eragileek *ad hoc* mekanismoen edo mekanismo jasangarrien bidez parte hartu behar dute. Hala ere, partaidetzaren eta hitzarmenaren mekanika ez da lan erraza. Hori dela eta, ezinbestekoa da parte hartzen duten eragile guztien trebakuntzan sakontzea.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

78. Administrazioak funtzio eredugarria hartzea: erosketak eta kontratazio publikoak sustatzea, gizarteko eta ingurumeneko irizpideak aintzat hartuta berrikuntzaren eragile gisa
79. Administrazio Publikoaren ekimenak eta programak egiteko eta berrikusteko (ebaluatzen) prozesuetan herritarren eta interes taldeen partaidetza sistematizatzea eta normalizatzea
80. Partaidetza mekanikan eta prozesuetan eragileen trebakuntzan sakontzea

Garrantzitsutzat hartzen da **tresna** honek izan behar duen funtzioa:

81. Politika eta programa garrantzitsuenen emaitzen eta eraginen ebaluazioa sistematizatzea, ikasteko eta hobetzeko tresna moduan.

### **9. helburu estrategikoa. Euskadik Milurtekoko Helburuak betetzen, eta, oro har, herrialde txiroenek garapen jasangarria lor dezaten laguntzea.**

#### **9.1 jarduera ildo. Lankidetzaren proiektuen bidez, hirugarren munduko herrialdeen garapen jasangarrian modu aktiboan laguntzea.**

Gaur egungo arazo global larrien eraginez –klima aldaketa, nazioarteko gatazka-maila gero eta handiagoa, finantza eta ekoizpen krisiak, migrazio behartuak, giza eskubideen urraketak, parte hartzeko eta erabakitzeko biderik eza–, munduan elkarren artean estuki lotuta dauden hiru prozesu bateratzen dira: kalteberatasuna, desberdintasuna eta pobrezia. Kalteberatasun gero eta handiagoarekin amaitzeko gizadiak aurrean duen funtsezko erronka planetako emakume eta gizonezkoen askatasunak, eskubideak eta gaitasunak garatzeko aukerak bermatzea da; bereziki, pobrezia egoeran daudenei.

BPGren % 0,7rekin lankidetzaren proiektuetan laguntzeko helburu zaharra ez da bete, ez eta gutxiago ere, administrazio publikoek parte-hartze aktiboa izan badute ere. Proiektuak bikoiztearen eta laguntza lerroak sakabanatzearen eraginez, laguntzak zatitu egiten dira. Komeni da Euskadik bultzatutako nazioarteko lankidetzaren politikaren koordinazio integrala bilatzea, lehentasun geografikoko irizpideak ezarrita, bai errazago ikusteko, bai esfortzuak bildu eta proiektu garrantzitsuagoi eta eragin handiagokoei ekiteko.

Komeni den beste bidea da ezagutzak eta baliabide teknologikoak bi norabideetara transferitzeko aukera ematen duten berariazko lankidetzaren hitzarmenak bultzatzea, berariazko arazoak ebazteko, azken batean, helburua bertako komunitateei beren erantzunak garatzen laguntzea dela ahaztu gabe. Horrela, irtenbideak zuzenean txertatzea saihestuko da.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

- 82. Administrazio publikoak bultzatutako garapenerako lankidetzaren politika indartzea eta integratzea, eraginkorragoa egiteko (hala badagokio, esku-hartze garrantzitsuagoak edo prestakuntza handiagokoak ahalbidetuz)
- 83. Garatzeko bidean diren herrialdeekin lankidetzaren hitzarmenak egiteko bidea ematea



## 9.2 jarduera ildo. Garapen bidean dauden herrialdeekiko merkataritza arduratsua bultzatzea.

Lankidetzeta proiektuekin batera, herrien garapena ondasunak eta zerbitzuak ekoiztetik eta trukatzetik dator. Nazioarteko merkataritzak eta turismoak ekoizpen jarduerak sustatzeko funtzio oso garrantzitsua dute. Hala ere, batak nahiz besteak hauek susta ditzakete: garapen ez-jasangarria, gizarte eskubideekin oso errespetutsuak ez diren lan jarduerak sartzea edo natur baliabideen espoliazioa eta hondatzea.

Nazioarteko merkataritza eta finantzazio politikek eta jarduerak, koherentziaz, ekonomia, gizarte eta ingurumen arloetan jarduera jasangarriak sustatu behar dituzte, natur baliabideen ekoizpen, garraio eta ustiapenaren esparruan. Arrazoi beragatik, enpresek eta multinazionalak beren kode etiko eta erantzukizun sozialeko jardueren berri eman behar diete haiek ezarri edo komertzializatzen dituzten herrialdeei. Bereziki, garatzeko bidean diren herrialdeetan egindako ekoizpen ezarpenak Euskadin zorrotzenak diren ingurumen edo gizarte arauak aplikatzea saihesteko ahaleginari erantzutea ekidin behar da. Herritarrek, kontsumitzaileak diren heinean, gizarte edo ingurumen *dumpinga* ekartzen duten produktuak baztertu behar dituzte kontsumo jardueren bidez. Hartarako, jatorri eta ingurumen kalitateko ziurtagiriek ematen duten informazio gardentasunean aurrera egin behar da.

Arlo pertsonalago batean, herritarrek beren portaera zaindu behar dute turismo bidaietan, kontsumo jarduera ez-jasangarriko edo ingurumena eta gizartea errespetatzen ez duen jarduerarik ez babesteko. Ikastetxeetan beste balio batzuk lantzea eskatzen den bezala, eskola curriculumak munduko herrialdeen garapenaren aldeko banakako eta gizarteko erantzukizuna eta sentikortasuna sustatzen lagundu behar du, lankidetzaren eta koherentziaren ikuspegia herrien garapen jasangarriarekin lotuz.

Jarduera multzo horren barruan, hauek garrantzi berezia dute:

- 84. Enpresen gizarte erantzukizunean eta erosketa eta kontratazio publikoan merkataritza eta turismo arduratsuen irizpideak txertatzea
- 85. Nazioarteko jasangarritasun ziurtagiriak sustatzea

Garrantzitsutzat hartzen da **tresna** honek izan behar duen funtzioa:

- 86. BPGaren 0,7ko aurrekontu esleipena lortzea, Milurteko Helburuak lortu ahal izateko.

## 7 Zeharkako ikuspegiak

Ezarritako helburu estrategikoetako batzuk elkarrekin lotuta daude, eta arreta kolektiboa horiek lortzera bideratu behar dugu. Horregatik, beharrezkotzat jo dugu garrantzia horizontalarengatik, epe luzera dituzten eraginengatik eta haiek antolatzeke konplexutasunarengatik hala jarraipena eta koordinazioa –diziplina anitzeko taldeen bidez, sail artekoak nahiz erakunde artekoak izan– nola eragile sozioekonomikoen inplikazio handia eskatzen duten lehentasunezko arreta esparruak finkatzea (**zeharkako ikuspegiak** deiturikoak).

Zeharkako ikuspegiak aukeratzekoan, hauek hartu dira kontuan: jasangarritasunaren hiru arloetan, hots, ekonomian, ingurumenean eta gizartean, duten eragina; helburu estrategiko batzuetan egiten duten zuzeneko ekarpena; aginte koadroaren gainean duten eragin handia; Administrazioaren maila guztietan egin beharreko ekimenak izatea; eta Europa 2020 Estrategiarekin bat etortzea.

Ikuspegi hauek, jasangarritasuna bermatzeko, finantza publikoak finkatzeko eta hazkunde, lehiakortasun eta enplegu maila handiagori laguntzeko eragin makroekonomiko handiak dituzten funtsezko egiturazko apustuak identifikatzen dituzte.

Hauek dira ikuspegiok:

1. Jasangarritasunerako berrikuntza eta ezagutza.
2. Gazteak mugimenduan.
3. Enplegua, ekonomia orokorrean.
4. Bizi-kalitatearen baldintzatzaileak.

### 1. zeharkako ikuspegia. Jasangarritasunerako berrikuntza eta ezagutza.

Ikaskuntzarako irekita dagoen eta berrikuntzaren, sormenaren, enpresa ekimenaren eta lankidetzaren banakako eta gizarteko balioen hautematea indartzen duen euskal gizarte baterantz aurrera egitea da helburua. Hartarako, berrikuntza eta ezagutza politikak gure gizarteak aurrean dituen erronka nagusietara bideratu behar dira. Garatzeko bidean diren sektoretzat hartzen dira horiek: energia berriztagarriak, mugikortasun jasangarria, baliabideen erabilera eraginkorra eta zahartze aktibo eta osasungarria. Azken proposamena hau izango litzateke: inbertsio publiko-pribatuko mailak handitzea, baldintzak hobetuz; goi teknologiako enpresen ehunekoa handitzea; balio erantsia handitzen duen beste ezagutza aurreratatu bat garatzea lanpostuko; eta berrikuntza katearen maila bakoitza indartzea, ikertzetik komertzializatzeraino.

Hauek dira lan ildo nagusiak:

- Hezkuntzan, I+G+b-n eta IKTetan inbertitzea sustatzea. Euskadiko ikerketa eta berrikuntza sistemak euren artean hobeto lotzea eta haien etekina hobetzea. Gure unibertsitateen gaitasun mailak handitzea. Ezagutzako gastuei lehentasuna ematea; esaterako, pizgarri fiskalak eta bestelako finantza tresnak erabiliz, I+G+b-n inbertsio pribatu handiagoak sustatzeko.
- Ikerketaren bidez berrikuntza handiagoa sortzea. Zientziaren eta enpresaren munduen artean lankidetzak handitzea. Ekintzaileei «ideiak merkatura» eramatea oztopatzen jarraitzen dieten eragozpenak kentzea. Ekintzailetasuna sustatzea, enpresa berritzaile gazteei lagunduz. Ekintzailetasun kultura eta sormen espiritua sustatzea, enpresa berritzaile berriak sortzeko eta daudenak aldatzeko metodo gisa. Ezagutzan intentsiboak diren produktu, zerbitzu eta ekoizpen prozesuen bidez enpresei laguntza aurreratua ematea.
- «Euskal berrikuntzako lankidetzak» abian jartzea. Administrazio publikoko maila desberdinen eta administrazioaren, unibertsitatearen eta enpresen artean programazioa / baterako sorkuntza /

baterako lankidetzaren handitzea. Enpresen berrikuntzan laguntzen duten baldintza orokorrak hobetzea, esate baterako, ETEek jabetza intelektuala babesteko aukera handiagoa izatea, baita eskaeren politikerarako ere, adibidez, kontratazio publikorako.

- **Berrikuntza soziala, berrikuntza irekia, sektore publikoaren berrikuntza eta ekoberrikuntza bultzatzea**<sup>17</sup> erronka orokor eta lokal berriei erantzuteko.

## 2. zeharkako ikuspegia. Gazteak mugimenduan.

Helburua euskal gazteen garapen autonomo osoa lortzea da, haien trebakuntza, integrazioa eta Euskadin nahiz Euskaditik kanpo aintzatestea sustatuz. Horretarako, gazteen ekintzailetasun maila sustatu behar da, arlo guztietan: pertsonalean, profesionalean, sozialean eta kulturean. Horrez gain, haien autonomia mailak indartu behar dira, bizi-baldintzak hobetuz; kalitate oneko hezkuntza emanez, hezkuntza zikloen hasieratik lan munduan txertatu arte; hezkuntza formala eta ez-formala osatuz; ikaskuntza iraunkorari garrantzia emanez; eta, talentuak sor daitezen sustatuz. Azken helburua gazteak ireki eta arduratsuak izatea eta etorkizuna erabakitze gaitasuna, irizpideak eta aukera edukitzea lortzea da.

### Hauek dira lan ildo nagusiak:

- **Hezkuntza eta prestakuntza sistemetan inbertsio eraginkorra bermatzea, maila guztietan;** alegia, eskolaurretik goi mailako ikasketetaraino, unibertsitate zikloak zein Lanbide Heziketako goi mailako graduak barne. Horri esker, hezkuntza emaitzak hobetuko lirateke, funtsezko eskumenak eta balioak jasoko dituen eta eskola arrakasta lortzeko bideratuta dagoen planteamendu osoaren bitartez.
- **Hezkuntza sistemaren irekiera eta garrantzia indartzea, talentuak sortzen eta erakartzen laguntzeko.** Ikasleak lekualdatzeko programa kopurua handitzea eta Europar Batasuneko programekin bat etortzea. Goi-mailako irakaskuntzaren erakargarritasuna sustatzea, kanpoko talentuak hartzeko eta nazioarteko lan merkatura hedatzeko.
- **Gazteei lan merkatura errazago sartzeko laguntzea, bestelako alderdien artean hauek barne hartuko dituen ekintza integratu baten bidez: orientazioa, aholkularitza eta praktikak.** Goi-mailako hezkuntzaren munduaren eta enpresaren munduaren arteko lankidetzaren handitzea. Merkatu-zokoak zaintzeari garrantzia ematea, langile kualifikatuen eskaerei azkar erantzuteko. Lehen enplegua lortzen eta ibilbide profesionalari ekiten laguntzea. Ekintzailetza prozesuak sustatzea, berezko eta kanpoko finantza tresnak lortzen lagunduz.
- **Etxebizitza izateko aukera sustatzea,** gazteen garapen autonomoa egituratzen laguntzen duen ardatzetako bat moduan. Gainera, alderdi horrek gizarteratzen laguntzen die.

<sup>17</sup> Energia eraginkortasuna, ekoeraginkortasuna eta ekodiseinua.

### 3. zeharkako ikuspegia. Enplegua, ekonomia orokorrean.

Helburua da enplegarritasun maila handitzea aldatetara egokitzea eta gure gizarte ereduaren jarraitutasuna bermatzea. Horretarako, gure lan merkatuaren dualtasunarekin bukatzen duen ekonomia baten aldeko apustua egingo da<sup>18</sup>. Horretarako, gure enplegu, hezkuntza eta prestakuntza politikak eta gizarte babeseko sistemak modernizatu eta finkatu behar dira, lan partaidetza handituz, egiturazko langabezia murriztuz eta enpresen erantzukizun soziala sustatuz. Hori guztia gure enpresen lehiakortasuna baldintzatzen duen eta lanpostu bakoitzaren balio erantsia handitzen saiatzea saritzen duen ekonomia orokorraren testuinguruan.

#### Hauek dira lan ildo nagusiak:

- **Malgurtasunari bultzada ematea**, trantsizio ekonomikoak kudeatzeko, langabeziaren kontra borrokatzeko eta jarduera tasak handitzeko modurik onenak finkatzeko. Lan merkatuaren segmentazioa murriztean eta enpleguaren kalitatea hobetzean datza. Lan mugikortasuna erraztea, lan eskaintza eskarrietara egokituz.
- **Bizitza pertsonalaren, familiakoaren eta profesionalaren artean oreka lortzeko beste modu batzuk eta zahartze aktiboko politikak sustatzea**, piramide demografikoaren kudeaketa errazten badute, jaiotza-tasa sustatzeko, horrela, jasangarritasun ekonomiko eta soziala bermatuko baita.
- **Etengabeko ikaskuntza sustatzea**, lan bizitzarekin uztartuz, aintzatetsiz, IKTek esparru honetan sortzen dituzten aukerez baliatzea erraztuz, eta prestakuntza-eskaintza eskaeretara egokituz, arlo pertsonalekoetara nahiz profesionalekoetara.
- **ETEen nazioartekotzea sustatzea**, enpresa arloa hobetuz, taldeak sustatzearen bidez, eta finantzazioa lortzeko aukera handituz. Hartarako, garrantzitsua da garraio eta logistika sareek nazioarteko merkatu bakarrean modu eraginkorrean sartzea ahalbidetzea.
- **Enpresak sortzeko administrazio izapideak sinplifikatzea**, eta hala, lehiakortasuna eta euskal enpresa sektoreak merkatuaren eskaerei ematen dien erantzuna hobetzea.

### 4. zeharkako ikuspegia. Bizi-kalitatearen baldintzatzaileak.

Helburua da oparotasunaren kontzeptuarekin erlazioa duten alderdietan aurrera egitea, «oparotasuna» pertsonak garatzeko, gizarte kohesio handiagoa lortzeko, ongizate maila handiagoa lortzeko eta ingurumenaren gaineko eragin materiala murrizteko duten aukera moduan definituta. Oparotasun honen baldintzatzaileak balioak, kultura, jarrerak, bizimoduak eta norberaren eta gizartearen ohiturak dira. Horrenbestez, adierazitako helburu estrategikoak lortzeko giltzarriak dira.

#### Hauek dira lan ildo nagusiak:

- **Kontsumo ohitura jasangarriak garatzea**, kontsumoak, epe luzera nahiz laburrera, gure ingurunean nahiz hemendik kanpo duen eragina kontuan hartzen dutenak; natur baliabideak birsortzeko aukera ematen dutenak; eta, ondasun publikoak arrazoiz eta gizartearekiko erantzukizunez erabiltzeko eta haien balioa agerian uzteko aukera emango dutenak.
- **Gure osasunaren baldintzatzaileei garrantzia ematea**, gure arreta nagusia prebentzioan jarrita, eta ez osaketan, eta politika publiko guztietan osasuna barne hartuz.
- **Hiri jasangarriagoen garapenean aurrera egitea**, gure udalerriak, modu integralean, hurbilen ditugun inguru moduan ikusita, eta herritarren partaidetzarekin hiriak berriz diseinatuz.

<sup>18</sup> «Bi abiadurako» lan merkatua dugu, non biztanleen zati garrantzitsu batek enplegu eta soldata duina izateko aukerarik ez duen. Merkatuaren dualtasun hori mehatxua da ongizate estaturako eta gizarte kohesioa zatitzen du.

- **Jasangarritasunaren balioak sustatzea**, herritarren eta beste eragile sozioekonomiko batzuen portaera arduratsua bilatuta eta administrazio publikoak aldaketaren eragile moduan duen eredugarritasunari garrantzia emanda. Bertako kultur adierazpenak sustatzea.
- **Ongizate, aurrerapen, bizi kalitate eta abarren adierazleak garatzen aurrera egitea**. Eustatekin batera, garapen jasangarriaren inguruan lortutako maila jasotzeko gai izango diren adierazle sintetikoak garatuko dira.

## 8 EcoEuskadi 2020ren aginte koadroa

Non ikusi nahi dugu kokatuta Euskadi 2020. urtean? EcoEuskadi 2020 Estrategiak seinale sistema osoa jasotzen duen **aginte koadroa** ezartzen du. Horren bidez, benetan adierazgarriak diren magnitudeen aldaketak adieraz ditzake. Beraz, seinale horiek zaindu egin behar dira, estrategiaren kudeaketa kontrolatzeko, eta erabakiak hartzen laguntzeko.

Ezarritako aginte koadroak hainbat ezaugarri dituzten hiri motatako **adierazleak** ditu, eta haiek aztertuta, Estrategian ezarritako helburuetarantz aurrera egiteko ikuspegi osoa emango digu. Hauek dira adierazleak:

- **Erreferentziatzko adierazleak:** Europa 2020 Estrategian jasotako helburuekin bat datoz, eta helburu nagusien kopuru mugatua biltzen dute, kuantitatiboki.
- Politiken jarraipen adierazleak: aldaketaren norabidera mugatzen dira, eta ezarritako helburu estrategikoekin zuzenean erlazionatuta daude. Ezarri nahi den joera finkatzen da: handitzea, murriztea edo egonkor jarraitzea.
- **Estrategiaren kudeaketari lotutako aurrerapen adierazleak:** Estrategiaren aurrerapen maila islatzen duten barne kontroleko adierazle panela jasotzen du.

**Helburu kuantitiboak** lortzea ezinbestekoa izango da 2020. urterako ezarritako ikuspegia arrakastaz lortzeko. Jarraian, helburu horiek zehaztuko dira, eta Europa, Espainia eta Euskadiren arteko erlazioa jasotzen duen koadroa ere agertuko da:

- 20 eta 64 urte arteko biztanleen **enplegu** mailak gaur egungo % 68tik gutxienez % 75era arte handitu beharko luke.
- **Ikerketan, garapenean eta berrikuntzan** BPGren % 2 inbertitzetik % 3 inbertitzera pasatu beharko da. Sektore publikoak nahiz pribatuak I+G+b-n inbertitu behar dute. Europako Batzordearekin bat, % 3ko helburuari eustea proposatzen da, baina I+G+b-ren intentsitatea islatzen duen adierazle baten garapenean aurrera egitea.
- Berotegi efektuko gas isurpenak % 20 murriztea, 2005. urteko mailaren aldean; gure azken kontsumoan energia berriztagarrien iturrien ehunekoa handitzea, % 17raino, eta eraginkortasun energetikoa, % 20raino.
- Emaitzetan oinarritzen den hezkuntza helburua; **eskola uztearen** arazoa % 10 beheraino murrizten duena, gaur egungo % 12,6tik, eta goi mailako irakaskuntza bukatzen duen 30 eta 34 urte bitarteko biztanleen ehunekoari eusten diona, hots, % 40ren gainetik 2020. urtean.
- **Pobrezia mugaren** azpitik bizi den pertsona kopurua gaur egungo % 19tik % 15eraino murriztu beharko litzateke.

Esparrua eta adierazle nagusia	EB-27		Espainia		Euskadi	
	Gaur egungoa <sup>19</sup>	2020rako helburua	Gaur egungoa <sup>19</sup>	2020rako helburua	Gaur egungoa <sup>20</sup>	2020rako helburua

Enplegua						
Langabezia-tasa (20-64 urte)	% 69,1	% 75	% 63,7	% 74	% 68,5	% 75

I+G+B						
BPGtik I+G-ra bideratutako gastu publiko eta pribatua	% 2,01	% 3	% 1,38	% 3	% 2	% >3

Energia eta klima aldaketa						
Berotegi efektuko gasen isuriak <sup>21</sup>	% -11,3	% -20	% +27	% -20 <sup>22</sup>	% +6	% -20 <sup>23</sup>
Berriztagarrien proportzioa energiaren azken kontsumoan	% 10,3	% 20	% 10,7	% 20	% 6,5	% 17
Energiaren kontsumo aurrezpena		% 20		% 25,2 <sup>24</sup>		% 20

Hezkuntza						
Eskola uzte goiztiarraren tasa	% 14,4	% 10	% 31,2	% 15	% 12,6	% 10
Goi mailako ikasketak dituzten 30-34 urteko biztanleen proportzioa	% 32,3	% 40	% 39,4	% 44	% 41	% >40

Pobrezia eta gizarte bazterketa						
Pobrezia edo gizarte bazterkeria jasateko arriskuan dauden biztanleak	113,7 mil. % 23,1	93,7 mil.	10,6 mil. % 23,4	9,2 mil.	417.000 % 19,3	% <15

<sup>19</sup> 2009. urtea

<sup>20</sup> 2008. urtea

<sup>21</sup> Erreferentziako oinarri-urtea 1990a da; gaur egungo urtea, 2008a.

<sup>22</sup> Sektore ez zehaztugabeak eta 2005. urtearen aldean

<sup>23</sup> 2005 erreferentzia-urtea

<sup>24</sup> 2020rako joerako kontsumoaren gaineko aurrezkoa, intentsitate energetikoaren % 2ko urteko murrizketaren baliokidea.

**Politiken jarraipen adierazleak:**

	ADIERAZLEA	DESKRIBAPENA:	IRISMENA	JOERA
<b>1. helburu estrategikoa. Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea</b>				
I-1,1	IUS	Berrikuntzaren Europako Indizean kokatzea (IUS, Innovation Union Scoreboard)	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↗
I-1,2	Baliabideen produktibitatea	BPGaren eta Materialen Etxeko Kontsumoaren arteko zatidura (€/ kg.)	I. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↗
I-1,3	Biztanleko BPG	GBPGaren eta biztanle kopuruaren arteko zatidura	I. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↗
I-1,4	Irekidura maila	Nazioarteko merkataritzaren ehunekoa BPGaren aldean	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↗

<b>2. helburu estrategikoa. Euskadi erabat integratzailea den eta enplegu, hezkuntza, prebentzio zein elkartasun arloetan kohesionatuta dagoen herrialde gisa sendotzea</b>				
I-2,1	Errenta pertsonalaren kontzentrazio indizea	Errenta pertsonal eskuragarriaren Giniren indizea	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↘
I-2,2	Gizarteratze maila:	Babesteko, gizarteratzeko eta pertsonen autonomia bermatzeko programetan parte hartzen duten pertsonen ehunekoa arrisku egoera dauden pertsonen aldean	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↗
I-2,3	Gizarte ezberdintasunak heriotza-tasan	Pertsonen heriotza-tasa eta 20 eta 64 urte bitartekoen azterketa primarioak goi mailako azterketen aldean	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↘
I-2,4	Gazteen okupazio tasa	20 eta 29 urte bitarteko biztanleriaren okupazio tasa	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↗

<b>3. Helburu estrategikoa. Gizarte babeseko sistemak indartzea, garapen harmonikoa, osasungarria eta bidezkoa bermatzen jarrai dezaten</b>				
I-3,1	Jaiotza tasa	Jaiotza kopurua populazioaren gainerakoaren aldean, milatan	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↗
I-3,2	Zor publiko gordin kontsolidatua	Euskal administrazioen zor publiko gordin kontsolidatuaren ehunekoa BPGaren aldean	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↘
I-3,3	Gizarte gastu publikoa	Hezkuntzan, osasunean eta gizarte zerbitzuetan egindako gastu publikoaren ehunekoa BPGaren aldean	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↔



	INDICADOR	DESKRIBAPENA:	IRISMENA	JOERA
<b>4. Helburu estrategikoa. Gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatuta</b>				
I-4,1	Eraikitako eremuak	Artifizializatutako azaleraren ehunekoa azalera osoaren aldean	II. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↔
I-4,2	Landako biztanleria	Biztanleriaren ehunekoa hirigunerik gabeko eta 2.000 biztanle baino gutxiagoko guneeetan	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↔
I-4,3	Hiri hondakinak	Biztanle bakoitzak sortzen dituen udal hondakinak	II. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↘
I-4,4	Hegazti arrunten indizea	Haztegiko hegaztien, basoko hegaztien eta hiriko hegaztien indizea	I. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↗
I-4,5	Arriskuan dauden espezieak	Desagertzeko arriskuan dauden espezieen ehunekoa, espezie guztien aldean	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↘

<b>5. helburu estrategikoa. Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzea, berotegi efektuko gas isuriak murriztea eta klima aldaketaren eraginak minimizatzea.</b>				
I-5,1	Mendetasun energetikoa	Energia inportazioen ehunekoa energiaren barne kontsumoaren aldean	II. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↘

<b>6. helburu estrategikoa. Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratuko eredu jasangarriago bat garatzea</b>				
I-6,1	Garraioak kontsumitzen duen energia	Garraioak kontsumitzen duen energiaren ehunekoa BPGaren aldean	EEDS (b)	↘
I-6,2	Merkantzien garraioa, errepidetik	Errepide bidezko merkantzien garraioa garraio guztiaren aldean	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↘
I-6,3	Bidaiarien garraio pribatua	Bidaiarien garraio pribatuaren ehunekoa garraio guztiaren aldean	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↘

	INDICADOR	DESKRIBAPENA:	IRISMENA	JOERA
<b>7. helburu estrategikoa. Kalitatezko hezkuntza eta balio sistema sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta, hezkuntza zein trebakuntza edukien aldetik, lan merkatuak eta gizarteak bizitza osoan zehar eskatzen dituzten gaitasunetara egokitua, jasangarritasuna arlo guztietan barne hartuta</b>				
I-7,1	PISA ebaluazioa	Batez besteko errendimendu orokorra irakurketan, zientzietan eta matematiketan	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↗
I-7,2	Argitalpen zientifikoak	Euskal unibertsitate sistemak egindako ISI argitalpen kopurua	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↗
I-7,3	Euskal kultura nazioartean hedatzeko laguntza	Euskal kultura nazioartean hedatzeko jardueretarako aurrekontua	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↗
I-7,4	Etengabeko ikaskuntza	Prestakuntza jardueraren bat egiten ari den 25-64 urte arteko biztanleen ehunekoa	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↗

<b>8. helburu estrategikoa. Berritzailea, eraginkorra, abegitsua eta herritarrentzat gardena den administrazio publiko bat ezartzea.</b>				
I-8,1	Hauteskundeetako parte-hartzea	Hauteskundeetan parte hartzea (Europakoetan, nazionaletan, autonomikoetan eta tokikoetan)	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↗
I-8,2	Administrazio elektronikoa	Telematikoki egin daitezkeen administrazio prozesu osoen ehunekoa prozesu guztien aldean	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↗
I-8,3	Administrazioarekiko asegabetasuna	Arartekoak administrazioari buruz jasotako kexa kopurua	EcoEuskadi 2020 adierazle propioa	↘

<b>9. helburu estrategikoa. Euskadik Milurtekoko Helburuak betetzen, eta, oro har, herrialde txiroenek garapen jasangarria lor dezaten laguntzea.</b>				
I-9,1	Garapenerako laguntza ofiziala	Garapenerako emandako laguntza ofizialaren ehunekoa BPGaren aldean	I. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↗
I-9,2	CO <sub>2</sub> isurpenak biztanleko	Tona CO <sub>2</sub> isurpen biztanleko	II. mailaren adierazlea (EDS-UE) (a)	↘

(a) EDS – UE: Europar Batasunaren Garapen Jasangarriko estrategia

(b) EEDS: Espainiaren Garapen Jasangarriko Estrategia.

(c) Europako estrategian oso antzeko adierazle bat dago

### Estrategiaren aurrerapen adierazleak:

Aurrerapen adierazleak	
Jasotako ekintzen aurrerapen maila	↗
Jasangarritasunaren ikuspegia barne hartzen duten sektorekako planak	↗
Identifikatutako jasangarritasunerako jardunbide egokiak	↗
Estrategia hedatzen parte hartzen duten eragileak	↗

## 9 Kudeaketa eredia

EcoEuskadi 2020 Eusko Jaurlaritzak bultzatutako herrialde-estrategia bat da. Kontuak ematea Gobernu Batzordeari dagokio, azken batean. Ardura, berriz, guztiona da. Estrategia honek arrakasta izateko, Administrazio osoak parte hartu behar du: Gobernu sail guztiek, haren erakunde publikoek, tokiko agintariek barne, baita zerbitzu publikoak ematen dituztenek, enpresek eta partikularrek ere.

Garapen Jasangarria Euskal administrazio publiko guztiek partekatzen duen lehentasuna da. Beraz, gaitasuna eta pizgarriak handitu behar dira, sail guztiek eta sektore publikoak oro har beraien ekarpenak egiteko Garapen Jasangarrirako Estrategiarako. Hurrengo alderdia benetako bereizgarria da: Gobernu sail guztiek eta haren erakundeek Estrategiari buruzko gogoeten eta aurrerapenen berri emango dute.

Garapen Jasangarrirako Estrategiak Gobernuaren kudeaketa ona izaten laguntzen du, sailen ikuspegia gaitziteza bultzatuz, politiken integrazioa sustatuz eta, ondorioz, Gobernuaren eraginkortasuna hobetuz. Horrez gain, gizarte eragileei beren ekimenak arduraz eta pixkanaka bultzatzeko esparru zabalagoa ematen die.

Estrategiaren jarraipen integrala egin behar da, politika publikoak, enpresen jarduerak eta gizarte zibilaren ekintzak aplikatzearen eragin guztiak kontuan hartuta.

Ezarritako hiru motatako adierazleen azterketak Estrategiaren aurrerapenen ikuspegi osoa emango du.

### Estrategiaren antolaketa eta kudeaketa

*Printzipio gidariak* zehaztean, hau esan dugu:

- «Prozesu hori (garapen jasangarrikoa) gidatzeko, administrazio publikoaren goi instantziak bultzatu behar dituzten politikak eta erakunde lidergoak zuzentzeko oinarritzko zenbait printzipio argi ezarri behar dira».
- «Garapen jasangarria ez da sektorekako beste politika soil bat. Parte hartzen duten sail eta erakunde guztiek politikak hasieratik diseinatze eta gauzatzeko moduan jasangarritasunaren ikuspegia erabiltzea da kontua».
- «Hasierako faseetan hasita, politikak edo ekintza planak prestatzerakoan, parte hartzen duten erakundeek irtenbideak elkartrukatu behar dituzte».

Bestalde, Estrategia honetan aurreikusitako jarduera gehienak sailen eta parte hartzen duten gainerako erakundeen plan estrategikoen bidez bideratuko dira. Ondorioz, aipatutako sailen eta erakundeen jatorrizko ardurarekin bateragarria den koordinazio eta kudeaketa sistema bat sortu behar da. Xede horretarako, hauek bereizi ditugu:

- Estrategia egiteko eta ezartzeko lidergoak: Lehendakariari dagokio, eta eskuordetzearen bidez, Lehendakaritzari.
- **Aurreikusitako jardueren koordinazioa:** Garapen Jasangarriko Bulegoa sortu da. Estrategian ezarritako jasangarritasun irizpideak eta helburuak koordinatzea eta txertatzea izango da bere eginkizuna.
- Jardueren jarraipena: Estrategian jasotako jarduerak neurtu eta haien berri emateko mekanismo bat finkatu da.
- Estrategiaren aldizkako ebaluazioa: Estrategia aldizka ebaluatzeko eta berrikusteko sistema ezarri da.

## EcoEuskadi 2020 Garapen Jasangarriko Estrategiaren lidergoa.

Estrategia integrala eta integratzailea dela-eta (haren jarduera esparrua sail bakoitzetik haratagokoa da, eta administrazio publiko osoa eta herritarrak biltzen ditu), Lehendakartzari dagokio egiteko, inplementatzeko eta bultzatzeko prozesua zuzentzea, haren fase guztietan, eta bereziki, herritarrak eta gizarte eta ekonomia eragileak sentsibilizatzeko eta haiekin komunikatzeko prozesua zuzentzea. Zehazki, ondoko funtzioak beteko ditu:

- Garapen Jasangarriko Estrategia egiteko, berrikusteko eta berriz egiteko prozesuko burua izatea.
- Laguntza teknikoko zerbitzuak ematea sailei Garapen Jasangarriko Bulegoaren bidez.
- Hala adosten diren sail eta erakunde arteko proiektuak bultzatzea eta kudeatzea.
- Estrategian aurreikusitako jarduerak zuzen garatzen direla egiaztatzea.
- Gobernuaren sektorekako estrategiak eta planak Garapen Jasangarriko Estrategian jasotako printzipio gidariekin eta irizpideekin bat datozela jakinaraztea Gobernuari alde aurretik (*ex ante*). Txostenak EcoEuskadi 2020n finkatutako «Oinarrizko ildo estrategiko eta ekonomikoak» faserako nahiz planaren azken izapideen faserako ezarritako jasangarritasun esparrura egokitzen dela berariaz jasoko du. Horretarako, *Jasangarritasun irizpideak sektorekako politiketan eta estrategietan sartzeko gida* dokumentua erabiliko da.

Funtzioak eraginkortasunez egiteko, Lehendakartzak Garapen Jasangarriko Bulegoaren laguntza izango du.

## Garapen Jasangarriko Bulegoa (GJB)

Garapen Jasangarriko Bulegoa (GJB) 2020rako garapen jasangarriko estrategia txertatzeko prozesuaren koordinazio eta laguntza organoa da. Lehendakaria da burua.

GJB honela egituratuta dago, sinplifikazio, sail arteko lankidetzak eta baliabideak aurrezteko irizpideen arabera:

- **Eusko Jaurlaritzaren Sail arteko Batzordea**, parte hartzen duten sailetako sailburuorde banak osatutakoa. Gutxienez urtean behin lan saioak egingo ditu.
- **Erakunde arteko Batzordea**, Eusko Jaurlaritzako, hiru foru aldundietako eta Eudeleko (Euskadiko Udalen Elkarte) ordezkariak osatutakoa. Gutxienez urtean behin lan saioak egingo ditu.
- **Batzorde Teknikoa**, sail arteko batzordean ordezkaturako sail bakoitzeko ordezkari teknikoak osatutakoa. Gutxienez hiru hilean behin saioak egingo dituzte.
- **Jarraipen Batzordea**, Lehendakartzako Koordinazio Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailak eta Garapen Jasangarriaren Bulegoko Idazkaritza Tekniko den Ihebeko zuzendari orokorrak osatutakoa. Hiru hilean behin bilerak egingo dituzte.
- **Idazkaritza Teknikoa**. Idazkaritza Teknikoaren eginkizunak Eusko Jaurlaritzaren Hobe Sozietate Publikoko langileek gauzatuko dituzte. Lehendakartzak berariaz izendatuko du. Eginkizun nagusia baliabide teknikoak ematea izango da, GBBren gainerako organoak zuzentasunez aritzeko, eta kudeaketa jarduerak koordinatzea, Estrategia eraginkortasunez hedatzeko.

Batzorde Teknikoaren kideek egiteko garrantzitsua izango dute bulegoaren eta Gobernuko gainerako sailen arteko komunikazioan, sail eta erakunde arteko batzordeei dagozkien eskumenei kalterik egin gabe. Idazkaritza Teknikoak lankidetzak kanalak ezarriko ditu Batzorde Teknikoaren eta foru aldundietako eta Eudelen organo baliokideen artean, euskal erakunde publikoen artean lan koordinatua lortzeko.

Sail arteko Batzordea eta Erakunde arteko Batzordea sektorekako politiketan jasangarritasun printzipioak sustatzeaz arduratuko dira dagozkien esparruetan. Batzorde Teknikoak eta Idazkaritza Teknikoak egindako

lanak onartzea dagokie. Batzorde horiek garrantzitsutzat hartzen diren berariazko lan taldeak finka ditzakete.

Jaurlaritzak Lehendakariaren Gai Sozioekonomikoetarako Aholku Batzordearen rola indartuko du; izan ere, 2020ko Garapen Jasangarriko Estrategiaren helburuen aurrerapenari buruzko aholkuak emateko eta horiek egiaztatzeko lanak ere emango dizkio kontsulta organo independente horri.

Horrez gain, jasangarritasun ikuspegia duten mekanismoen funtzioa indartuko da, hala nola Udalsarea 21ena (Iraunkortasunerako Udallerrien Euskal Sarea) nahiz Izaiterena (iraunkortasunaren aldeko euskal enpresen elkarte). Halaber, herritarren parte-hartzea ere indartuko da egun abian dauden foro eta prozesuetan.

### Garapen Jasangarriko Estrategiaren jardueren finantzazioa

EcoEuskadi 2020<sup>25</sup> Estrategia *integrazio plataforma* denez, jasotako ekintzak sailek eta haiek egiten edo Estrategian ezarritako zuzentarauen arabera gauzatu behar dituzten eskumeneko organoek finantzatuko dituzte. **Garapen jasangarriko printzipioak eta helburuak sektorekako plangintza eta kudeaketa politikoan integratzeko, beraz, ez da aurrekontu zuzkidura osagarri behar.** Garapen Jasangarriko Estrategiak ez du ekartzen jardura berririk, *hasiera batean* behintzat; aitzitik, gauzak beste era batera egingo dira, eraginaren azterketaren arabera, interes taldeen partaidetza kontuan hartuz, eta batez ere, beste sail eta erakunde batzuekin sinergiak garatuz.

Gobernuak lider izateko gaitasuna indartuko du sail eta erakundeen artean; langile publikoei garapen jasangarriaren arloan prestakuntza emanez, esaterako. Finantzazioa aurrekontu arruntetan barne hartu behar da. Gobernuaren gainerako sail eta erakundeak arduratuko dira finantza plangintzan beharrezkoak diren finantza baliabideak sartzen, Estrategia finkatzeko.

---

<sup>25</sup> EcoEuskadi 2020 Estrategiarako finkatutako egitekoa Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako administrazio publikoen sektorekako politiken integrazio plataforma izatea da, herritarrek parte-hartze aktiboa duten herrialdearen proiektu bat gauzatzeko. Horrela, zenbait helburu, arau eta printzipio erabakiko dira, ekonomia, gizarte eta ingurumen jasangarritasuna berma ditzaten. Bestalde, erreferentziako mugarririk ezarriko dira, egindako aurrerapenak aldizka ebaluatzeko.

### Jarraipena eta ebaluazioa

EcoEuskadi 2020 Estrategia onartutakoan, exekuzio, jarraipen, ebaluazio eta etengabeko hobekuntzako prozedura hasiko da.

Jarraipen tresna moduan hauek proposatzen dira:

- **Garapen iraunkorrari buruzko urteko txostena.** GJBk urteko txostena egingo du urtero. Txosten horretan, Estrategian barne hartutako jardueren inplementazioaren aurrerapen maila ebaluatuko du, gauzatzeari buruzko ikuspegia emateko, eta adierazleen emaitzekin alderatuz, haien egokitasun maila ebaluatzeko. Txostenak *jardunbide egokitzat* hartzen direnak nabarmenduko ditu eta Estrategia inplementatzean aurkitzen diren desbideratzeen arrazoiei buruzko balorazioa barne hartuko du. Txostena edonoren esku egongo da Interneten, eta oinarri moduan balioko du, administrazio barruko nahiz kanpoko eragile nagusiek parte hartzeko. Txostenak 2020 estrategiaren **aginte koadroan** aipatzen diren adierazleen jardueraren ebaluazioa jasoko du. Txostena Gobernu Batzordeari helaraziko zaio, urteko Garapen Jasangarriari buruzko Foroan aurkeztu aurretik. Txosten horretan, jasangarritasun irizpideek sektorekako sailen politketan izandako **integrazio** mailari buruzko ebaluazioaren ondorioak ere jasoko dira, dagokion eragin azterketa, eragozpenen azterketa eta hobetzeko proposamenak barne. Atal hori sailen laguntzaz egingo da.
- Bi urtez behin, herritarrei oinarri homogeneousi buruzko inkesta egingo zaie (**Jasangarritasunari buruzko barometroa**<sup>26</sup>) iritzi publikoak jasangarritasun integralaren alderdi nagusiei eta egindako aurrerapenen hautemate sozialari buruz izandako bilakaera ebaluatzeko.

Estrategia 2015. urtean berrikusiko du GJBk eta Gobernu Batzordeak onartuko du, sailen estrategiak berrikusteko prozesuak hasi aurretik. Horrela, ondorioak kontuan hartuko dira prozesu horietan. Estrategia berrikusi baino lehen, Eusko Jaurlaritzaren organo independente batek kanpoko ebaluazioa egingo du, strategiaren birformulazioak ebaluazio hau aintzat har dezan, lehendabizikoz egin zenean erabilitako informazio, gardentasun, erakunde lankidetzeta eta herritarren parte-hartze irizpide berberak erabilita, noski.

### Komunikazioa eta parte-hartzea

EcoEuskadi 2020 Estrategia egiteko prozesuaren aberastasunetako bat erakunde, gizarte eta ekonomia eragile ugariaren partaidetza izan da; bereziki, gazteen eta, oro har, herritarren partaidetza, haien ikuspegiak eta jarduteko proposamenak ekarri dituztelako. Hortaz, bi norabideko komunikazio fluxu horri eutsi behar zaio, planteatutako jarraipen, ebaluazio eta berrikuspen jarduerari dagokienez.

Parte hartzeko eta jarraipena egiteko berariazko tresna moduan, urtero **Garapen Jasangarriari buruzko Foroa** egingo da, Estrategia ezarri duten administrazio barruko nahiz kanpoko eragileen informazio, alderatze eta partaidetza gune moduan, bestelako jardueren artean Estrategiaren urteko ebaluazio txostenak eztabaidatzeko eta etorkizuneko berrikustekin lotura jarraitua izateko.

Gobernuaren komunikazio politikak, GJBen laguntzaz, jasangarritasun politika eta jarduerak izango ditu ardatz iraunkor moduan, herritarren komunikazio eta sentsibilizazio lerroa bermatzeko une oro.

<sup>26</sup> Barometro horren lehenengo dokumentua «**Bizi kalitatea eta jasangarritasuna**» inkesta da. Inkesta eskuragarri dago <http://www.ecoeuskadi2020.net/eu//index.php> web gunean.

## 10 Sektorekako politiketan jasangarritasun irizpideak txertatzeko jarraibideak.

Garapen jasangarria ez da sektorekako politikatzat bakarrik hartu behar, baizik eta sektorekako politika guztietan txertatu behar den kontzeptutzat, administrazioaren funtzioaren nahitazeko printzipio gidarizat. Beraz, garapen jasangarria hasieratik txertatu behar da plangintzan eta Eusko Jaurlaritzaren, tokiko administrazioaren eta haren erakundeen kudeaketan dauden prozesuetan. Jarraian jasotzen diren garapen jasangarriko politikarako irizpideak hainbat dokumentuetan oinarritzen dira, hala nola Europa 2020 Estrategian, eta Nazio Batuek eta ELGEk egindako nazioarteko beste dokumentu batzuetan ere.

Jarraian, labor zehazten dira euskal administrazio publikoaren politiketan jasangarritasun irizpideak txertatzeko irizpideak (planak, programak, estrategiak eta abar).

Garapen Jasangarritasuneko Estrategian **printzipio** hauek jaso dira:

- P.1. Belaunaldi barruko eta arteko erantzukizun printzipioa. Horrela, kargak ez zaizkie beste talde edo belaunaldi batzuei transferituko, ebidentzia zientifikorik ez dagoen kasuetan zuhurtasun irizpideari jarraituz.
- P.2. Garapen jasangarriaren ikuspegia politika guztien muinean sartzea, sailen eta sektorekako politika esparruen artean koherentzia eta koordinazioa hobetzeko (gardentasuna eta partaidetza, hasierako faseetatik).
- P.3. Politika bakoitzaren ondorioak modu orekatuan kontuan hartzea ekonomia, gizarte eta ingurumen dimentsioan. Horrek, laburtuta, beste hauek ekartzen ditu:
  - o Ingurumen mugen barruan egotea.
  - o Ekonomia jasangarria lortzea.
  - o Bidezko gizarte sortzea.
- P.4. Erantzukidetasuna, lankidetzat bultzatzea, administrazio publikoaren hainbat mailen artean garapen jasangarria garatzeko gizarte eragileekin eta herritarrekin oro har (governantza ona).

Politikak egiterakoan, adierazitako printzipioak sakondu behar dira; politika bakoitzak ekonomia, gizarte eta ingurumen dimentsioan dituen ondorioak orekatzeari buruzkoak, bereziki. Horregatik, printzipio horiek emaitzei begiratzen dieten irizpideekin osatu behar dira. Erantsitako laukian, garapen jasangarriaren hiru ardatzen ikuspegi holistikoa lortzeko 15 irizpide ageri dira.

## Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia 2020

### 1. taula. Ekonomia, gizarte eta ingurumen arloko garapen jasangarriko irizpideak.

<b>EKONOMIA JASANGARRIKO IRIZPIDEAK:</b> <ol style="list-style-type: none"><li>1. Enplegua eta errentak beharren arabera sortzea, eremu geografikoen eta gizarte taldeen artean modu onargarrian banatzen direla bermatuz.</li><li>2. Giza eta gizarte kapitalean oinarritutako ekoizpen kapitala hobetzea, baldintza kuantitatibo eta kualitatiboaren arabera.</li><li>3. Ekonomiaren lehiakortasuna eta berritzeko ahalmena handitzea.</li><li>4. Faktoreen eskasiari eta eragileei buruzko seinaleak egoki barne hartzen dituzten merkatu prezioak, baloratzeko tresna nagusi gisa.</li><li>5. Kudeaketa publikoa, jardueren karga etorkizuneko belaunaldiari eskualdatu gabe (zorraren bidez edo balioa galduz).</li></ol>
<b>INGURUMEN JASANGARRIKO IRIZPIDEAK:</b> <ol style="list-style-type: none"><li>6. Natur eremuei eta bioaniztasunari eustea.</li><li>7. Dauden baliabide berriztagarriak edo birsortutakoak baino gutxiago erabiltzea.</li><li>8. Berriztagarriak ez diren baliabideak baliabide berriztagarrien garapen mailaren azpitik erabiltzea.</li><li>9. Ingurune naturalean eta pertsonengan eragina duen kutsadurak maila kaltegarrien azpitik egon behar du.</li><li>10. Ingurumen hondamendien eragina saihestea edo txikiagotzea, eta istripu arriskuak kalteak iraunkorrak ez badira edo belaunaldi baten aldia gaintzen ez badute bakarrik hartzea bere gain.</li></ol>
<b>GIZARTE JASANGARRIKO IRIZPIDEAK:</b> <ol style="list-style-type: none"><li>11. Gizakien osasuna eta segurtasuna bultzatzea eta babestea.</li><li>12. Herritarrei hezkuntza eta norbanakoaren garapena bermatzea.</li><li>13. Kultura sustatzea eta ondare historikoari eta gizarte baliabide eta balioei eustea eta garatzea, gizarte kapital orokorraren zati moduan.</li><li>14. Berdintasun printzipioa babestea legearen aurrean, segurtasun juridikoa eta aukera berdintasuna, eta bereziki, genero berdintasuneko printzipioak, gutxiengoen eskubideak eta babesa eta giza eskubideak errespetatzea.</li><li>15. Belaunaldien eta munduko eskualdeen artean solidaritatea sustatzea.</li></ol>

Planteamendu teorikoa soilik eginez, ekonomia, natura eta gizarte baliabideek inoiz aldatu behar ez den kapital stocka osatzen dutela pentsa liteke. Praktikan, trukeak gertatzen dira kapital mota batzuen eta beste batzuen artean. Horrela, onargarria izan daiteke, muga batzuen barruan, esaterako, ingurumen balioa galtzea ekonomia edo gizarte balioaren igoeraren trukean. Transferentzia horiek onargarriak izateko, ebaluazio prozesuak gardena izan behar du. Horrez gain, ezin da sistematikoki dimentsioetako baten kontra egin, eta oro har, balioaren igoera garbia gertatu behar da.

Hala ere, ingurumen dimentsioaren alderdi asko ezin dira ordezkatu, eta galtzen badira, ezin izango dira orekatu beste bi dimentsioetan egindako hobekuntzekin. Klimaren egonkortasuna, bioaniztasuna, lurren emankortasuna edo ozono geruza ditugu horren adibideak. Oro har, ezin da jarduerarik egin ingurune naturalean, etorkizuneko belaunaldien jarduteko gaitasuna arriskuan jartzen duten galera konponezinak eragiten badituzte.

Baina dimentsioak **ordezkatzeko gaitasunean mugak** daude. Hauek, besteak beste:

- Gizarte, ekonomia edo ingurumen arloetan gutxieneko maila batzuk errespetatzea (esaterako, isurien arloan derrigor bete beharreko lege arauak, legezko arauetan oraindik jasotzen ez diren irizpide zientifikoak, adibidez berotze orokorra, eskubide soziopolitikoak, aukera berdintasuna, gutxieneko soldata, bizi baldintza duinak, gizarte segurantzak edo giza eskubideak bermatzea).
- **Kalte itzulezinak** eragiten dituzten garapenak edo eraginak saihestu behar dira.
- Ezin dira etorkizuneko belaunaldien bizkar irabazirik ekartzen ez duten kargak utzi.
- Ezin da esportatu ingurumenaren kutsadura, ez eta gizarte arazoak beste herrialde edo eskualde batzuetara.
- Kontu handia izan behar da nahikoa ezagutza ez izateagatik **zalantzak** edo arriskuak sortzen dituzten egoerekin, gertatzeko aukera txikia izan arren egin dezaketen kalte oso handia bada.
- Dagoeneko jasangarritasun arazo larriak dituzten eremuetan edo arazoak okerragotu daitezkeenetan hondatze jarraitua gertatzea saihestu behar da.




## Jasangarritasun printzipioak txertatzea

Jasangarritasunaren printzipioak administrazioaren sail eta erakunde bakoitzean txertatzerakoan, lau esparru bereiz daitezke:

- o **Politiken** esparrua.
- o Sailaren **governantzaren** eta **lidergoaren** esparrua.
- o Sailean lan egiten duten **pertsona** guztien esparrua.
- o Sailaren **kudeaketa operatiboaren** esparrua (erosketak eta eskuratzeak, mantentzea eta abar).

Garapen jasangarrirako strategiaren berariazko testuinguruan, esparrurik garrantzitsuena politikak egiteko modua da. Hala ere, plangintzen koherentziak, garapen jasangarrirako printzipioek proposatutako beste hiru antolaketa esparruetan ere eragitea eskatzen du.



### Sailaren politika eta programetan:

Adierazitako printzipioek sailaren politiketan nahiz erabaki garrantzitsuak hartzeko moduan islatuta geratu behar dute. Zehazki, hauetan islatu behar dute:

- **Helburua eta nahia.** Sailaren politikak Gobernuaren jasangarritasunerako strategiaren helburuak lortzen nola laguntzen duten islatu behar dute.
- **Jarduera mekanismoak** (politika egiteko eta aplikatzeko zikloaren fase bakoitzean). Programa edo politika baten bizi zikloaren fase bakoitzean, sailak jasangarritasun irizpideak erabiltzen direla ziurtatu behar du. Hartarako, egindako prozedurak, gida, eraginak neurtzeko tresnak eta bestelakoak behar dira.
- **Erabakiak hartzea.** Programa eta politika garrantzitsuetan hartutako erabakietan (aukeren artean), garapen jasangarriaren printzipioak kontuan hartu behar dira. Hori egin dela egiaztatu behar da, gero ebaluatzeko.
- **Betearaztea.** Programak betearazterakoan, praktikan, garapen jasangarriko printzipioak kontuan hartu direla islatu behar da. Betearazte prozesuek interes taldeekin izandako elkarrekintza instantziak barne hartu behar dituzte, emaitzen jasangarritasuna bermatzeko.
- **Emaitzak eta eragina.** Programa garrantzitsuen emaitzek eta eraginek finkatutako jasangarritasun helburuak lortzen benetan laguntzen duten ebaluatu behar da. Ebaluatzeko, adierazleak finkatu behar dira alde aurretik, eta barne edo kanpo ebaluazio prozesuak egin behar dira.

### Sailaren lidergo eta gobernantzan:

Sailaren lidergoak eta gobernantza ereduak garapen jasangarriko printzipioak bultzatu behar dituzte. Zehazki, hauetan islatu behar dute:

- **Lidergoa.** Saileko goi karguek lidergo eraginkorra izan behar dute, haien jardueretan jasangarritasun printzipio eta helburuak zabalduz. Horrela, jardueretan eta saileko langileen hautematean islatu behar dute.
- **Helburuak.** Jasangarritasuneranzko aurrerapausoak eta Gobernuaren jasangarritasunerako estrategia orokorrean egindako ekarpena agertuko dituzten helburu eta lehentasun argiek islatuko dute lidergoa.
- **Erabakiak eta erantzukizunak hartzea.** Sailak eginkizunen egitura argia izan behar du. Egitura horretan, erantzukizunak finkatuta egongo dira, politikak entregatzeko prozesuek garapen jasangarriko printzipioen arabera helburuak jasotzen dituztela bermatzeko.
- **Jarraipena eta ebaluazioa.** Helburu argiak daudela politiken jarraipenean ere islatuko da. Hala, betearazte prozesuaren fase egokietan dagozkien txostenen bidez lortutako emaitzak eta eraginak ebaluatu ahal izango dira.
- **Interes taldeen inplikazioa.** Jasangarritasun printzipioek interes taldeen partaidetza aktiboa bilatzea eta beste sail eta erakunde publiko, sektoreko elkarte, enpresa, hirugarren sektoreko erakunde eta, oro har, herritarrekin elkarlanean aritzea eskatzen dute. Beraz, horrek guztiak sailaren jardueretan eta haren zuzendariak jardunaldi, foro, komunikazio, emandako informazio eta bestelakoen bidez interes taldeekin harremanetan jartzeko moduan isla izan behar du.

### Saileko pertsonak:

Saileko langileek ohituta egoteaz eta nahikoa ezagutza izateaz gain, eskatutako trebetasun edo gaitasunak eta pizgarri egokiak ere izan behar dituzte beren lana garapen jasangarriko printzipioekin bat etortzeko.

Zehazki, hauetan islatu behar dute:

- **Ezagutza.** Sailean lan egiten duten pertsonak GJko printzipioak ulertu eta eguneroko lanetan nola aplikatu behar diren jakin behar dute.
- **Eskumenak.** Lanean eraginkorrak izateko behar dituzten eskumenak, gaitasunak eta tresnak izatea, garapen jasangarriko printzipioekin bat etorrita. Garapen jasangarriko printzipioak lanean eta bizitza pertsonalean hartzen dien erabakietan erabiltzea (esate baterako, lekualdaketetan, eta ondasunak eta zerbitzuak eskuratzerakoan eta hornitzaileak kudeatzerakoan).
- **Langile politika.** Gizarte, ekonomia eta ingurumen eraginak kontuan hartu behar ditu. Langileak hautatzerakoan, aukera berdinak emateko konpromisoa bete behar du.

### Sailaren eragiketa eta erosketen kudeaketa.

Sailak bere azpiegiturak kudeatu eta eragiketarako garatu behar ditu; betiere, garapen jasangarriko printzipioekin bat etorritik. Zehazki, hauetan islatu behar dute:

- **Mekanismo operatiboak.**
  - Ingurumena kudeatzeko sistemei dagokienez.
  - Karbono isuriak sortzeari dagokionez.
  - Jarduerak inguruan duten gizarte eta ekonomia eraginari dagokionez.
  - Kontratuen kudeaketari dagokionez.

- **Jardueren eragina**

Eraginei buruzko informazioa biltzeko sistema sendoa izan behar da. Eraginen artean ditugu enplegu sorkuntza, kontsumo elektrikoa, ur kontsumoa, karbono isuriak eta abar. Halaber, adierazle multzo bat finkatu behar da ebaluazioa eta jarraipena egiteko.

- **Erosketen kudeaketa**

Sailak bere ondasun eta zerbitzuen erosketak eta kontratazioak kudeatu behar ditu; betiere, garapen jasangarriko printzipioekin bat etorritik. Zehazki, hauetan islatu behar dute:

- Erosketa eta kontratazio prozedurak.
- Hornitzaileekiko eta hornidura katearekiko harremana.
- Erosketen eragina.

# Eranskinak

1. Gobernuaren planak eta EcoEuskadi 2020ko helburu estrategikoak bat etortzea
2. EcoEuskadi 2020ko helburuak eta foru aldundietako Garapen Jasangarriko Estrategiak bat etortzea
3. Partaidetza prozesuaren laburpena.
4. Herritarrak eta garapen jasangarria

## 1. eranskina. Gobernuaren planak eta EcoEuskadi 2020ko helburu estrategikoak bat etortzea

Euskadiren Garapen Jasangarriko Estrategiak jarduera jarraibideak eta ildoak zehazten ditu, baina jarduera zehatzen interpretazioa sailei eta sailtako erakundeei dagokie. Horiek beren jarduera testuinguruan sartzen eta zuzentzen duten estrategia eta planak dituzte, baina horiek EcoEuskadi 2020n jasotako helburuekin bat etorri behar dira.

Eranskin honetan legealdi honetan indarrean dauden plan eta ekimen garrantzitsuak jasotzen dira, eta argi adierazten da horien helburuak eta Garapen Jasangarriko Estrategiarenak bat datozela. Batzuen eta besteen formulazioen artean harreman handia dagoela ikusteak harritu gaitu. Hori gertatzen da aldi berean egin zirelako, baina baita *jasangarritasunaren kultura* aspaldi barneratu dugulako ere, behintzat planteamendu estrategikoen mailan. Horregatik du garrantzi handia Garapen Jasangarriko Estrategiaren kudeaketa ereduak –planen jasangarritasuna kontrolatzeko eta ebaluatzeko mekanika zehatza zehazten du–, baita horren laguntza eta osagarri den *jasangarritasun printzipioak sartzeko jarraibideak* dokumentuak ere.

Beharrezkoa da berriro ere esatea garapen jasangarria ez dela ingurumen jasangarritasunaren ikuspuntua garapen ekonomikoko programetan txertatzera mugatzen. Hori bezain egiazkoa da kontrakoa ere; alegia, ingurumen jasangarritasuneko jarduerak sortzen duten eragin ekonomikoa kontuan hartu behar dutela. Bi kasuetan ohikoa izaten da ekonomia eta ingurumeneko jardueretan **gizarte** dimentsioa *ahaztea*. Dimentsio hirukoitz hori ezin da inoiz ahaztu politikak formulatzerakoan eta proiektu eta ekintza garrantzitsuak diseinatzerakoan.

Elkarreragin hori dela eta, plan edo estrategia zehatz bat jasangarria den edo ez den modu isolatuan eta termino absolutuetan iriztea ez da gomendagarria. Hobe da balorazioa termino erlatibo edo konparatiboetan egitea, hau da, aukera bat beste bat baino jasangarriagoa den edo hain jasangarria ez den baloratzea eta zergatia ematea. Oso adierazgarria izaten da *ezer ez egitearen* aukerarekin kontrastatzea.

Jarraian, EcoEuskadi 2020ren helburu estrategikoen eta Eusko Jaurlaritzaren plan eta ekimen estrategiko nagusien artean dagoen harremana jasotzen da, baita horietako bakoitzaren garapen egoera ere.

<b>1. helburu estrategikoa.</b> <b>Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea.</b>
<b>Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo saila</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• 2010-2013 aldirako enpresa Lehiakortasunaren Plana. Gauzatzen ari da.</li><li>• 2020. urteko Euskadiko Energia Estrategia – 3E 2020. Egiteko prozesua aurreratuta dago.</li><li>• Euskadi Informazioaren Gizartean Plana 2015. Egiteko prozesua aurreratuta dago.</li></ul> <b>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• 2011-2014 aldirako Unibertsitate Plana. Gauzatzen ari da.</li><li>• 2011/2014 aldirako III. Lanbide Heziketako Plana. Gauzatzen ari da.</li></ul> <b>Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Euskadiko nekazaritza sektorearen lehiakortasun plana Egiteko prozesua aurreratuta dago.</li></ul> <b>Lehendakaritza</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• 2015erako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana. Egiteko prozesua aurreratuta dago.</li><li>• 2010-2020 aldirako Kanpo Ekintzako Esparru Estrategikoa. Egiteko prozesua aurreratuta dago. Ez da sartzen IX. legegintzaldiko planen artean, ekintza nabarmenen artean baizik.</li></ul>

<b>2. helburu estrategikoa.</b> Euskadi erabat integratzailea den eta enplegu, hezkuntza, prebentzio zein elkartasun arloetan kohesionatuta dagoen herrialde gisa sendotzea.
<b>Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• EAEn arreta soziosanitarioa emateko estrategiak. 2011ko otsailean onartu zen, eta 2005-2008 aldikoa ordezkatzeko duen arreta soziosanitarioa emateko balizko plan estrategikoaren oinarri da. Ez da sartzen IX. legegintzaldiko planen egutegian.</li><li>• 2011-2013 aldirako Enpleguaren Euskal Estrategia. Egiteko prozesuan dago.</li><li>• 2011-2013 aldirako inmigrazioaren, herritarren eta kulturen arteko bizikidetzaren III. Plana. Egiteko prozesua aurreratuta dago.</li><li>• 2011-2014 aldirako EAEko gizarte zerbitzuen plan estrategikoa. Gauzatzen ari da.</li><li>• Familiei laguntzeko III. erakunde arteko plana. Egiteko prozesua aurreratuta dago.</li><li>• 2011/2014 aldirako Euskal Autonomia Erkidegoko Laneko Segurtasun eta Osasunaren II. Plan Estrategikoa. Gauzatzen ari da.</li></ul> <b>Osasun eta Kontsumo Saila</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Euskadin kronikotasunaren erronkari aurre egiteko estrategiak. Gauzatzen ari da. Ez da sartzen IX. legegintzaldiko planen artean, <i>ekintza nabarmenen</i> artean baizik.</li><li>• 2012-2020 aldirako Euskal Osasun Plana. Egiteko prozesuan dago.</li></ul> <b>Kultura Saila</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• III. Gazte Plana 2020. Egiteko prozesua aurreratuta dago. Ez da sartzen IX. Legegintzaldiko planen egutegian.</li></ul>

<b>3. helburu estrategikoa.</b> <b>Gizarte babeseko sistemak indartzea, garapen harmonikoa, osasungarria eta bidezkoa bermatzen jarrai dezaten.</b>
<b>Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• 2011-2014 aldirako EAEko gizarte zerbitzuen plan estrategikoa. Gauzatzen ari da.</li></ul> <b>Herrizaingo saila</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Genero indarkeriaren aurkako plana. Gauzatzen ari da.</li></ul> <b>Lehendakaritza</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• 2010-2013 aldirako Gizon eta Emakumeen arteko berdintasunerako V. Plana. Gauzatzen ari da.</li></ul>

<b>4. helburu estrategikoa.</b> Gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea, eta horretarako, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatuz.
<b>Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Mugikortasun Jasangarriaren plan gidaria. 2020. urtea. Gauzatzen ari da.</li></ul> <b>Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila</b> <ul style="list-style-type: none"><li>• Lurraldearen Antolamendurako Artezpideak. 2010ean berrikusiak. Ez dira sartzen IX. legegintzaldiko planen egutegian.</li><li>• 2011-2014 aldirako Ingurumen Esparru Programa. Gauzatzen ari da.</li><li>• 2007-2013 aldirako Landa Garapen Jasangarriko Programa. Gauzatzen ari da.</li><li>• 2011-2013 aldirako EAEko Kostaldea Garatzeko Programa. Egiteko prozesuan dago. Ez da sartzen IX. Legegintzaldiko planen egutegian.</li><li>• 2010-2013 aldirako Euskadiko Industriaren eta Elikagaien Kalitatearen Plan Estrategikoa. Gauzatzen ari da. Ez da sartzen IX. Legegintzaldiko planen egutegian.</li></ul>

<p><b>5. helburu estrategikoa.</b> <i>Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzea, berotegi efektuko gas isuriak eta klima aldaketaren eraginak murriztea.</i></p> <p><b>Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 3E Energia Estrategia 2020. Egiteko prozesua aurreratuta dago.</li> <li>• 2010-2013 aldirako Enpresa Lehiakortasunaren Plana. Gauzatzen ari da.</li> </ul> <p><b>Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Klima Aldaketaren Euskal Plana 2020. Egiteko prozesuan dago.</li> <li>• 2011-2014 aldirako Ingurumen Esparru Programa. Gauzatzen ari da.</li> </ul> <p><b>Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2010-2013 aldirako etxebizitzaren eta hiri berrikuntzaren plan zuzentzailea. Gauzatzen ari da.</li> <li>• Mugikortasun Jasangarriaren plan gidaria. 2020. urtea. Egiteko prozesuan dago.</li> </ul>
<p><b>6. helburu estrategikoa.</b> <i>Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratuko eredu jasangarriago bat garatzea.</i></p> <p><b>Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Mugikortasun Jasangarriaren plan gidaria. 2020. urtea. Egiteko prozesuan dago.</li> <li>• Tren eta tranbia bidezko garraioari buruzko 2020ko Euskal Trenbide Plana. Egiteko prozesuan dago.</li> <li>• Sare Intermodalaren eta Logistikoaren LPSa. Egiteko prozesuan dago. Ez dago IX. legealdiko planen artean, baina <i>ekintza nabarmena</i> da.</li> <li>• Euskadiko Aireportuen Plana. Egiteko prozesuan dago. Ez dago IX. legealdiko planen artean, baina <i>ekintza nabarmena</i> da.</li> </ul> <p><b>Herrizaingo saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2010-2014 aldirako Bide Segurtasuneko Plan Estrategikoa. Gauzatzen ari da. Ez dago IX. legealdiko planen artean, baina <i>ekintza nabarmena</i> da.</li> </ul>
<p><b>7. helburu estrategikoa.</b> <i>Kalitatezko hezkuntza eta balio sistema sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta, hezkuntza zein trebakuntza edukien aldetik, lan merkatuak eta gizarteak bizitza osoan zehar eskatzen dituzten gaitasunetara egokitua, jasangarritasuna arlo guztietan barne hartuta.</i></p> <p><b>Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2011-2013 aldirako Enpleguaren Euskal Estrategia. Egiteko prozesuan dago.</li> <li>• 2008-2011 aldirako Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren plan estrategikoa eta zuzentzailea. Gauzatzen ari da. Ez da sartzen IX. Legegintzaldiko planen egutegian.</li> </ul> <p><b>Lehendakaritza</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2010-2011 aldirako bizikidetzaren demokratikoko eta indarkeria deslegitimatzeko plana. Gauzatzen ari da.</li> </ul> <p><b>Kultura Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• III. Gazte Plana 2020. Egiteko prozesua aurreratuta dago.</li> <li>• Kulturaren aldeko Herritartasun Kontratua. Egiteko prozesuan dago.</li> </ul> <p><b>Lehendakaritza</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Genero indarkeriaren aurka jarduteko Eusko Jaurlaritzaren plana. Gauzatzen ari da.</li> <li>• 2010-2013 aldirako Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasunerako V. Plana. Gauzatzen ari da.</li> </ul> <p><b>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2011-2014 aldirako III. Lanbide Heziketako Plana. Gauzatzen ari da.</li> </ul> <p><b>Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2011-2014 aldirako Ingurumen Esparru Programa. Gauzatzen ari da.</li> </ul>
<p><b>8. helburu estrategikoa.</b> <i>Berritzailea, eraginkorra, abegitsua eta herritarrentzat gardena den administrazio publiko bat ezartzea.</i></p> <p>Justizia eta Herri Administrazio Saila</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2011-2013 aldirako Berrikuntza Publikoaren eta Administrazio Elektronikoaren Plana. Gauzatzen ari da.</li> </ul> <p>Lehendakaritza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana. Egiteko prozesua aurreratuta dago.</li> </ul>
<p><b>9. helburu estrategikoa.</b> <i>Euskadik Milurtekoko Helburuak betetzen, eta, oro har, herrialde txiroenek garapen jasangarria lor dezaten laguntzea.</i></p> <p><b>Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila</b></p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• 2008-2011 aldirako Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren plan estrategikoa eta zuzentzailea. Gauzatzen ari da. Ez da sartzen IX. Legegintzaldiko planen egutegian. Lehendakaritzaren mende dagoen Garapenerako Lankidetzaren Agentzia jarri da martxan.</li> </ul>

## 2. eranskina. EcoEuskadi 2020ko helburuak eta foru aldundietako Garapen Jasangarriko Estrategiak bat etortzea

Hiru foru aldundiek Garapen Jasangarriko Estrategiak dituzte, eta horiek eta EcoEuskadi 2020ren jarraibideek bat egiten dutela argi ikus daiteke. Egon badaude, hala ere, ezberdintasunak planteamenduan eta irismenean:

- ✓ EcoEuskadi 2020k Euskadiko garapen eredu sozioekonomikoaren *jasanezintasun arriskuak* identifikatu ditu, ondoren, *erronkak* eta *jasangarritasun gakoak* identifikatzeko. Hortik aurrera jarduera ildoetan garatzen diren 9 helburu estrategiko biltzen dituen *ikuspuntua* definitu da.
- ✓ Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiek (2011-2015 aldirako Arabako Lurralde Historikorako Garapen Jasangarriko Plan Estrategikoa eta Bizkaia 21 Egitasmoa 2011-2016) Aalborgeko Konpromisoak izenekoan inguruan osatu dituzten beren estrategiak, eta horien sinatzaile dira. Konpromiso horietatik zenbait ildo estrategiko garatzen dira, eta ildo bakoitza programa eta jardueretan edo helburu eta jardueretan gauzatzen da. Hortaz, egitura antzekoa da. Bi estrategiak foru erakundearen beraren sailetarako eginda daude<sup>27</sup> eta epe ertainerako (2015 eta 2016 hurrenez hurren) pentsatuta daude.
- ✓ Bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiaren strategiaren ideia *etorkizun komuna batera eraikitzea* da. Gipuzkoa Estrategia 2020-2030, lurralderako nahi den garapen ereduari buruzko hausnarketa orokor gisa, udalekin ahaidetza berezirik izan gabe edo foru sailen eskumen esparrura mugatu gabe. Ondorioz, ikuspegi bat formulatzen da eta 6 eraldaketa handi sustatzen dira. 2030erako dago pentsatuta, 2020. urteari dagozkion helburuak baldin baditu ere.

Jarraian, aipatutako estrategien eta EcoEuskadi 2020ren helburuen arteko bat etortzea laburtzen da<sup>28</sup>.

Batetik, 1. taulan (EcoEuskadi 2020ren helburuen eta Araba eta Bizkaiko Foru Aldundien Konpromisoen arteko harremana) Aalborgeko 10 Konpromisoak, Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundien strategiaren abiapuntu direnak, eta EcoEuskadi 2020ren helburu estrategikoak erlazionatzen dira. 3. eta 7. helburuak ez datoz bat zuzenean konpromisoetako batekin ere, bi estrategiek horietarako bide ematen duten jarduera ildoak badituzten arren.

<sup>27</sup> Arabako estrategiak helburu bikoitza du; batetik, kontzeptua erakundearen barruan txertatzea, eta bestetik, Aalborgeko Konpromisoak bete nahi dituztenei laguntza ematea. Bizkaia 21 Programak, berriz, jasangarritasuna foru sailetan sartzen laguntzeko helburua du, eta gainerako euskal administrazio publikoekin, eta zehazki, udal administrazioarekin lankidetzan aritzea beharrezkoa dela azpimarratzen du.

<sup>28</sup> Jarduera ildoan trazabilitatea zehatzago aztertzen duen dokumentu luzea badago eskuragarri, eta horrek aipatutako dokumentuen arteko sinergiak jartzen ditu agerian.



**1. taula. EcoEuskadi 2020ren helburuen eta Araba eta Bizkaiko Foru Aldundien Konpromisoen arteko harremana**

EcoEuskadi 2020	Araba 2011-2015 / Bizkaia 2011-2016
1. helburua. Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea	8. Tokiko ekonomia bizia sortzea eta bermatzea, enplegua ingurumenari kalte egin gabe sustatuko duena.
2. helburua. Euskadi erabat integratzailea den eta enplegu, hezkuntza, prebentzio zein elkartasun arloetan kohesionatuta dagoen herrialde gisa sendotzea	7. Herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea. 9. Erkidego integratzaile eta solidarioak bermatzea
3. helburua. Gizarte babesekeo sistemak indartzea, garapen harmonikoa, osasungarria eta bidezkoa bermatzen jarrai dezaten.	
4. helburua. Gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatuta.	3. Ondasun natural komunak babestu eta gordetzeko eta horietara ekitatez jotzeko erantzukizun osoa hartzea.
5. helburua. Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzea, berotegi efektuko gas isuriak murriztea eta klima aldaketaren eraginak minimizatzea.	4. Baliabideak arduraz eta modu eraginkorrean erabiltzea eta kontsumo zein ekoizpen iraunkorra sustatzea. 5. Hiria diseinatzean eta plangintzak egitean estrategikoki jokatzeko, eta baita ingurumenarekin, gizartearekin, ekonomiarekin, osasunarekin eta kulturarekin lotutako gaiak denon onerako bideratzea.
6. helburua. Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratuko eredu jasangarriago bat garatzea	6. Mugikortasun jasangarriko ereduak irmoki sustatzea, eta garraioaren, osasunaren eta ingurumenaren elkarmendekotasuna aitortzea
7. helburua. Kalitatezko hezkuntza eta balio sistema sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta, hezkuntza zein trebakuntza edukien aldetik, lan merkatuak eta gizarteak bizitza osoan zehar eskatzen dituzten gaitasunetara egokitua, jasangarritasuna arlo guztietan barne hartuta.	
8. helburua. Berritzailea, eraginkorra, abegitsua eta herritarrentzat gardena den administrazio publiko bat ezartzea.	1. Erabakiak hartzeko orduan parte-hartze handiagoko prozedura demokratikoak bultzatzea. 2. Kudeaketa programa eraginkorrak osatzea, diseinutik ebaluaziora, ezarpena barne.
9. helburua. Euskadik Milurtekoko Helburuak betetzen, eta, oro har, herrialde txiroeneko garapen jasangarria lor dezaten laguntzea.	10. Bakerako, justiziarako, berdintasunerako, garapen iraunkorrerako eta klima babesteko daukagun erantzukizuna geuregan hartzea.

Bestalde, 2. taulan EcoEuskadi 2020ren helburuak eta Gipuzkoa Estrategia 2030en *eraldaketak* jartzen dira ondoz ondo. Argi ikus daitekeenez, Gipuzkoak jasotako eraldaketetako batzuek EcoEuskadi 2020ren zenbait helburu hartzen dituzte. Berariaz estalita gabeko helburu bakarra nazioarteko solidaritatearen dimentsioa (9. helburua) da.

2. taula. EcoEuskadi 2020ren helburuen eta 2030erako Gipuzkoarako eraldaketa handien arteko harremana

EcoEuskadi 2020	Gipuzkoa 2020-2030
1. helburua. Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea	<b>1. Eraldaketa ekonomikoak (EE).</b> Berrikuntzan eta ezagutzan oinarritutako ekonomia ireki, lehiakor eta jasangarria bultzatzea.
2. helburua. Euskadi erabat integratzailea den eta enplegu, hezkuntza, prebentzio zein elkartasun arloetan kohesionatuta dagoen herrialde gisa sendotzea	<b>2. Eraldaketa demografiko-sozialak (EDS).</b> Gizarte gero eta zaharragoranzko trantsizioa kudeatzea eta ongizatea gizartearen finantzaketa bermatzea.
3. helburua. Gizarte babeseko sistemak indartzea, garapen harmonikoa, osasungarria eta bidezkoa bermatzen jarrai dezaten.	
4. helburua. Gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatuta.	<b>3. Ingurumen eta lurralde eraldaketa (ILE).</b> Etorkizuneko belaunaldiekin konpromiso irmoa duen ingurumen jasangarritasunerantz egitea.
5. helburua. Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzea, berotegi efektuko gas isuriak murriztea eta klima aldaketaren eraginak minimizatzea	<i>Energia berriztagarrien programa estrategikoa*</i> <b>(Ingurumen eta lurralde eraldaketa)</b>
6. helburua. Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratuko eredu jasangarriago bat garatzea	<i>Mugikortasun jasangarriaren programa estrategikoa (auto elektrikoa eta tren*)</i> <b>(Ingurumen eta lurralde eraldaketa)</b>
7. helburua. Kalitatezko hezkuntza eta balio sistema sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta, hezkuntza zein trebakuntza edukien aldetik, lan merkatuak eta gizarteak bizitza osoan zehar eskatzen dituzten gaitasunetara egokitua, jasangarritasuna arlo guztietan barne hartuta.	<b>4. Eraldaketak ikaskuntzan eta ezagutzan (EIE).</b> Gipuzkoa, ikasten duen lurraldea.
8. helburua. Berritzailea, eraginkorra, abegitsua eta herritarrentzat gardena den administrazio publiko bat ezartzea.	<b>5. Espazio publiko-pribatuaren eraldaketa (EPPE).</b> Administrazio publikoa guztiz modernizatzea eta erakunde egitura gehiago arrazionalizatzea. Balio berrietan oinarritutako gobernantza berria.
9. helburua. Euskadik Milurtekoko Helburuak betetzen, eta, oro har, herrialde txiroenek garapen jasangarria lor dezaten laguntzea.	

\*Eraldaketa ekonomikoaren barruan sartuta.

### 3. eranskina. Partaidetza prozesuaren laburpena

Partaidetzak **aztarna** utzi du EcoEuskadi 2020 ekimenean

Gizarteak eta herritarrek EcoEuskadi 2020 ekimenean gauzatutako partaidetza prozesuari emandako erantzunak aztarna utzi du. Lan eta esfortzu partekatuari esker gertatu da hori. Batetik, EcoEuskadi 2020 ekimenak parte hartzeko hainbat espazio sortu ditu; eta bestetik, herritarren eta eragile sozioekonomikoen erantzuna bikaina izan da.

Hainbat hiletan (2011ko urtarriletik maiatzera) lanean aritu eta partaidetza prozesua bukatu ondoren, jarraian zehaztuko dugun balorazioak alderdi hauei buruzko ondorioak ateratzeko aukera ematen du:

1. Partaidetza **zifrei** buruzkoak.
2. **Ekarpen** nagusiei buruzkoak.
3. Eratorritako **konpromisoei** buruzkoak.

#### 1. EcoEuskadi 2020 ekimeneko partaidetza zifrak

EcoEuskadi 2020 ekimeneko partaidetza prozesua laburtzen duten **zifrak** hauek dira:

Partaidetza	Partaidetza saiioak	Parte hartzaile kopurua
Herritarrak	➤ Sare sozialak:	
	Facebook	450 lagun
	Twitter	180 jarraitzaile
	Openideiak	142 kide
	Tuenti	38 kide
	Unibertsitate arloko pertsonen postak	19
	➤ Udaletako Agenda 21en foroak	73
	➤ GKEak	9
	➤ Etorkizuneko tailerrak (analisi kualitatiboa):	
	○ Taldeak:	9
○ Pertsona kopurua	72	
➤ Inkesta herritarrei (analisi kuantitatiboa)	1.200	

## Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia 2020

Partaidetza	Partaidetza saioak	Parte hartzaile kopurua
Eragile sozioekonomikoak eta erakundetakoak	➤ Jardunaldi orokorrak	534
	➤ Lehendakariaren Gai Sozioekonomikoetarako Aholku Batzordea).	30
	➤ Eusko Jaurlaritzaren sail arteko saioak: gizartearena, ingurumenarena eta ekonomikoa	45
	➤ Udalsarea 21, Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sarea	23
	➤ Bai + 5 foroa	83
	➤ Garapen / Eskualdeak (Garapen agentziak eta mankomunitateak)	27
	➤ Izaite (Jasangarritasunaren aldeko Euskal Enpresen Elkarte)	40
	➤ Q Epea, bikaintasunaren aldeko erakunde publikoen sarea	5
	➤ Teknologia zentroak	10
	➤ Ihobe	22
➤ Sailen saioak	20	
Gazteria	➤ <b>Unibertsitateak:</b>	294
	○ Prozesuak ikasgeletan	3
	○ Unibertsitate-elkarte kopurua	
	➤ <b>Lanbide heziketa</b>	23
	○ Zentro kopurua	841
	○ Langile kopurua	
➤ <b>Beste gazte elkar batzuk</b>	120	
➤ <b>Ikastetxeak (16-18 urte)</b>	10	
○ Ikastetxe kopurua	385	
○ Ikasle kopurua		

EcoEuskadi 2020 ekimenean gizarte-eztabaida txertatzeko egindako esfortzua islatzen duten zifra garrantzitsuak dira. Eusko Jaurlaritzak partaidetza fisiko eta birtualerako guneak jarri ditu erabilgarri, gazteen, enpresen, gizartearen, erakundeen eta herritarren ikuspegitik askotariko iritzi eta jarrerak jasotzeko helburuarekin.

Hona hemen datu osagarri batzuk: ecoeuskadi2020.net webgunean 14.000 bisita egin dira, 40.925 orri ikusi dira eta gunean 3,10 minutu eman dituzte batez bestean bisitariek (2011ko ekaineko datuak).

Partaidetza prozesua eragile eta erakunde guztiei iritsi ez bazaie ere, balio nagusia Eusko Jaurlaritzarentzako, eta oro har, euskal gizartearentzako planteamenduak, antolakuntzak eta garapenak ekarri dituen salto kualitatibo eta kuantitatiboan dago. Prozesuak honetan lagundu du:

- Berdinak ez direnen artean erlazio eta topaketa guneak sortzen.
- Ezagutza, gogoeta eta ikaskuntza partekatutak ekartzen dituzten eztabaidak sortzen.

Landu diren **gaiak** EcoEuskadi 2020 ekimena egiteko prozesu teknikoaren arabera aldatu dira. Horrela, unearen arabera, partaidetzaren bidez, ondokoak nola ekin edo orientatu eztabaidatu da:

- Euskadiren jasangarritasunaren erronka nagusiak.
- Euskadi jasangarriaren 2020ko ikuspegia.
- Euskadiko jasangarritasunaren 8 gakoak.
- Helburu estrategikoak.
- Jardute lerroak.

## Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia 2020

Jarraian, EcoEuskadi 2020 eraikitzeko prozesuan irekitako espazioak laburbiltzen dira, eta eztabaidatutako gaiekin eta sakondutako jasangarritasun gakoekin lotu dira.

	Erakundea:	Data	Eztabaidatutako eta landutako gaiak								
			2020ko ikuspegia	1. GAKOA	2. GAKOA	3. GAKOA	4. GAKOA	5. GAKOA	6. GAKOA	7. GAKOA	8. GAKOA
HERRITARRAK:	Legazpiko Tokiko Agenda 21eko Foroa	2011/03/24									
	Nerbioi Ibaizabaleko Tokiko Agenda 21eko Foroa	2011/04/04									
	Zarauzko Tokiko Agenda 21eko Foroa	2011/03/29									
	Donostiako Ingurumenaren Aholku Kontseilua	2011/04/06									
	Debarreneko Tokiko Agenda 21eko Foroa (Debegesa)	2011/03/30									
	Goierriko eragile sozioekonomikoen foroa (Goieki)	2011/04/13									
	KALE DOR KAYIKO ijitoen kultur elkarte	2011/04/19 2011/04/26									
	GKEak	2011/04/06									
GAZTEAK	Deustuko Unibertsitatea: La Comercial-5. maila	2011/03/28 2011/04/07									
	Deustuko Unibertsitatea: La Comercial-2. maila	2011/03/15 2011/04/19									
	EHU: Donostiako Eskola Politeknikoa	2011/04/14									
	23 Lanbide Hezkuntzako zentro	2011ko martxoa eta apirila									
	10 Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe	2011ko martxoa eta apirila									
	AISEC: unibertsitateko ikasleen eta graduatuen sare orokorra	2011/04/27									
	Eusko Ikaskuntza-Gazteak	2011/03/12 2011/04/02									
	Euskadiko Bosko Taldea Federazioa	2011ko apirila									

## Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia 2020

	Erakundea:	Data	Eztabaidatutako eta landutako gaiak								
			2020ko ikuspegia	1. GAKOA	2. GAKOA	3. GAKOA	4. GAKOA	5. GAKOA	6. GAKOA	7. GAKOA	8. GAKOA
ERAGILEAK:	IZAITE	2011/03/14 2011/03/18 2011/04/05									
	BAI +5	2011									
	Q-EPEA Bikaintasunaren aldeko erakunde publikoak	2011/04/18									
	GARAPEN	2011/04/01 2011/04/15									
	Teknologia-zentroak	2011/03/29									
ERAKUNDEAK	UDALSAREA 21, Batzorde Teknikoa	2011/04/05									
	IHOBE	2011/03/25 2011/04/08									
	Eusko Jaurlaritza – Lurralde Plangintzaren sail arteko saioa	2011/03/09									
	Eusko Jaurlaritza – Osasunaren sail arteko saioa	2011/03/29									
	Eusko Jaurlaritza - Gizarte Gaiaren sail arteko saioa	2011/04/04									
	Eusko Jaurlaritza – Administrazio Publikoaren sail arteko saioa	2011/04/12									
	Eusko Jaurlaritza - Ekonomia eta Ingurumeneko sail arteko saioa	2011/04/18									
GUNE IREKIAK	Jardunaldi irekiak: Jasangarritasunaren erronkak Euskadin.	2011/01/25 2011/01/26									
	Jardunaldi irekiak: Jarduera proposamenak	2011/05/09 2011/05/10 2011/05/11									
	Sare sozialak	2011									
	Posta elektronikoa	2011									

### Claves de la sostenibilidad:

1. gakoa. Baliabide natural eskasak eta agortzearen daudenak	2. gakoa. Energia mendetasuna eta klima aldaketa	3. gakoa. Lehiaren globalizazioa	4. gakoa. Mugikortasun eta garraio jasangaitzak
5. gakoa. Aldaketa demografiko sakonak	6. gakoa. Belaunaldi aldaketa desorekatua	7. gakoa. Aldatzen ari den balio sistema baten hauskortasuna	8. gakoa. Nazioarteko garapen desberdina

### 2. EcoEuskadi 2020 ekimenari egindako ekarpen nagusiak

EcoEuskadi 2020 ekimenean parte hartzearen ondorioz, orri asko idatzi eta dokumentu ugari sortu dira. Eztabaida lekuetan sortutako eduki eta gogoetak ñabardura guztiekin laburtzea zaila da, ia ezinezkoa.

Hala ere, dokumentazioa aztertzeak herritarrek, gazteek, eragile sozioekonomikoek eta administrazioko langileek EcoEuskadi 2020 ekimenari ekarritako **pentsamolde ildo nagusiak** zein diren jakiteko aukera ematen du.

Hausnarketa gako horien gaineko adostasun edo iritzi maila handia dago, eta gainera, egindako gizarte diskurtsoaren analitika indartuta atertzen dira, ñabardura gehiagorekin. Eta, beraz, partaidetza prozesuak EcoEuskadi 2020 ekimenari egindako ekarpen garrantzitsuena dira. Honako hauek dira:

- **Parte hartu duten erakunde eta pertsonak** beharrezkotzat jotzen dute Euskadik Garapen Jasangarriko Estrategia behar duela. Gizartea ados dago gaur egungo ekonomia, gizarte eta ingurumen krisian islatzen den indarreko sistemaren jasangarritasun ezari premia aurre egin beharko zaiola. Beraz, gizarteak jasangarritasuna herrialdearen estrategian eta ereduan, eta hura garatzen duten politika sozioekonomikoetan eta ingurumen politiketan benetan integraztearen aldeko apustua egin du.
- **Lidergo politikoa eta soziala ezinbestekoa da** ikuspegi eta eredu ekonomiko eta sozial jasangarri berriarekin lotutako aldaketei aurre egiteko eta haiek onartzeko. Un liderazgo que tiene que ser compartido y protagonizado por las personas, el conocimiento y la innovación.
- Jasangarritasunerantz aurre egiteak **sektorekako irtenbide tekniko eta teknologikoak** eskatzen ditu, baina **baita erantzukizun soziala ere**. Herrialdearen erronkei aurre egiteko proposamen gehienek honekin dute zerikusia:
  - *Kudeaketa tekniko iraunkorra eta berritzailea* hainbat jarduera esparrutan, hala nola: energia eta klima aldaketa, mugikortasuna, lurraldearen antolamendua, baliabideen kudeaketa, ekoizpena eta kontsumoa eta abar. Una gestión que tiene que ir acompañada de un marco legislativo y fiscal de apoyo.
  - Euskal gizartearen –administrazioa, eragile sozioekonomikoak eta herritarrak barne–*hezkuntza, sentsibilizazioa eta konpromisoa* Euskadirako garapen jasangarriko eredu batekin.
- Hauek dira Euskadin etorkizun jasangarriari aurre egiteko **beharrezkotzat jotzen diren baldintza batzuk**:
  - *Pertsonak eta gazteak bereziki* EcoEuskadi 2020 ekimenaren ardatz nagusian kokatzea; horrela, garrantzi berezia hartuko du hezkuntza, osasun, gizarte, enplegu eta bestelako politiken orientazio egokiak.



### 3. EcoEuskadi 2020n parte hartzeak eragindako konpromisoak

Partaidetza prozesu honen helburu nagusia eztabaida soziala sortzea eta ondorio nagusiak EcoEuskadi 2020 Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategiaren barruan sartzeari izan da. Bete dugu helburu hori, baita gauzatzeko konpromisoa ere.

Beraz, esan daiteke herritarren parte-hartzearen emaitza nagusiek balioa ekarri dutela, eta EcoEuskadi 2020ren atzean dagoen hausnarketa eta lan teknikoa aberasten eta indartzen lagundu dutela. **Euskal gizarteak kontuan hartuta eta euskal gizartearentzako egindako estrategia da.**

Hala ere, lana ez da hor bukatu. EcoEuskadi 2020 Euskadiko Garapen Jasangarriko Estrategia onartu ondoren, **ibilbide berri bat hasi da, eta hori ere guztion erantzukizuna eta konpromisoa da.**

EcoEuskadi 2020 ekimena eta haren proposamenak ezagutzera ematea eta garatzea, ekimenera beharrezkoak diren esfortzuak eta gaitasuna bideratzea, eskatutako portaera aldaketak onartzea... Pertsona bakoitzak eta taldeak hartu behar dute horretarako konpromisoa. **Herrialde gisa presarik gabe baina etenik gabe** landu behar dugun konpromisoa eta erronka.

Partaidetza prozesuaren deskribapenarekin eta lortutako emaitzekin «Parte-hartzeak azterna utzi du EcoEuskadi 2020 ekimenean» izeneko dokumentua osatuko da. Dokumentu hori Garapen Jasangarriko Estrategiari gehituko zaio.

## 4. eranskina. Herritarrak eta garapen jasangarria

Sortutako partaidetza espazioekin batera, Eusko Jaurlaritzak ahaleginak egin ditu herritarrek garapen jasangarriaz eta EcoEuskadi 2020ren helburu estrategikoez zer pentsatzen duten ezagutzeko. Horretarako, honako hau egin da.

- Ikerketa kualitatiboa; etorkizuneko 9 eztabaida-tailer taldetan banatutako 72 partehartzaile egon dira. Horiek garapen jasangarria aztertu dute kontzeptu bezala, baita EcoEuskadi 2020ren Jasangarritasun Gakoak ere.
- Ikerketa kuantitatiboa; euskal herritarrei telefono bidezko 1.200 elkarrizketa egin zaizkie. Horietan euskaldunen bizi kalitateari buruzko gizarte pertzepzioa aztertu zen, baita gertuko etorkizunean Euskadik behar bezala funtziona dezan garapen jasangarriaren garrantzia ere.

Helburu nagusia herritarren EcoEuskadi 2020ri buruzko iritzi esanguratsuenak identifikatzea da, baita egindako bi ikerketa faseetako emaitzak integratzea ere. Jarraian, helburuen eta bi ikerketen arteko harremana jasotzen da:

HELBURU ESTRATEGIKOAK ECO-EUSKADI 2020	Jasangarritasun gakoak (Fase kualitatiboa)	ANALISI-PARAMETROAK (Fase kuantitatiboa)
1. Euskadi ekonomia berritzaile, lehiakor, ekoeraginkor eta ireki bihurtzea	Lehiaren globalizazioa	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Bizi kalitatea.</li> <li>✓ Bertako produktuak kontsumitzea</li> <li>✓ Enpresen lehiakortasuna</li> <li>✓ Globalizazioaren aurkako defentsa</li> </ul>
2. Euskadi erabat integratzailea den eta enplegu, hezkuntza, prebentzio zein elkartasun arloetan kohesionatuta dagoen herrialde gisa sendotzea.	Belaunaldi aldaketa desorekatua	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Enplegua</li> <li>✓ Etorkinak gizarteratzea</li> <li>✓ Lan merkaturako prestatuta dauden gazteak</li> <li>✓ Gazteentzako lana Euskadin</li> </ul>
3. Gizarte babeseko sistemak indartzea pertsonen garapen harmonikoa, osasungarria eta bidezkoa bermatzen jarrai dezaten.	Aldaketa demografiko sakonak	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Populazioaren zahartzea</li> <li>✓ Pentsioei eusteko arazoak</li> </ul>
4. Gure natur baliabideei eta biodibertsitateari eustea, eta horretarako, lurraldea, azpiegiturak, ekipamenduak eta etxebizitzak errespetuz eta orekaz antolatuz.	Baliabide natural eskasak eta agortzeak daudenak	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Baliabideen kontsumoa</li> <li>✓ Ingurumen mehatxak</li> <li>✓ Ingurumena konpontzeko aurrerapen zientifikoak.</li> </ul>
5. Jatorri fosileko energiekiko mendekotasuna minimizatzea, berotegi efektuko gas isuriak murriztea eta klima aldaketaren eraginak minimizatzea.	Energia mendetasuna eta klima aldaketa	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Klima aldaketa</li> <li>✓ Mendetasun energetikoa</li> </ul>
6. Lurralde barruan egituratzeko eta kanpoaldearekin lotura lehiakorra izateko aukera emango duen mugikortasun integratuko eredu jasangarriagoa garatzea.	Mugikortasun eta garraio jasangaitzak	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Zirkulazio arazoak</li> </ul>
7. Kalitatezko hezkuntza eta balio sistema sortzea, eskola arrakasta lortzera bideratutakoa, malgua eta, hezkuntza zein trebakuntza edukien aldetik, lan merkatuak eta gizarteak bizi osoan zehar eskatzen dituzten gaitasunetara egokitua, jasangarritasuna arlo guztietan barne hartuta.	Aldatzen ari den balio sistema baten hauskortasuna	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Mugarik gabe kontsumitzea</li> <li>✓ Solidaritatearen gainbehera</li> </ul>
8. Berritzailea, eraginkorra, abegitsua eta herritarrentzat gardena den administrazio publiko bat ezartzea.	Eragile arduradunak (zeharkako analisia)	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Administrazioen koordinazioa</li> </ul>
9. Euskadik Milurtekoko Helburuak betetzen, eta, oro har, herrialde txiroen garapen jasangarria lor dezaten laguntzea.	Nazioarteko garapen desberdina	<ul style="list-style-type: none"> <li>✓ Herrialde txiroen laguntzea</li> </ul>

Azterlanaren emaitza kualitatiboak honako elementu hauetan zehatz daitezke oso modu sintetikoan:

- Gizarteari zaila egiten zaio oraindik ere garapen jasangarria ulertzea ingurumenari lotzen zaizkion alderdietatik haratago; horrek azaltzen du Euskadiko etorkizun ekonomiko edo sozialaren lotutako arazo edo egoerekin kezkatuta ez agertzea.
- Ekonomiaren arloan, herritarrek uste dute Euskadik garaietara egokitzen jakin duela, eta globalizazioa bere merkatua hobetzeko eta horren mugak zabaltzeko aukeratzat jotzen dute. Gainera, kanpoko produktuak sartzeak tokiko merkatua merkatu ahul bihur dezakeela uste dute. Hala ere, beren ustetan, lanean jarraitu behar dugu, Euskadi merkatu globalean ekonomia lehiakor izaten jarrai dezan..
- Gizartearen aldetik jasangarria den garapenari dagokionez, balio sistema bideratzeko moduaren inguruan kezka dute, etorkizuneko belaunaldiei modernitatea eta berrikuntza transmititu behar baitzaie, betiere, gaur garena izatera eraman gaituzten euskal balio tradizionalak ahaztu gabe.
- Ingurumenaren inguruan, herritarrei ez zaie erraza egiten oraindik iritsi ez diren arazoekin enpatia izatea eta horietaz kezkatzea; hortaz, klima aldaketari eta baliabide eskasiari buruzko kontzientziarioa eta prebentzioa zaila izan daiteke. Hala ere, herritarrek konturatzen hasi dira egun ditugun kontsumo ohiturak ez direla biderik egokiena.
- Herritarrek ez dute beren gain hartzen ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren arloko aldaketak sustatzeko erantzukizuna, laguntzeko prest agertzen diren arren. Aldaketa sortzeko erantzukizuna eragileek (erakundeek edo enpresek) hartzen dute; hortaz, defizita dago gizartearen erantzukizunean.

Fase kuantitatiboan lortutako emaitzen laburpenetik honako alderdi nabarmentzen dira:

- % 80k baino gehiagok beren bizi kalitatea ona edo oso ona dela uste dute. Hala ere, uste dute lehiak eta globalizazioak bizi kalitate hori mehatxa dezaketela; beraz, galdetutakoan erdia baino gehiago globalizazioaren aurrean defendatzeko neurriak hartzeko prest egongo litzateke, eta tokiko produktuak kontsumituko lituzkete, garestiagoak izanagatik ere.
- Ia guztiek, % 95ek, uste dute enplegua gizarteak behar bezala funtziona dezan funtsezko alderdia dela. Herritarren zahartzea eta pensio sistemen bideragarritasuna, berriz, alderdi garrantzitsu dira % 75entzat.
- % 75ek uste du baliabideak kontsumitzeko egun dugun erritmoa gehiegizkoa dela eta etorkizuneko belaunaldiak baldintzatzen dituela. % 46k uste du ingurumenaren inguruko mehatxuak neurritz gainekoak direla, eta % 48ren iritziz, aurrerapen zientifikoek horiek konponduko dituzte. Bestalde, ia % 70 kontzientziatuta dago klima aldaketaren garrantziaren inguruan.
- Hezkuntzari dagokionez, herritarren % 64k uste du gazteak prest daudela lan merkaturako, eta lanera Euskadik kanpo joan behar izatea arazotzat ikusten dute. Nabarmentzeko modukoa da balioetan oinarritutako hezkuntzari ematen dioten garrantzia. Gainera % 70ek pentsatzen dute ez garela lehen bezain solidarioak; baina, era berean, % 84 ados daude herrialde aberatsek herrialde txiroenak lagundu behar dituztelako ideiarekin.